

# EAEko ekonomiaren urteko txostena 2023

Informazio hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/economia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@euskadi.eus](mailto:economia@euskadi.eus)

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

# Aurkibidea

0. Ekonomiaren egoera laburbilduta .....	1
1. Ekonomiaren erresilientzia 2023an .....	12
1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera .....	12
1.2 Euskadiren bilakaera ekonomikoa .....	23
2. Ekonomia sustatzeko politikak .....	77
2.1 Inflazioari aurre egiteko moneta politika .....	77
2.2 Zerga politika hedakorra.....	88
2.3 EAEko sektore publikoaren erantzuna .....	93
2.4 Next Generation EB programaren aukerak .....	109

# Taulen aurkibidea

1. Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak.....	2
2. BPG errearen bilakaera .....	3
3. EAEko taula makroekonomikoa.....	7
4. EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait .....	10
5. Munduko ondasunen merkataritza eremuka .....	16
6. Ekonomiaren aldagai nagusiak .....	22
7. Lehen arloko adierazle nagusiak.....	30
8. EAEko industriaren BEGaren bilakaera .....	31
9. Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak .....	33
10. Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak.....	34
11. Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka .....	35
12. Errenten adierazleen bilakaera.....	37
13. Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera .....	37
14. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera .....	38
15. Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn .....	39
16. EAEn eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga .....	43
17. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena .....	45
18. EAEn eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria .....	46
19. Enplegua sektoreka .....	52
20. Enplegua erregulatzeke EAEn baimendu diren espedienteak.....	54
21. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera .....	60
22. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa .....	61
23. EAEko kontsumo prezioen indizea .....	62
24. EAEko industriako prezioen indizea.....	65
25. Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak .....	66
26. Lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko irabazia eta sektore ekonomikoa .....	75
27. Enpleguaren egitura eta batez besteko irabazia okupazioaren arabera .....	76
28. Banku zentralen interes tasak .....	77
29. 10 urterako zor publikoaren errendimendua .....	79
30. Energia-krisiari eta Ukrainaren inbasioari erantzuteko neurrien aurrekontu-inpaktuari buruzko AIRef-ren estimazioa (milioi euro) .....	91
31. Zerga itunduen bilakaera.....	94
32. Europako inbertsioa finantzatzeko indarrean dauden programak.....	113
33. Next Generation funtsen esleipena Espainiako Estatuari .....	115

34. PRTRren lehen faseko inbertsio programak .....	118
35. PERTEak 2024ko maiatzaren 31n egikaritzea .....	119

## Irudien aurkibidea


1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak .....	1
2. BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn .....	5
3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak.....	6
4. Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea .....	13
5. Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	14
6. Salgaien munduko merkataritzaren bolumenaren eta munduko BPGaren hazkundera .....	15
7. Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak.....	17
8. Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....	18
9. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak .....	20
10. BPG biztanleko. 2019-2023 .....	24
11. BPG biztanleko. EAP .....	25
12. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (I) .....	27
13. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (II) .....	27
14. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (III) .....	28
15. EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. ....	32
16. Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	36
17. EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko .....	40
18. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I) .....	41
19. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II) .....	42
20. EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak .....	47
21. Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	49
22. Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak.....	51
23. Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....	52
24. ABEEE egoeran dauden pertsonen bilakaera .....	53

25. Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea) .....	55
26. Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2023. urtea .....	56
27. Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko .....	57
28. Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko.....	57
29. Langabezia tasaren bilakaera EAEn .....	58
30. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....	59
31. Langabeziaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2023. urtea .....	59
32. KPIaren bilakaera.....	63
33. EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2023ko batez besteko balioak.....	64
34. Lan kostu osoa langile bakoitzeko 2019-2023.....	67
35. Lan kostu osoa sektoreko langile bakoitzeko. Urte arteko aldakuntza tasak.....	68
36. Lan kostu nominala orduko .....	68
37. Batez besteko soldataren bilakaera Euskadin. 2008. urtea=100 .....	69
38. Soldataren bilakaera Euskadin. Pertzentilak. 2008. urtea=100.....	70
39. Soldataren bilakaera Euskadin. 10 pertzentila. 2008. urtea=100 .....	71
40. Soldataren bilakaera Euskadin. 90. pertzentila. 2008. urtea=100.....	72
41. Soldata arrakalaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera. 2008. urtea=100 .....	73
42. Soldata arrakalaren bilakaera adinaren arabera. 2008. urtea=100 .....	74
43. EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko .....	83
44. Gordailuen bilakaera. Milioi euro.....	85
45. Kredituen bilakaera .....	86
46. Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Milakoak.....	87
47. Interes tasen bilakaera .....	88
48. Defizitaren eta zor publikoaren bilakaera .....	89
49. Ordaindutako MRR funtsak 2021-2023.....	92
50. Zerga nagusien diru bilketa 2005-2023. BPGaren %a .....	95
51. Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2023. BPGaren %a.....	96
52. Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapitaleko gastua eta defizita 2005-2023. BPGaren %a.....	99
53. Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisia 2005-2023. BPGaren %a.....	100
54. Zorraren kostua eta bizitza.....	101
55. Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2023. BPGaren %a.....	102
56. Foru aldundien aurrezkoa, kapital gastuak eta defizita 2005-2023. BPGaren %a.....	103
57. Foru aldundien zorpetze beharraren analisia 2005-2023. BPGaren %a.....	104
58. Administrazio Autonomoaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %a .....	104
59. Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2023). BPGaren %a .....	108
60. BPG per capita (\$ korrontekak).....	110
61. Patente teknologikoak eta atzerriko inbertsioa .....	111
62. MRR funtsak Espainian hedatzeko eskema orokorra .....	116

## 0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

**M**unduko ekonomiak egoera zail bati aurre egin zion 2023an, non Ukrainako gerrak, inflazio altuak, interes tasen igoerak, Gazako Zerrendako gatazkak eta beste tentsio geopolitiko batzuek jardura ekonomikoaren bilakaera baldintzatu zuten. Hala eta guztiz ere, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, munduko ekonomia %3,2 hazi zen erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) egindako neurketan, eta %2,7, berriz, merkatuko truke tasa kontuan hartuta egindako kalkuluan. Hazkunde tasa horiek nahiko apalak dira mende honen hasieratik lortu ziren batez besteko balioekin alderatuz gero. Hala ere, NDFk berak aurreratu du datozen bost urteetan erritmoa %3,1 ingurukoa izango dela.

**EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak**  
1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

Beraz, joan den mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarrek hamarkadetako urteko aldakuntza tasaren antzekoa da berriro oraingoa, Txinak eta Asiako beste herrialde batzuek ezagutzen duten boomaren aurretikoa, azken horiek pixkanaka hazkunde erritmoak moteltzen ari baitira. Hala eta guztiz ere, garapen bidean dauden herrialdeen taldeak munduko ekonomian duen pisua handitzen jarraitzen du, eta guztizkoaren %58,8 biltzen du jada EAPTan eginiko kalkuluan. Ekonomia neurtzeko modu honetan, Txina da, alde handiz, munduko lehen potentzia, AEB baino hiru puntu gehiago, baina azken hori lehen tokian dago zenbatespena finantza merkatuetako moneten kanbio tasaren arabera kalkulatzeko denean.

Herrialde taldeka, ekonomia aurreratuak %1,6 hazi ziren 2023an, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago; izan ere, aurreko urteko emaitza pandemia kontrolatzeko martxan jarritako neurriak bertan behera utzi ostean jasotako bultzadak baldintzatu zuen. Hiruhilekotan, herrialde garatuek, oro har, portaera egonkorra erakutsi zuten eta aldakuntza tasak antzekoak izan ziren urtean zehar. Hala ere, egonkortasun hori Atlantikoaren bi ertzetan izandako bilakaera kontrajarriek esker lortu zen. Horrela, Europar Batasunak indarra galdu zuen urtea igaro ahala, eta AEBek, ordea, erritmoa bizkortu zuten hiruhilekoz hiruhileko, herrialde horretan atzeraldi arrisku handia aurreikusten zutenak agerian utziz. Inflazio handiaren eta horri aurre egiteko interes tasa altuen konbinazioa ziren ekonomiaren moteltze nabarmena aurreikusteko erabilitako arrazoiak. Hala ere, apaltze hori ez zen iritsi eta enpleguak indar handiz hazten jarraitu zuen urtean zehar.

***Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak***  
***1. taula***

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>41,2</b>	<b>1,6</b>	<b>0,7</b>	<b>Garatu gabeak</b>	<b>58,8</b>	<b>4,3</b>	<b>2,5</b>
AEB	15,6	2,5	0,4	Txina	18,7	5,2	1,0
Eurogunea	11,7	0,4	0,1	India	7,6	7,8	0,6
Japonia	3,7	1,9	0,1	Errusia	2,9	3,6	0,1
Erresuma Batua	2,2	0,1	0,0	Brasil	2,3	2,9	0,1
Kanada	1,4	1,1	0,0	Mexiko	1,8	3,2	0,1
Besteak	6,6	2,0	0,1	Besteak	25,5	2,9	0,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.



2022an bizi izan zen inflazio altuak, pandemiak ezarritako murrizketak kendu ondoren munduko ekonomiak izan zuen errebote handiaren ondorioz eta Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioek larriagotuta, bide eman zion herrialde garatu nagusietan prezioen igoera moteltzeari, nahiz eta prezioen igoera horiek altuak izaten jarraitu. Hala, 2022an KPIak batez beste ezarritako %8,0aren ostean, 2023an batez besteko tasa %4,1era jaitsi zen. Eurogunearen kasuan, inflazioa %8,4tik %5,4ra moteldu da. Inflazioa kontrolatzeko lan horretan, moneta politikak berebiziko garrantzia du, batez ere banku zentral nagusiek hartu zituzten interes tasen igoerek. Tasa igoera horiek 2022ko azken hiruhilekoan hasi ziren eta 2023an jarraipena izan zuten. Une honetan, moneta politika prezioetara transmititzen ari dela argi eta garbi hautematen da, KPIaren aldakuntza tasa %2,5aren inguruan baitago eurogunean eta %3,0an AEBetako ekonomian, azken kasu horretan jarduera ekonomikoa eta enplegua kaltetu gabe.

**BPG errerealaren bilakaera**  
**2. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,6</b>	<b>2,8</b>	<b>-2,7</b>	<b>6,5</b>	<b>3,5</b>	<b>3,2</b>
Herrialde garatuak	2,3	1,8	-3,9	5,7	2,6	1,6
AEB	3,0	2,5	-2,2	5,8	1,9	2,5
Japonia	0,6	-0,4	-4,1	2,6	1,0	1,9
Erresuma Batua	1,4	1,6	-10,4	8,7	4,3	0,1
Eurogunea	1,8	1,6	-6,1	5,9	3,4	0,4
- Alemania	1,0	1,1	-3,8	3,2	1,8	-0,3
- Frantzia	1,9	1,8	-7,5	6,3	2,5	0,9
- Italia	0,9	0,5	-9,0	8,3	4,0	0,9
- Espainia	2,3	2,0	-11,2	6,4	5,8	2,5
- Euskadi	3,1	2,2	-9,6	6,0	5,4	1,8
Garapen bidean daudenak	4,7	3,6	-1,8	7,0	4,1	4,3
Txina	6,8	6,0	2,2	8,4	3,0	5,2
India	6,5	3,9	-5,8	9,7	7,0	7,8
Errusia	2,8	2,2	-2,7	6,0	-1,2	3,6
Brasil	1,8	1,2	-3,3	4,8	3,0	2,9

Iturria: NDF eta Eustat.

Izan ere, ekonomia estatubatuarrak %2,5eko hazkundera eskuratu zuen 2023. urtean, aurreko urtekoa baino handiagoa, eta ustekabeko bizkortzea izan zuen urtean zehar, lehen hiruhilekoko %1,7tik laugarreneko %3,1era igaro baitzen hazkunde erritmoa. Azken tasa hori bi hamarrenetan baino ez da apaldu aurtengo hasieran. Kontsumo pribatuak indar handia erakutsi zuen, nahiz eta inflazio handia izan, lan merkatuaren indarrari esker, eta administrazio publikoek ekonomiaren hazkundera bultzatu zuten. Horri guztiari kanpo saldoa gehitu zitzaion, ekarpen positiboa egin baitzuen, esportazioen hazkundera eta inportazioen jaitsiera konbinatuz.

Eurogunea ekonomia estatubatuarraren kontrako irudia erakutsi zuen, eta goitik behera egin zuen 2023an zehar, urteko batez besteko hazkundera %0,4an kokatu arte, urtea %1,3rekin hasi eta geldialditik gertu (%0,1) amaitu ondoren. Familien kontsumoak bilakaera positiboa izan zuen enpleguaren une onari esker. Hala eta guztiz ere, kapitalaren eraketa gordinak behera egin zuen finantzaketaren garestitzeagatik, ziurgabetasunagatik eta kostu energetikoen igoeragatik, besteak beste. Energiaren garestitzeak Alemaniari eragin dio batez ere, BPGa hiru hamarren jaitsi baita 2022ko datuekin alderatuta. Energiari kontsumoaren ahultasuna eta esportazioen beherakada gehitu behar zaizkio, herrialdeko motor nagusietako bat baita, bere lehiakortasun mailari eusteko zailtasunak dituen.

Eurogunea osatzen duten beste herrialde nagusiek ere moteltzeko joera nabarmena erakutsi zuten 2022ko emaitza onekin alderatuta, baina eremu positiboan mantentzeko gai izan ziren. Hala Frantziak nola Italiak batez beste %0,9ko hazkundera eskuratu zuten 2023an, baina batez ere Espainia nabarmendu zen, %2,5eko hazkunderarekin. Gehikuntza tasa horren gakoak zerbitzuen sektorearen indarra, ez ostalaritzarena bakarrik, eta ekonomiak sortzen duen enpleguaren etengabeko hazkundera dira.


Garatzeko bidean dauden ekonomiei dagokienez, oro har, 2022ko emaitzak bi hamarrenetan hobetu zituzten eta %4,3 hazi ziren. Txinak zerikusi handia izan zuen lortutako tasa horretan, aurreko urtearekin alderatuta hobekuntza nabarmena izan baitzuen, %3,0tik %5,2ra igaro baitzen. Kontuan hartu behar da 2022an oraindik ere murrizketak ezarri zirela Txinako hiri handi batzuetan, baina 2023an ekonomia normaltasun osoz garatu ahal izan zela. Indiak ere bere BPGaren gorakada garrantzitsua lortu zuen, hazkunde tasa %7,8raino azkartu baitzuen. Errusiak ere emaitza ona lortu zuen (%3,6), nahiz eta mendebaldeko herrialdeek zigorrak ezarri zizkieten Ukrainaren inbasioagatik. Azkenik, Brasil aurreko urtean erakutsi zuen tonu hedakorrari eusteko gai izan zen, eta 2023an %2,9 hazi zen.

Horiek horrela, EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2023. urtean, hots, Europako batez bestekoa baino nabarmen gehiago, baina Espainiako ekonomiaren bizitasunera iritsi gabe, azken hau zerbitzuetara lerratuago baitago. Horri esker, EAEko ekonomia pandemia pairatu aurretik lortutako ekoizpen mailaren gainetik kokatu zen, argi eta garbi, maila hori aurreko urtean gainditutako baitzegoen, Eustatek argitaratutako datuen berrikuspenaren arabera.


Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan zenbatetsita, 2023an izandako hazkundera %1,7koa izan zen, 16.000 enplegu baino gehixeago sortuz. Horri esker, 2019an, pandemia hasi baino lehen, behar izan zen lanpostu kopurua gainditu da. Hala eta guztiz ere, oraingo zifrak Atzeraldi Handia deitzen den finantza krisiaren aurreko urtean, hots, 2008an erregistratu zirenetatik urrun daude oraindik, hainbat hiruhilekotan milioi bat lanpostu baino gehiago lortu baitziren garai hartan. Hain zuzen ere, 16.000 lanpostu inguru falta dira orduan lortutako maila osorik berreskuratzeko. Aurten sortuko diren lanpostuak enplegu guztia maila horretan kokatzeko balio izatea aurreikusten da. Hala balitz, hamasei urte beharko ziren gertaera haiek EAEko lan merkatuan izan zuten eragin izugarria atzean uzteko.

**BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn**  
**2. irudia**

BPG 2008=100



Enplegua 2008=100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


Eskarien jatorriaren araberako analisiak erakusten duenez, kanpoko saldoak bere portaera neutrala berreskuratu du, eta BPGaren hazkundeari hamarren bateko ekarpena baino ez dio egin, aurreko bi urteetako emaitza esanguratsuetatik urrun. Neutraltasun horrek ez du esan nahi kanpoko merkataritzak EAEko ekonomiarentzat garrantzirik ez duenik, baizik eta esportazioek egiten duten ekarpen positiboaren eta inportazioek egiten duten ekarpen negatiboaren artean oreka bat dagoela. Izan ere, 2023an esportazioek EAEko BPGaren hazkundeari egindako ekarpena zortzi hamarren ingurukoa izan zen, eta inportazioek, berriz, zazpi hamarren kendu zizkieten. Zifra horiek familien kontsumoak hazkundeari ekarri zizkion bederatzi hamarrenekin aldera daitezke.

**EAEko BPGari eginiko ekarpenak**  
**3. irudia**

Barne eskaria



Kanpo eskaria



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Beraz, 2023an EAEko ekonomiaren hazkundearen zatirik handiena barne eskariaren sendotasunetik etorri zen, agregatu hori %1,7 hazi baitzen. Aldagai horrek 2022an izan zuen apaltze handiaren ondoren, iaz egonkortasun handiko profila erakutsi zuen, lau hiruhilekoak lehen hiruhilekoko %1,9 eta laugarreneko %1,4 artean kokatu baitziren. Aurreko urtearekiko intentsitatea galtzeak kanpora

egindako produktuen erosketa geldiarazteko balio izan zuen, eta kanpoko saldoak, adierazi den bezala, bere ohiko neutraltasuna berreskuratzeko.

**EAEko taula makroekonomikoa**  
**3. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Barneko azken kontsumoa	2,6	2,0	-8,9	5,2	6,0	1,5
Familien kontsumoko gastua	3,0	1,7	-12,1	5,8	7,7	1,5
Herri administrazioen kontsumoa	1,2	3,1	2,9	3,2	0,7	1,8
Kapital eraketa gordina	4,9	3,3	-12,1	5,9	8,7	2,1
Ekipamenduko ondasunak	4,5	3,0	-11,8	11,1	7,1	2,1
Gainontzeko inbertsioa	5,1	3,4	-12,3	2,8	9,6	2,0
Barne eskaria	3,2	2,3	-9,7	5,3	6,7	1,7
Esportazioak	2,7	-0,2	-15,9	10,7	17,1	1,2
Inportazioak	2,8	0,0	-15,8	9,4	18,7	1,0
<b>BPG</b>	<b>3,1</b>	<b>2,2</b>	<b>-9,6</b>	<b>6,0</b>	<b>5,4</b>	<b>1,8</b>
Lehen arloa	1,7	5,9	-16,9	15,1	-8,7	-3,0
Industria	2,0	1,4	-12,2	5,3	4,7	0,3
Eraikuntza	4,0	2,4	-14,4	1,0	6,7	2,1
Zerbitzuak	3,1	2,5	-7,9	6,6	5,9	2,4
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,3	2,2	-20,4	15,6	14,6	3,7
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,8	3,2	1,1	2,3	0,9	2,3
Gainontzeko zerbitzuak	3,0	2,4	-4,3	4,1	3,2	1,6
Balio erantsi gordina oinarrizko preziotan	2,9	2,3	-9,4	6,1	5,5	1,8
Ekizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,0	-11,9	5,2	4,6	1,6

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren indarra bere bi osagai nagusietan nabari da, baina bereziki kapital eraketa gordinean, 2023an %2,1 hazi baitzen, ekonomia osoaren gainetik. Tasa hori aurreko bi urteetako

baino baxuagoa da, eta inbertitzeko baldintzek okerrera egin dutelako gertatu zen. Alde batetik, Ukrainako gerrak ziurgabetasun, polarizazio geografiko eta protekzionismo giroa sortu zuen eta horrek enpresen itxaropenetan eragina izan zuen. Beste aldetik, inflazio handia kontrolatzeko moneta politika gogortu egin zen eta horrek finantzazio kostuak garestitu zituen. Hala eta guztiz ere, inbertsioaren hazkundera positibotzat hartu behar da. Hazkundera antzekoa izan zen ekipamenduko ondasunetan egindako inbertsioan (%2,1) eta gainerako inbertsioan (%2,0), eraikuntzan egiten dena barne hartzen duen atalean, alegia.

Azken kontsumoan egindako gastua %1,5 hazi zen iaz, aurreko bi urteetako baino askoz ere tasa txikiagoa; izan ere, bi urte horietan pandemiak eragindako murrizketak kentzearen ondorengo bultzada handiak mesede egin zien gastu horiei. Familien kontsumoa %1,5 hazi zen, ekonomia osoa baino pixka bat gutxiago, eta, beraz, aurrezteko nolabaiteko gaitasuna lortu zen. Kontuan hartu behar da, kontsumoko prezioak moteltzen hasiak baziren ere, 2023an inflazioa nahiko altua izan zela, eta horrek eragina izan zuela familia askoren kontsumo erabakietan. Aitzitik, enpleguaren sorrera biziak eta soldaten igoerak errenta erabilgarria eta, horrekin batera, kontsumo pribatua handitzea ahalbidetu zuten. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoa %1,8 hazi zen, EAEko ekonomia osoaren hazkunderarekin bat etorritik.

Sektoreka eginiko analisiak alde nabarmena erakusten du 2023ko hazkunderan, aurreko urtekoarekin alderatuta. Hala, 2022an hiru sektore nagusiak indartsu hazi ziren bitartean, iaz industriak ahultasuneko irudia eman zuen, eta hazkunderaren pisua eraikuntzan eta zerbitzuetan zentratu zen. Hain zuzen ere, industriaren balio erantsia %0,3 handitu zen urte osoan. Sektore horren zailtasunak Europako herrialde nagusietan ere hauteman ziren, eta energiaren garestitzeak bereziki Ukrainako gatazkaren ondoren, ziurgabetasunak, horniduren jatorrian izandako aldaketak eta finantzaketaren kostu handiak, interes tasa altuak zirela eta, eragin zituzten. Sektorea 2019an, pandemia hasi aurretik, lortutako mailatik hiru puntura dago oraindik.

Interes tasen igoerak eraikuntzan ere izan zuen eragina, hazkunderaren erritmoa moteldu eta %2,1eko aldakuntza izan baitzuen, ekonomia osoaren zertxobait gaineratik. Sektoreak ahulaldi bat pairatu zuen urtearen hasieran, baina bigarren hiruhilekoan suspertu egin zen; handik aurrera, balio erantsiaren moteltze argia erakutsi zuen. Kostuek gora egin zuten berriro urte horretan, baina 2022ko balio apartetara iritsi gabe. Lehengaien kasuan, 2023ko garestitzea %6,0tik gorakoa izan zen, eta eskulanak, berriz, joera leunagoa izan zuen (%2,1). Eskura dagoen informazioaren arabera, jarduera dinamikoagoa izan zen obra zibilean eraikitzeen atalean baino.

Zalantzarik gabe, zerbitzuen sektorea ari da EAEko ekonomiaren hazkundera bultzatzen, iaz %2,4 handitu baitzuen balio erantsia. Oro har, merkatuko zerbitzuek moteldu egin zuten aurreko urtean mantendu zuten hazkunde erritmo bikaina, eta sektore publikoari lotuago dauden zerbitzuek balio erantsia areagotu zuten. Hala, hezkuntza, osasuna, administrazio publikoa eta gizarte zerbitzuak barne hartzen dituen blokeak %2,3 igo zuen bere balio erantsia, aurreko urteko tasaren gainetik. Bestalde, merkataritza, ostalaritza eta garraioko taldeak %3,7ko igoera izan zuen, aurreko bi urteetako kopuruetatik oso urrun, baina oraindik ere oso tasa nabarmena eskuratuz. Azkenik, gainerako zerbitzuek intentsitatea galdu zuten eta aldakuntza tasa %1,6ra apaldu zen, 2022koaren erdira. Orotara, zerbitzuen balio erantsia pandemia hasi baino lehen zegoen mailan baino zazpi puntu gorago dago orain.

Etorkizunerako aurreikuspenak inflazioaren kontrol batetik pasatzen dira, baina hori ez da lortzen ari. Egia da bidearen zati handi bat egin dela, eta 2022ko erdialdean izan zen prezioen igoera handiak garestitze moderatuagoak ekarri dituela, baina Europako Banku Zentralaren helburutik urrun daude oraindik. Zehazki, Euskadiko BPGaren deflatoarea %4,0an kokatu zen 2023an, aurreko datuarekin alderatuta ia puntu bat beherago, nahiz eta urtearen bigarren erdian %3,0tik gorakoa izan. Beheranzko norabide horretan, antzeko bilakaera izan dute kontsumo prezioek ere; izan ere, 2022ko uztailan jaso zuten aldakuntza tasarik handiena (%10,5), eta %3,6ko batez bestekora jaitsi dira 2023ko batez bestekoan. Tasa horretatik jaitea oso zaila izaten ari da, 2024ko ekainean EAEko KPIaren tasa %3,5ekoa izateak agerian uzten duen bezala. Azpiko inflazioak, aldiz, moteltzeko joera nabarmena hauteman da, 2023aren hasieran maximoak jo zituen (%7,4) eta ekainean %3,0an kokatu baitzen.

KPIaren bilakaera, neurri handi batean, hegazkortasun handieneko produktuen gorabehera handien mende egoten da, batez ere energiaren prezioen mende. 2022ko igoeraren ondoren, Espainiako gobernuak zergak arintzeko hainbat neurri hartu zituen, garestitze horrek familietan izan zezakeen eragina mugatzeko. Horrez gain, nazioarteko merkatuetan petrolio eta gas naturala merketu egin ziren, eta, ondorioz, 2023ko hilabete batzuetan produktu energetikoen prezioa %20 baino gehiago jaitsi zen, indize orokorra kontrolatzen lagunduz. Hala eta guztiz ere, neurri horietako batzuk indarrean egoteari utzi diote eta energiaren prezioak gora egin du, KPIaren bilakaera ona geldiaraziz.

BPG errealaren (%1,8) eta enpleguaren (%1,7) hazkunderaren konbinazioak pertsona bakoitzeko lan faktorearen itxurazko produktibitate irabazi ia nulua uzten du 2023rako, aurreko bi urteetako irabazi handiekin kontrastean, eta 1995etik aldagai horren batez besteko baliotik (%1,0) urruntzen da. Kasu deigarriena industriarena da, tradizioz produktibitate irabazi handienak lortzen dituelako

eta iaz datu negatiboa (-%0,7) izan zuelako, enplegu gehiago sortu baitu (%1,0), bizitakoa bezalako geldialditik (%0,3) gertu dagoen une bati legokiokeena baino. Beste aldetik, eraikuntzak %1,3 hobetu zuen bere eraginkortasuna, eta zerbitzuek %0,4ko hobekuntza izan zuten, ohiko balioen azpitik.

***EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait***

***4. taula***

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100	109,3	108,4	100,0	100,2	101,1	100,5
BPG per capita EAPn. EB-27=100	117,3	116,7	105,3	106,9	108,4	110,4
BPG erreala merkatu prezioetan	3,1	2,2	-9,6	6,0	5,4	1,8
Enplegua	2,3	1,5	-6,2	2,7	2,8	1,7
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	0,8	0,7	-3,6	3,2	2,6	0,1
BPG nominala merkatu prezioetan	4,3	3,4	-9,7	8,6	10,5	5,8
BPGaren deflatorea	1,2	1,2	-0,1	2,5	4,8	4,0
KPI (urteko batez bestekoak)	1,6	1,0	-0,1	3,1	8,0	3,6
Kostu guztiak langile bakoitzeko	2,5	1,8	-1,1	4,9	2,7	4,5
Langabezia tasa	10,5	9,8	10,6	10,0	8,6	7,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

2023an, BPG nominala %5,8 hazi zen, aurreko bi urteetan baino nabarmen gutxiago. Neurritasun horren zati bat urteko prezioen igoerak eragindako moteltzeak eragin zuen. Izan ere, BPGaren deflatorea moteldu egin zen aurreko urteko %4,8tik aurtengo %4,0ra, eta bigarren seihilekoan %3,0ra hurbildu zen.

Azken urteetako inflazio handiak soldatapekoen erosteko ahalmena murriztea ekarri du, eta soldata igoera handiagoak eskatzen hasi dira. Hori horrela, 2023ko hitzarmen kolektiboek %4,2ko batez besteko igoera izan zuten, urte horretan KPIk eta BPGaren deflatoreak lortutako batez besteko



balioa hamarren batzuetan gaindituz. Lan kostuen bilakaera antzekoa izan zen, eta %4,5eko igoera ezagutu zuen.

Lan merkatuak bizi izan zuen une onari esker, iazko batez besteko langabezia tasa %7,8koa izan zen, aurreko urtekoa baino zortzi hamarren txikiagoa. Sexuaren araberako aldeak neurri batean zuzendu dira eta, hurrenez hurren, tasak %8,0 izan ziren emakumeentzat eta %7,6 gizonentzat.

Azkenik, aipatu behar da urrats garrantzitsuak ematen ari direla gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala murrizteko, baina 2022an, datuak ditugun azken urtea hori baita, urteko 5.781 eurokoa izan zela. Soldatan dagoen alde horren arrazoi nagusia lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen ehuneko handia da, kasu askotan beste aukerarik ezean. Deigarria da egiaztatzea adin goiztiarrenetan soldata arrakala intentsitatez murriztu dela, baina adin talde nagusienetan ia ez dagoela arrakala horren murrizketarik. Amatasuna eta emakumeek senideen zaintza beren gain hartzea dira soldata arrakala murrizteko zailtasunak azaltzen dituzten arrazoi batzuk.

## 1. EKONOMIAREN ERRESILIENTZIA 2023AN

### 1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera

2022aren amaieran, ekonomiaren bilakaerari buruzko igurikimenak oso ezkorrak ziren 2023rako. Bazirudien munduko jarduerak moteltze gogor bati aurre egin behar ziola, Ukrainako gerraren ondorioak, inflazio handiak eta horren ondoriozko diru gogortzeak digeritzeko beharrak markatuta. Hala ere, munduko ekonomia erresilientzia erakutsi zuen eta uste baino bizitasun handiagoa izan zuen. Aurrezpenaren koltxoak, lan merkatuen sendotasunak eta krisi energetikoari aurre egiteko laguntza fiskalek bultzada eman zioten eskariari; aldi berean, eskaintzak eskertu zituen botila lepoak normalizatu izana eta energiaren prezioetan zeuden tentsioak laxatu izana.


Izan ere, Ukrainan eta Gazan tentsio belikoak eta giza galera handi eta konponezinak gertatu arren, petrolioaren prezioak nahiko egonkor mantendu ziren, urtea hasierako eta amaierako mailak alderatuz gero. Zehatzago esanda, Brent motako petrolioaren salneurria 2022ko ekainean upel bakoitzeko 120 dolarretan kokatua zen, gehieneko prezioa markatuz, eta handik 80 dolarrera jaitsi zen urte amaieran. Azken balio horretan hasi zen 2023. urtea, eta horren inguruan ibili zen urtean zehar, goragoko maila jakin batzuk salbuespenak izan zirelarik (irailean upela 98 dolarrera igo zen); gerora, upela 80 dolarrera bideratu zen berriro, eta maila horretan mantendu zen 2024ko uztailean. Egonkortasun horri mesede egin zioten moneta politika uzkurkuen ondorioek eta Txinak uste baino eskari txikiagoa egin izanak.

TTF gas naturalaren prezioei dagokienez, erdira jaitsi ziren 2023an zehar, aurreko negutik metatutako erreserbei esker eta AEBetatik, Norvegiatik eta Afrika iparraldetik zetorren gas natural likidotuaren eta gasbidearen eskaintza zabalari esker. Zehatzago adierazita, urtea 64 euro inguruan hasi zen MWh bakoitzeko eta 36 eurotik behera amaitu zuten MWh bakoitzeko. 2024ko lehen

erdian, beheranzko joera horrek aurrera egin du, eta otsailean 26 eurotik behera kokatu zen MWh bakoitzeko; ondoren, gora egin du apur bat maiatzean, MWh bakoitzeko 30 eurora arte, eta balio horri eutsi dio uztailean.

Bestalde, Txinako higiezinaren sektorearen egoera zalantzazkoak, ekonomiaren susperraldiaren sendotasunari buruzko zalantzekin batera, industriarekin eta eraikuntzarekin lotutako lehengai gehienaren prezioak amildu zituen. Nikela, zinka, aluminioa eta kobrea, besteak beste, asko merketu ziren urtean zehar. Hain zuzen ere, nikelak bere prezioa %45 gutxitu zuen 2023an zehar. 2024rako ez da espero kotizazioak normaltzea sektore garrantzitsu horietan eta Asiako ekonomia erraldoian hazkundera berriro suspertu arte.

**Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea**  
**4. irudia**




Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.

Kontrapuntua zerealaren merkatuak jarri zuen. Ukrainako gerrak eta garagarraren eta gariaren esportazioak 2022. urtean eragin handia izan zuten. Geroztik, prezioak normaltzeko prozesua bizi zen. Hala ere, lehorteeak eta baldintza klimatikoek prezioak igotzea eragin zuten irailetik aurrera, batez ere gari kontratuetan eta, neurri txikiagoan, soja eta arto kontratuetan.

Zalantzarik gabe, lehengaien prezioek izan zuten moteltzeko joerak eragin nabarmena izan zuen inflazioa kontrolatzeko prozesuan 2023an zehar. Munduko inflazio orokorra 2022ko irailean %8,9an egotetik 2023ko abenduan %4,2 izatera apaldu zuen hazkunde erritmoa. Azpiko inflazioaren tasak ere apaldu egin ziren mundu mailan, 2022ko urrian %6,7 izatetik 2023ko abenduan %4,8 izatera igaro baitziren, baina behera egiteko erresistentzia handiagoa erakutsi zuten eta jaitsiera mailakatuagoa izan zen.

**Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**5. irudia**



Iturria: Eurostat.


Hala eta guztiz ere, inflazioa maila altuetan mantendu zen eskualde geografiko guztietan, banku zentralak ezarritako helburuak gaindituz. Eurogunean, inflazio orokorraren tasa 2022ko urrian jaso zen %10,6tik 2023ko abenduko %2,9ra jaitsi zen, eta azpiko tasa 2023ko martxoko %5,7tik abenduko %3,4ra apaldu zen. AEBetan, inflazio orokorra 2022ko ekainean markatu zuen %9,1etik 2023ko abenduan izan zuen %3,4ra jaitsi zen eta azpiko inflazioa 2022ko iraileko %6,6tik 2023ko abenduko %3,9ra gutxitu zen.

Munduko merkataritzari dagokionez, herrialde garatuetan eskaera txikiagoa izateak, Asia Ekialdeko merkataritza maila txikiak, merkataritzarako neurri murriztaileen gorakadak, lehengaien prezioen

aldakortasunak eta hornidura kate luzeago eta konplexuagoek, bereziki Txina eta AEBen artean, hazkuntza erritmoa oztopatu zuten, non energiaren prezioen beherakada ere ez zen nahikoa izan manufakturatutako produktuen eskaria bultzatzeko, horiek baitira merkataritza gehien sortzen dutenak. Horren guztiaren ondorioz, salgaien nazioarteko merkataritzaren bolumenak behera egin zuen, 2023an %1,2 murriztu arte, eta azken 20 urteetan atzeraldi mundialetik kanpo ondasunen merkataritzak izan duen lehen murrizketa iraunkorra markatu zuen. Halaber, munduko BPGaren hazkundearen (%3,0) eta salgaien munduko merkataritzaren bolumenaren hazkundearen (-%1,2) arteko aldea gutxienez hamarkada bateko handiena izan zen.

**Salgaien munduko merkataritzaren bolumenaren eta munduko BPGaren hazkundera**  
**6. irudia**

Urte arteko aldakuntza



Iturria: MME eta NDF.

Eskualdeka, Europa izan zen munduko merkataritzaren bolumenaren hazkundera ekarpen handiena egin zuena 2022an, baina 2023an izandako beherakadaren erantzule nagusia ere izan zen. Kontinenteak munduko salgaien merkataritzan duen eragin handia, neurri handi batean, munduko merkataritzan duen pisu handiagatik (%37) azaltzen da. Hain zuzen ere, esportazioen hazkundera puntu bat kendu zion Europak eta inportazioen hazkundera 1,7 puntu kendu zizkion. Bilakaera txar

horren arrazoia, oraindik garestiak diren prezioen aurrean soldata eta diru sarrera errealak mugatuta egotea da.

**Munduko ondasunen merkataritza eremuka**  
**5. taula**

Salgaien merkataritzaren bolumenaren urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak				Inportazioak			
	2020	2021	2022	2023	2020	2021	2022	2023
<b>Mundua</b>	<b>-4,7</b>	<b>8,6</b>	<b>2,3</b>	<b>-0,6</b>	<b>-5,3</b>	<b>10,5</b>	<b>3,7</b>	<b>-1,8</b>
Ipar Amerika	-9,2	6,4	3,8	3,7	-5,2	11,9	5,7	-2,0
AEB	-10,8	8,1	4,2	3,3	-3,9	12,1	5,9	-2,9
Erdi eta Hego Amerika	-5,0	6,6	2,9	1,9	-9,6	24,8	4,2	-3,1
Brasil	1,4	3,7	4,7	8,8	-7,1	24,7	1,8	-5,3
Europa	-7,7	8,1	3,7	-2,6	-7,2	8,8	6,0	-4,7
Europar Batasuna	-7,4	8,5	4,1	-2,8	-7,0	9,8	6,5	-5,3
EBE (*)	-1,0	-1,8	-2,1	-6,2	-5,4	10,3	-6,1	18,8
Errusia	-0,2	3,4	-2,6	-13,3	-3,2	14,1	-13,1	12,6
Ukraina	-6,0	-6,6	-40,1	-5,1	-10,3	7,6	-44,7	6,6
Afrika	-7,2	4,2	-2,4	3,1	-15,5	7,4	8,8	-2,4
Ekialde Hurbila	-6,5	-0,8	6,6	-1,6	-9,7	13,8	14,1	9,8
Asia	0,6	13,1	0,4	0,1	-1,0	10,5	-0,7	-0,6
Txina	2,8	17,3	-2,1	3,0	4,9	7,6	-7,1	2,9
Japonia	-8,1	12	1,9	-1,6	-3,8	2,4	0,6	-2,2
India	-11,3	22,2	0,9	2,9	-15,9	15,8	-1,2	8,5

(\*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.


Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Gainerako eremuei dagokienez, ibilbidea ez zen oso ezberdina izan. Esportazioak 2022an baino gutxiago hazi ziren eremu nagusi guztietan, eta inportazioek beherakada esanguratsua izan zituzten. Ipar Amerika izan zen 2022ko balioen aldean egonkortasuna erakutsi zuen eremu bakarra, bere esportazioak %3,7 hazi baitziren, aurreko urteko ia eritmo berean. Asiak, manufakturatutako produktuen hornitzaile nagusiak, esportazioen igoera txikia (%0,1) lortu zuen 2023an eta horrek

esan nahi du merkataritzaren munduko hazkunderari egindako ekarpena ere murriztu egin zela. Ekialde Ertainean eta Estatu Independenteen Erkidegoan esportazioen maila ere txikitu egin zen. Zailtasunak zailtasun, salgaien merkataritzaren bolumenak pandemiaren aurreko maila gainditu zuen.

Munduko jarduera ekonomikoa, bestalde, zertxobait moteldu zen 2023an, baina hasieran espero zena baino bizitasun handiagoa izan zuen, eta eremu geografikoen arteko heterogeneotasun nabarmena erakutsi zuen. Orotara, BPGaren hazkundera %3,0koa izan zen 2023an, Nazioarteko Diru Funtsak aurkeztutako lehen kalkuluen arabera.


**Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak**  
7. irudia



Iturria: NDF.

Ekonomiaren erresilientziari Txinako ekonomia berriro irekitzeak lagunduko zion. Baita herrialde aurreratuetako lan merkatu sendoek ere, familien gastua bultzatu baitzuten, nahiz eta diru baldintzak nabarmen gogortu. Orotara, lagungarria izan zen eskualde gehienetan inflazioa gutxitu izana, energiaren eta elikagaien prezioen jaitsierari esker. Horri esker, banku zentralak interes tasenigoerak moteldu zituzten, edo eten bat egin zuten.

**Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**8. irudia**



Iturria: NDF.

Zehatzago azalduta, Latinoamerikan eta Kariben jarduera moteldu egin zela hauteman zen (2023an %2,3 hazi zen, eta 2022an, berriz, %4,1), baina aurreikuspenak gainditu zituen kontsumoaren eta inbertsioaren erresilientziari, kapitaleko diru sarrera handiei eta kanpo eskariaren sendotasunari esker. Hala ere, inflazioak, atzera egin zuen arren, maila altuetan jarraitu zuen, eta egiturazko eta politika makroekonomikoko erronkek bere horretan jarraitzen dute. Bereziki, eskualdeko bi ekonomia nagusien, hots, Brasilen (%2,9) eta Mexikoren (%3,2), bizitasun handi samarra, espero



zena baino gehiago egin baitzuten gora, nabarmendu zen eremuko gainerako herrialdeek erakutsitako ahuleziaren aurrean. Hain zuzen ere, Mexikok AEBetako friendshoring eta nearshoring praktikei etekina atera zien neurri handi batean, hau da, Txinan eta beste herrialde batzuetan duen jarduera ekonomikoa, haiekin tentsio geopolitiko handiak bizi baititu, herrialde lagun eta hurbiletara zuzentzea.

Asiari dagokionez, Txinan, urte hasieran kontsumo pribatuak, murrizketa pandemikoak kendu ondoren, bultzada nabarmena ezagutu bazuen ere, sendotasun hori, ezustean, oso laburra izan zen. Gainera, higiezinaren sektoreko krisia areagotu egin zen, prezioen eta jabetzen salmenten beharakadaren ondorioz, eta, hortaz, higiezinaren inbertsioa murriztu egin zen, eta azpiegituran egindako inbertsioak dinamismoa galdu zuen (pandemiaren aurreko mailen azpitik geratu zen). Horren guztiaren ondorioz, inbertsio finkoa apatikoa izan zen. Esportazioek, bestalde, ezin izan zioten ekarpen handirik egin jarduera ekonomikoari, eta, herrialdeko gobernuak behartuta ikusi zen interes tasa ofizialak eta hipotekarioak murriztera, eta sektore publikoaren inbertsioa handitzera, kontsumoa eta inbertsioa bultzatzeko. Horren guztiaren ondorioz, ekonomiaren susperraldia espero zena baino mailakatuagoa izan zen. Dena dela, hazkunde ekonomikoaren tasa handia izan zen (%5,2) beste herrialde batzuekin alderatuta.


Indiari dagokionez, haren jarduera ekonomikoa %6,3 hazi zen 2023an, barne eskari sendoari eta manufaktura eta zerbitzu sektoreen hazkunde handiari esker. Zehatzago adierazita, kontsumo pribatuak eta inbertsioak inflazioaren moteltzearen, interes tasen murrizketaren eta konfiantza eta soldata errealean hobekuntzaren onurak jaso zituzten, eta horrek eta esportazioen sendotasunak India munduko bosgarren potentzia bihurtu zuten.

Japonia, berriz, 2022an erregistratutako balioekin alderatuta, hazkundera bizkortu zuen ekonomia bakanetakoa izan zen. Hain zuzen ere, Japoniako ekonomia %2,0 hazi zen 2023an, aurreko urtean baino puntu bat gehiago. Hazkunderaren osaerak erakutsi zuen oreka nabarmendu zen, barneko eta kanpoko eskariekin puntu bana eman baitzioten BPGaren hazkunderari. Alde batetik, yenaren balio galerak esportazioak bultzatu zituen eta inportazioek behera egin zuten; beste alde batetik, berriz, egoitzetan eginiko inbertsioaren susperraldiak eta kontsumo pribatuaren erresilientziak barne eskaria bultzatu zuten. Dena den, denak ez ziren albiste onak izan. Nagusiki inflazio neurritsuagoaren eta, batez ere, yenaren balio galeraren ondorioz, Japoniak Alemaniari eman zion 2023an munduko hirugarren ekonomiarik handiena izateko postua, dolarretan neurtutako zifretan. Lau urteko epe laburrean, Japoniako ekonomiak maila globalean bigarren tokian egotetik laugarrenera pasa da, Txinaren eta Alemaniaren atzetik.


Gainerako ekonomia aurreratuetan, heterogeneotasuna esanguratsua izan zen eremu geografikoen arabera. Besteak beste, AEBetako sendotasuna Erresuma Batuaren eta eurogunearen moteltze nabarmenarekin kontrastatu zen.

**Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**9. irudia**


AEB




Japonia



Eurogunea



Alemania



Iturria: NDF eta Eurostat.

Horrela, AEBek analisigileak harritu zituzten hazkunde tasa sendo batekin, BPGaren urteko balantzea %2,5 batekin ixtea ahalbidetu zuena, hots, 2022an lortutakoa baino zazpi hamarren gehiago. Jarduera ekonomikoa kontsumo pribatuaren sendotasunak babestu zuen, familien egoera ekonomikoa onari eta lan merkatuen eta etxebizitzaren sendotasunari esker, nahiz eta azken 40 urteetako moneta politikaren ziklo uzkurrenean murgilduta egon, iazko martxoa eta maiatza bitartean bankuen krisi gogorra jasan, eta zorraren mugaren inguruan lortutako akordioa gutxiagatik sinatu.

Eurogunean, BPGaren hazkundea nabarmen moteldu zen 2023an, 2022ko %3,4tik %0,4ra jaitsiz. Eremu horretan bizi zen ahultasunak herrialdeen arteko desberdintasun nabarmena ezkutatzen du, nahiz eta herrialde guztiek jasan zuten, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren industriaren narriadura handia. Alde batetik, Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeek, hala nola Austriak, Finlandiak eta Alemaniak, beren BPGan jaitsierak pairatu zituzten. Alemania, bereziki, alde batetik gasaren prezioak kaltetu zuen, Ukrainan gerra aurreko mailaren ia bikoitzean kotizatzen baitzuen oraindik. Eta beste alde batetik automobilgintzaren sektorearen ahuleziak kaltetu zuen. Duela gutxira arte hazkundearen zutabe nagusia izan da, eta orain Txinako fabrikazio autoen lehiari aurre egin behar izan dio, merkatuaren zati bat bereganatzen ari baitira, prezio baxuagoko politika oldarkorrari esker.

Bestalde, ekonomia handiagok ere, hala nola Frantziak eta Italiak, apaltzeko joera erakutsi zuten, %1,0tik beherako hazkunde tasekin. Bi kasuetan, kontsumo pribatuaren ahuleziak eta inbertsioaren dinamismo txikiagoak BPGaren hazkundea oztopatu zuten. Azkenik, Europako hegoaldeko herrialde batzuek, hala nola Espainiak, Greziak eta Portugalek, hazkunde erritmo biziagoak izan zituzten, %2,0 ingurukoak, baina aurreko urtean lortutako mailen azpitik. Analisia Espainian fokatuz gero, Errusiako gasarekiko mendekotasun txikiagoa, industria sektorearen pisu txikiagoa, eta zerbitzu sektorearen ibilbide ona (errekorrak hautsi zituen) direla eta, Espainiako ekonomiaren BPGak %2,5eko hazkundea eskuratu zuen, eta Europar Batasunaren buruan jarri zen.

Esanguratsua da Errusiak eta Ukrainak 2023an izan zuten bilakaera ekonomikoa aipatzea, bi herrialdeek berebiziko garrantzia izan baitzuten munduko egoeran. Errusiaren kasuan, bertako ekonomia %3,6 hazi zen, 2022an erregistratutako %1,2ko uzkurdura baino nabarmen gehiago. Hazkunde hori energiaren prezio altuei, kreditu baldintza malguei eta defentsa sektoreak sustatutako barne eskariari egotzen zaie. Itxura guztien arabera, hasierako zigorrak gorabehera, Moskuk bere ondorioak konpentsatzea lortu zuen. Bestalde, Ukrainak %5,6ko hazkundea sinatu zuen 2023an, baina agregatu ekonomikoei buruzko xehetasun zehatzik ez zen eman. Hazkunde tasa hori handia bada ere, txikia izaten jarraitzen du, 2022an izandako %30eko jaitsierarekin alderatuta.

Lehenago ere aipatu den bezala, ekonomien erresilientziaren zati bat, bereziki ekonomia aurreratuen kasuan, lan merkatuaren pultsu onaren ondorioa da, ekonomiak enplegua sortzen jarraitu baitu. Horrela, AEBetan langabezia tasa egonkor mantendu zen %3,6an, ziklo ekonomikoaren minimoetan, euroaren eremuan bezala, non langabezia tasa %6,5era jaitsi zen, aurrekaririk gabeko maila txikia baita.

**Ekonomiaren aldagai nagusiak**  
**6. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Mundua	3,5	3,0	8,7	6,9	--	--
Ekonomia garatuak	2,6	1,5	7,3	4,6	4,5	4,4
AEB	2,1	2,1	8,0	4,1	3,6	3,6
Japonia	1,0	2,0	2,5	3,2	2,6	2,5
Europar Batasuna	3,4	0,4	9,2	6,4	6,2	6,0
Alemania	1,8	-0,3	8,7	6,0	3,1	3,0
Frantzia	2,5	0,7	5,9	5,7	7,3	7,3
Erresuma Batua	4,1	0,5	9,1	7,7	3,7	4,2
Italia	4,0	0,9	8,7	5,9	8,1	7,7
Espainia	5,8	2,5	8,3	3,4	12,9	12,1
Garapen bidean daudenak	4,1	4,0	9,8	8,5	--	--
Asia	4,5	5,2	3,8	2,6	--	--
Amerika Latinoa	4,1	2,3	14,0	13,8	--	--
Ekialdeko Europa	0,8	2,4	27,9	18,9	--	--

Iturria: NDF eta Eurostat.

Jarduera ekonomikoak 2024an izan duen bilakaerari dagokionez, munduko ekonomia duela urtebete baino egoera hobean dago; izan ere, munduko atzeraldi baten arriskuak behera egin du, hein handi batean AEBetako ekonomiaren sendotasunaren ondorioz. Hala ere, arriskuek ez dute ahalbidetzen 2023an lortutakoa baino bilakaera hobea aurreikustea. Tentsio geopolitiko gero eta handiagoek arrisku berriak sor litzakete munduko ekonomiarentzat epe laburrean. Era berean, garapen bidean dauden ekonomia askoren epe ertainerako aurreikuspenak ilundu egin dira ekonomia garrantzitsuenen hazkundearen apaltzeak, munduko merkataritzaren geldotasunak eta

azken hamarkadetako finantza baldintza murriztailegoek eraginda. Hori dela eta, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, 2024rako espero den hazkundera 2023koaren antzekoa izango da, hau da, %3,2 ingurukoa.

Halaber, salgaien munduko merkataritzaren bolumena 2024an %2,6 eta 2025ean %3,3 haziko zela aurreikusten zen, 2023an izandako uzkurduraren ondoren salgaien eskaria berpiztuko zelako. Hala eta guztiz ere, 2023ko abenduaren erdialdetik, Gazako gerraren ondorioz Ekialde Hurbilean sortutako tentsioek beste disrupzio gertakari bat eragin dute Itsaso Gorriaren bidez eramaten den nazioarteko merkataritza fluxuan, eta horrek itsas garraioaren epeak eta kostuak handitzea eragin du. Orain arte, oztopo horiek eragin nahiko mugatua izan dute manufakturen hornidura kateetan. Txosten hau ixteko datan, Gazako gerrak bere horretan jarraitzen du, eta, beraz, zaila da kuantifikatzea gertakari horrek 2024an nazioarteko merkataritzaren bilakaeran izango duen eragina.

Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioak eremu geografiko guztietan moteltzeko bideari jarraitzea aurreikusten da, baina azken hiru hilekoetan lortu dena baino motelagoa izango litzateke. Nolanahi ere, bai euroaren eremuan, EBZren martxoko aurreikuspenekin bat etorritik, bai AEBetan, Erreserba Federalaren proiektzioen arabera, inflazio orokorra helburua den %2,0ko mailara 2025eko bigarren erdialdearen inguruan berriro jaiste eta 2026. urtean zifra horren inguruan jarraitzea aurreikusten da.

## 1.2 Euskadiren bilakaera ekonomikoa


2020ko per capita BPGa (BPGpc) nabarmen murriztu zen pandemiatik eratorritako murrizketen ondorioz. 2021ean eta 2022an, jarduera ekonomikoaren susperraldiak eta hedapen fiskaleko neurriek errebote handia eragin zuten, eta BPGpc %6,1era eta %5,6ra bultzatu zuten, hurrenez hurren. 2023an, goranzko joera hori sendotu egin zen, baina erritmo neurritsuagoan.

Hain zuzen ere, 2023an, susperraldi ekonomiko erlatiboa duela lau urtekoen antzeko hazkundera tasetan islatu zen (%1,3). Zifra horiek gehiago lerrokatzen dira pandemiaren aurreko balioekin (%1,9), eta hamarkadaren amaieratik hautematen zen beheranzko joerari jarraitzen diote.


Horrela, 2023an, hiru urteko parentesi nahasi bat itxi zen eta ziklo ekonomiko berri bat ireki zen, biztanleko BPGaren hazkunde oso baxuen ezaugarri komunarekin. Hala ere, EAeko biztanle bakoitzaren BPGaren 2023ko hazkunde hori oso nabarmena da, gainerako herrialdeekin eta eremu ekonomikoekin alderatuz gero, baita AEBek eskaintzen dutena (%0,8) baino handiagoa ere. Espainiak bakarrik gainditzen du (%1,7).

**BPG biztanleko. 2019-2023**  
**10. irudia**

Urte arteko aldakuntza tasak



Mila euro




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

Ildo horretan, azpimarratu behar da BPGpc adierazlearen hazkundeak nuluak direla Europar Batasuna 27an eta Europar Batasuna 15ean; eta negatiboak eremu aurreratuenetan, hala nola Alemanian, Austrian eta baita Txekiar Errepublikan ere (-%0,3). Horrek epe ertain eta luzera biztanleko BPGaren hazkunde tasaren jaisiera orokorraren joera azpimarratzen du.

2023an, BPGpc 32.130 eurora iritsi zen EAEn. Zifra hori aurreko urteetakoa baino zertxobait handiagoa da, eta EB-15eko (32.854 euro) eta EB-27ko (30.669 euro) zenbatekoen artean dago. Hala ere, ohikoa den bezala, Alemaniak (35.711 euro), Austriak (37.505 euro) eta, bereziki, AEBek (46.472 euro) zifrak nabarmen handiagoak dituzte. Espainiak (27.557 euro) eta Txekiak (27.433 euro), ordea, maila baxuagoekin itxi dute lagina.

2023ko datuen arabera, Euskadiko BPGpc, EB-15eko erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, EB-15ekoa baino %2,2 txikiagoa zen, eta EB-27koa baino %4,8 handiagoa. Horrek adierazten du aipatutako bi erreferenteetako lehenarekin bat egiteko prozesua bizkortu dela. Espainiako EAP bera erabiliz gero, maila are altuagoa izango litzateke, zehazki, eremu horretakoa baino %9,2 handiagoa.

**BPG biztanleko. EAP**  
**11. irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

Epe luzeko bilakaerari dagokionez, 1995az geroztik, EB-15ekin erabateko konbergentzia lortzeko hirugarren saiakera ikusten da. Lehenengoa, 2009ko data duena, Atzeraldi Handiak eten zuen, eta bigarrenak, 2020an, porrot egin zuen pandemiaren etorreraren ondorioz. Gaur egun, EAEko ekonomiak bi urte daramatza helburu horretara irimo hurbiltzen.

2023an, aurreko urteetan bezala, harrigarria da Alemaniako BPG per capitaren hazkundearen beherakada, Europar Batasuna 15ekin alderatuta. Joera horrekin bat egin dute Austriak eta Txekiak, ekonomia horiek ere Alemaniako ekonomiaren mende daudelako, neurri handi batean. Aurreko bi

urteetan ongizatearen beherakada erlatibo horren atzean dauden arrazoiak hauek dira: covid-19aren pandemiak eragindako murrizketen aplikazio zorrotzagoa, eskaintzaren eta eskariaren arteko ondorengo desoreka, gatazka belikoek eragindako tentsio energetikoak eta Alemaniarekiko mendekotasun handiagoa gas errusiarrarekiko. Orain, aurreko shock-etara egokitu ondoren, beste arrazoi batzuk sortu dira. Horien artean daude IRaren (Inflation Reduction Act) bidez AEBetan garatutako prozesu protekzionista, Txinaren igoera funtsezko industrietan lehiakide zuzen gisa, hala nola automobilgintzan, eta egiturazko faktore kritikoak Europan, hala nola zahartze demografikoa eta eskulan kualifikatuaren eskasia.

Gainerako herrialdeei dagokienez, AEBetako BPGpc etengabe hazten ari da, gainerako ekonomien bilakaeratik kanpo eta EB-15eko BPGpc baino %40 gorago dago kokatuta. Espainiak eta Txekiar Errepublikak, berriz, aurreko hamarkadaren amaieran lortutako aurrerapenen ondoren, atonia bat mantentzen dute, eta, horren ondorioz, EB-15arekiko diferentziala ia ez da aldatu.

#### *Biztanleko BPGaren hazkundearen banaketa EAPEan*

Adierazi den bezala, 2023an, EAeko BPGak %1,3ko hazkundea izan zuen biztanleko. Igoera hori hiru osagai nagusietatik bik bultzatu zuten. Lehenik eta behin, nabarmendu zuen langileek ekonomian duten partaidetza handitu egin dela (%0,9), 2021etik (%1,3) eta 2022tik (%2,4) sustatuta baitzegoen, lan merkatua suspertzearen ondorioz. 2023. urtea bereziki positiboa izan zen enpleguaren sorrerari, Gizarte Segurantzako afiliazioen hazkunderari eta langabeziaren murrizketari dagokienez.


Gainera, %1,3ko zifra hori lortzeko, esanguratsua izan zen lan egindako ordu bakoitzeko lan produktibitatearen ekarpena, aldi horretan nabarmen handitu baitzen (%0,6). Portzentaje hori txikia izan daitekeen arren erreferentziazko beste eskualde batzuetan erregistratutakoekin alderatuta, lorpen garrantzitsua da. Aipagarria da, halaber, 2022an orduko produktibitatearen datu nabarmena erregistratu zela (%3,2). Azkenik, langile bakoitzeko lanaldia pixka bat murriztu zen aldi horretan (%0,1).

Beraz, 2023an, Euskadiko biztanleko BPGaren hazkundea batez ere langileen parte hartzean oinarritu zen. Ez da harrizkoa, enpleguaren sorrerak emandako bultzada dela eta; izan ere, 988.299 enplegu lortu zituen urtearen amaieran, 2008ko bigarren hiruhilekoan izandako milioi bat baino gehiagoko errekorra hurbilduz.



**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I)**  
12. irudia


Euskadi




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II)**  
13. irudia

Espainia



Europar Batasuna 15



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

Espainiako BPG per capitaren hazkundera pixka bat handiagoa izan zen (%1,7). Horren arrazoia BPGaren igoera nabarmena izan zen (%2,37), biztanleriaren hazkundera konpentsatu zuena (%0,65). Lanaldiaren igoera (%1,4) izan zen biztanleko BPGaren hazkunderaren atzean faktore nagusia.


EB-15en, lan partaidetzaren hazkundera (%1,3) ia ez zen nahikoa izan lanaldiko murrizketei (-%0,5) eta produktibitateari (-%0,7) aurre egiteko. Ondorioz, biztanleko BPGaren hazkundera ia nulua izan zen. EB-27ak ere antzeko emaitzak izan zituen, eta biztanleko BPGak ez zuen aldaketarik izan.

Alemaniako ekonomiak, berriz, biztanleko BPGaren %1,1eko jaitsiera izan zuen. Emaitza hori laneko parte hartzean (-%0,3) eta produktibitatean (-%1,3) izandako beherakadek eragin zuten. Nabarmentzekoa da produktibitateak behera egin duen lehen urtea dela, eta horrek eragin negatiboa duela BPG per capitari egindako ekarpenean, 2020ko mailatik behera ere kokatuz. Emaitza hori 2021ean eta 2022an hauteman zen, hazkunderak ehuneko puntu erdi eskasekoak izan zirenean.

**BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (III)**  
14. irudia

Alemania

AEB



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

AEBek, aldiz, lider izaten jarraitu zuten beste ekonomia batzuekin alderatuta, eta biztanleko BPGaren %1,9ko hazkunde sendoa eskuratu zuen. Emaitza hori batez ere produktibitatearen igoeran oinarritu zen (%1,3), laneko parte hartzeak lagunduta (%0,5). 2022ko datua, %1,5eko hazkundearekin, salbuespena izan zen, urte horretan produktibitateak behera egin zuelako (%1,3). Orain, IRAK emandako bultzadarekin (2022ko udan onartu zen), hazkunde are handiagoa lortzea aurreikusten da.

Azkenik, Austriak eta Txekiar Errepublikak Alemaniakoen antzeko emaitzak izan zituzten, beren ekonomiari estuki lotuta baitaude. Herrialde horietan biztanleko BPGaren %0,9ko eta %0,7ko jaitsierek azpimarratzen dute Alemaniako ekonomiarekiko mendekotasun handia dutela.

EAEko ekonomiaren BPGa termino konstanteetan aztertuta, urteko kontabilitatea argitaratu ondoren, adierazten du pandemiaren aurreko jarduera maila 2022ko bigarren hiruhilekoan berreskuratu zuela, eta urtea 2019ko produkzioa baino %1,0 gorago amaitu zuela. 2022ko hazkunde tasa %5,4koa izan zen susperraldi testuinguru batean, baina Errusiak 2022ko martxoan Ukraina inbaditu zuenean, bizkortu egin zen energia prezioen garestitzea, eta susperraldi bat gelditu zen, pandemiaren aurreko jarduera lasaiago gáinditzeko joera zuena. Inflazio handiko testuinguru horretan, pandemiaren susperraldia bigarren maila batean geratu zen. 2023an, EAEko ekonomia %1,8 areagotu zen, eta, aldi berean, produkzioaren deflatoarea %4,0 handitu zen, tasa esanguratsua baita.

Lehen sektoreak, 2022an sektoreko deflatoarearen %46,3ko hazkundeak larriki eraginda, berriro ere balio erantsiaren hazkunde negatiboa jaso zuen bolumenean neurtuta, nahiz eta iaz prezioen igoera nabarmen apalagoa izan. Alde batetik, prezioen maila altuak, ia kasu guztietan, sektoreko ondasunen eskaria murriztea dakar, eta, beste aldetik, azpimarratzekoa da baldintza meteorologiko txarrek errendimendu handiagoa eragotzi zutela. Horiek horrela izanda, lehen sektorearen ekoizpena 2019koa baino %15,3 txikiagoa izan zen 2023an, eta EAEko ekonomia osoarekiko duen pisua %0,9ra baino ez zen iritsi termino nominaletan, manufakturen industrian duen eragina nabarmen handiagoa izan arren. Unean uneko prezioetan, 2023an deflatoareak izan zuen igoerari esker (%5,3), sektoreko balio erantsi nominalak pixka bat gora egin zuen (%2,0), baina ekonomia osoak lortu zuen %5,8tik urrun.

2022an eskariaren bultzada handiaren ondoren, zeina 2023ko lehen hiruhilekora arte hedatzea lortu baitzuen, EAEko industriak erakutsitako dinamismoa ahuldu egin zen 2023ko gainerako hiruhilekoetan, kanpo eskariaren beherakadak eraginda, ez hainbeste EAEko industriaren bat-

bateko lehiakortasun galera bategatik, baizik eta Europako ekonomia nagusiek dituzten zailtasunengatik.

**Lehen arloko adierazle nagusiak**  
**7. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
BEG bolumeneko indizea	1,7	5,9	-16,9	15,1	-8,7	-3,0
BEG uneko prezioak	-4,9	4,5	-18,3	14,1	34,0	2,0
Deflatorea	-6,5	-1,3	-1,8	-0,5	46,3	5,3
Enplegua	2,1	-2,8	-2,5	-1,6	-3,4	-1,5
Produktibitatea	-0,3	9,0	-14,7	16,8	-5,4	-1,5

Iturria: Eustat.

Urteko lehen hiruhileko horren ondoren, industria jarduerak %2,9ko uzkurdua metatu zuen ondorengo bi hiruhilekoetan, eta, beraz, industria sektoreak pandemiaren aurreko jarduera berreskuratu gabe jarraitzen du (oraindik %3 txikiagoa da), eta 2018ko mailaren azpitik ere badago. Manufaktura sektorearen kasuan, egoera industria osoarena baino apur bat positiboagoa da, 2021ean jarduerara lehenago itzuli zelako, nahiz eta 2023an ere ez duen berreskuratu 2019ko jarduera, 0,6 puntu falta direlako.

Industria produkzioaren indizeak (IPI) eskaintzen duen informazioari esker, gehiago sakontzen da sektorearen jarduera baxuaren arrazoietan. Manufaktura industriaren egoera honako azpisektore hauen uzkurdurak azaltzen du nagusiki: zura, papera eta arte grafikoak (-%8,0), koke lantegiak eta petrolio fintzea (-%4,7), industria kimikoa (-%3,3), kautxua eta plastikoak (-%2,8) eta, azkenik, metalurgia (-%2,1). Nota positiboa, berriz, produktu informatikoak eta elektronikoak (%21,9), farmazia produktuak (%15,8) eta, neurri txikiagoan, ekipo ondasunei dagozkienak, hau da, makineria eta ekipoa (%2,6) zein garraio materiala (%5,7). Manufakturak alde batera utzita, energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren ekoizpenak %11,5eko jaitsiera izan zuen, aurreko urtean %10,8ko igoera lortu ondoren, gas kontsumoaren osaeran izandako aldaketen ondorioz, Errusiako gasari ezarritako zigorren ondoren.

**EAEko industriaren BEGaren bilakaera**  
**8. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
BEG bolumeneko indizea	2,0	1,4	-12,2	5,3	4,7	0,3
BEG uneko prezioetan	3,9	2,4	-13,2	10,2	15,1	3,8
Deflatorea	1,8	0,9	-1,2	4,7	10,0	3,5
Enplegua	1,7	0,8	-8,4	3,0	1,8	1,0
Produktibitatea	0,3	0,6	-4,3	2,4	2,9	-0,7
Industria produkzioaren indizea	2,6	1,9	-13,0	10,0	5,6	-0,6
Industria jardueraren indizea	-6,9	-7,1	-19,5	-10,4	1,1	-14,9

Iturria: Eustat eta Industria eta Turismo Ministerioa.

Ekoizitako ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, industria jardueraren dezelerazioa ekipo ondasunen ekoizpenaren datuan egiaztatzen da, ehuneko sei puntu galdu zituelako, nahiz eta eremu positiboan mantentzen den eta kontsumo ondasunen, bitarteko ondasunen eta energiaren ekoizpenaren atzerakada konpentsatzen duen.


Jardueraren bilakaera oso ona ez izan arren, sektoreko enpleguak, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,0ko gehikuntza tasa izan zuen, 201.607 enplegura iritsi arte. Hala eta guztiz ere, bi magnitudeak testuinguruan jarrita, lanpostuen kopuruak 2019koa ez ezik 2017koa ere baino txikiagoa izaten jarraitzen du, eta, beraz, kontrastearen alderdi negatiboaz gain, sektoreak enplegua berreskuratzen du jarduerak berreskuratzen duena baino erritmo apalagoan, eta, beraz, ezin da baztertu pandemiak kalte iraunkorrak eragin izana. 2019an, industriaren enplegua enplegu guztiaren %21,3 zen, eta 2023an, berriz, %20,5.

Eraikuntzaren sektorea (%2,1) EAEko ekonomiaren batez bestekoaren gaineratik hazi zen 2023an, baina oraindik urrun dago 2019an lortu zuen produktiotik (5,8 puntu falta dira), eta gutxienez bi urte hartu beharko lituzke balio erantsiaren maila hori berreskuratzeko. Sektore horren ondasunek ekoizpen prozesu motela izaten dute eta amaitutako etxebizitzak adierazleak (-%25,1) eta etxebizitzak eraikitze baimenek (-%7,8) jasotzen dute, neurri batean, pandemiaren ondorioz 2020an hasitako etxebizitzaren kopuruaren jaitsiera nabarmena. Etxebizitzaren transakzioen kopuruak


ere beherakada handia izan zuen (-%15,1), Europako Banku Zentralak inflazioaren aurkako borrokan diru politikaren arloan hartutako erabakien ondorioz finantzaketa kostuak handitu zirelako. Horrek guztiak presio gehigarria ekarri zion etxebizitza eskaerari.

**EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**  
**15. irudia**

Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak




96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Kontsumoko ondasunak



Energia



96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren adarreko enpleguaren hazkundera %0,8ra apaldu zen, hau da, lanaldi osoko 400 lanpostu baliokide inguru bakarrik sortu ziren. Datu horretatik, bi irakurketa egin daitezke kontrako norabideetan: alde batetik, behar beste eskulanik ez izateko aukera, balio erantsiaren hazkundera estentsiboa mugatzen duena, sektoreak berak behin eta berriz eskatzen duen bezala, eta, bestetik, eskulan horren faltan, 2023an produktibitatea handitzea lortu zela.

**Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak**  
**9. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
BEG bolumeneko indizea	4,0	2,4	-14,4	1,0	6,7	2,1
BEG uneko prezioak	5,9	3,7	-13,7	1,3	10,3	7,7
Deflatorea	1,9	1,3	0,8	0,2	3,3	5,5
Enplegua	3,7	4,1	-8,7	1,6	2,1	0,8
Produktibitatea	0,2	-1,7	-6,3	-0,5	4,5	1,3
Higiezinaren transakzioak	7,7	6,2	-14,5	23,5	4,9	-15,1
Etxebizitzaren prezioen indizea	5,4	4,3	2,3	2,1	6,4	3,5
Hasitako etxebizitzak	58,1	-2,8	-29,4	-3,3	13,5	7,6
Amaitutako etxebizitzak	11,2	-4,3	-0,6	-1,4	6,6	-25,1
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	11,6	2,1	10,2	14,9	-0,8	-7,8
Eraikuntzaren koiuntura indizea	12,3	8,7	-8,1	7,8	8,3	6,2

Iturria: Eustat, INE eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioa.

EAEko ekonomian bezala, zerbitzuen sektorearen balio erantsiaren hazkundera moteldu egin zen, baina 2023an jardura gehien handitu zuen ekonomiaren sektorea izatea lortu zuen, %2,4, lan merkatuaren dinamismoak bultzatuta. Sektorearen hedapen azkarraren ondorioz, 2023an 2019ko jardura maila baino %6,5 handiagoa da, eta sektorea osatzen duten hiru azpisektoreetara ere zabal daiteke. Hala, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldeak %3,7 handitu zuen bere balio erantsia, eta 2019koa baino %9,4 handiagoa da jada; administrazio publikoen, hezkuntzako, osasun arloko eta gizarte zerbitzuen jarduerak %2,3 igo ziren, eta 2019ko datua %6,7 gainditu zuten. Azkenik, gainerako zerbitzuak biltzen dituen eta zerbitzu profesionalen

aniztasuna biltzen duen azpimultzoak %1,6 egin zuen gora, eta 2019ko erregistroa baino %4,5 gorago dago.

Horrela, argi geratzen da pandemiaren ondorioetako bat, ikuspegi sektorialetik, EAeko ekonomiaren tertziarizazio prozesua areagotzea izan dela. Urteko kontabilitatea oraindik argitaratu gabe dagoenez, behin-behineko datuak dituzten adierazle batzuek sektorearen bilakaera xehetasun handiagoz behatzeko aukera ematen dute. Merkataritzari dagokionez, merkataritza indizearen arabera, ibilgailuen salmentak eta konponketak %5,6 igo ziren prezio konstanteetan, baina 2019koetatik urrun samar, eta handizkako merkataritzaren salmentak, berriz, %4,2 murriztu ziren. Txikizkako merkataritzaren kasuan, igoera %0,6koa izan zen, azalera handietako eta elikadura kateetako merkataritza indizea %0,4 hazi baitzen.

**Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak**  
**10. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
BEG bolumenen indizea	3,1	2,5	-7,9	6,6	5,9	2,4
BEG uneko prezioak	4,2	3,7	-7,4	7,5	9,2	7,0
Deflatorea	1,0	1,2	0,5	0,8	3,1	4,5
Enplegua	2,3	1,6	-5,4	2,9	3,3	2,0
Produktibitatea	0,8	1,0	-2,7	3,7	2,5	0,4
Bidaiarien gualdiak	7,2	3,7	-61,5	73,4	54,2	12,0
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,97	1,97	1,95	1,92	1,93	1,96
Plazen betetze maila (ehunekoa)	56,8	57,4	32,8	41,1	53,9	57,8
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,0	1,1	-7,4	6,0	2,9	-1,5

Iturria: Eustat.

Merkatuko beste zerbitzu batzuetako salmenta indizearen arabera, ostalaritzaren jardueraren hazkundera termino konstanteetan %4,9 izan zen, turismoaren bultzadaren ondorioz. Ildo horretan, bidaiarien gualdiek erritmo altuan gora egiten jarraitzen dute, %12koa 2023an, eta, aldi berean, beste adierazle batzuek, hala nola hoteletako batez besteko egonaldiak eta plazakako okupazioak pandemia aurreko mailak berreskuratzen dituzte eta Euskadik helmuga turistiko gisa duen



garrantzia berresten dute. Bestalde, garraioaren eta biltegiatzearen esparruak hazkunde biziaren joerarekin jarraitu zuen, %12,4 igo baitzen, eta, beraz, %48ko hazkundera metatu du 2015etik.

Sektoreko gainerako jardueri dagokionez ere, merkatuko beste zerbitzu batzuetako salmenta indizearen arabera, informazio eta komunikazio jarduerak %4,8 gehitu ziren, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak %1,4 eta jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak soilik lau hamarren igo ziren.

Zerbitzuen sektorean enpleguaren sorrerak goranzko bide sendoari jarraitu zion, eta 2023an sortu ziren enplegu berri gehienak dira, lanaldi osoko ia 14.000 lanpostu baliokideren hazkunderari esker (%2,0). Horrela, zerbitzuetako enplegua EAEko ekonomiaren enplegu osoaren %72,4ra iritsi da. Merkataritza indizearen arabera, jarduera horretan enplegu sorrera ez zen sektore osoarena bezain handia izan. Izan ere, enplegu berriaren zifrak %1,5 dira ibilgailu motordunen salmentan eta konponketan, eta %1,3, berriz, handizkako merkataritzan zein txikizkako merkataritzan. Gainerako jarduera adarretako enpleguari dagokionez, zerbitzuen, informazioaren eta komunikazioen sektorean (%3,6) eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoaren sektorean (%2,5) enpleguaren hazkundera garrantzitsua izan zen. Ostalaritzan (%1,2) eta garraioan eta biltegiatzean (%0,8), berriz, hazkundera neurritsuagoa izan zen. Administrazio jardueretan eta zerbitzu osagarrietan (%2,6), aldiz, murrizketa gertatu zen, 2018an hasitako beheranzko joerari eutsiz.

**Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka**  
**11. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Zerbitzuak guztira</b>	<b>3,1</b>	<b>2,5</b>	<b>-7,9</b>	<b>6,6</b>	<b>5,9</b>	<b>2,4</b>
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,3	2,2	-20,4	15,6	14,6	3,7
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	1,8	3,2	1,1	2,3	0,9	2,3
Gainontzeko zerbitzuak	3,0	2,4	-4,3	4,1	3,2	1,6

Iturria: Eustat.


2023an, barne eskariaren hazkundera galgatu zen, 2022an izandako hazkunde handiaz geroztik (%6,7) %1,7ra iritsi arte. Aldi berean, aurreko urtean ez bezala, kanpo eskariaren ekarpenak

hamarren bat gehitzea lortu zuen EAEko ekonomiaren jarduerari, lehen hiruhilekoan esportazioak areagotu zirelako. Une horretan, 2022an Ukrainaren inbasioaren hasierak geldiarazitako eragiketen bolumen handia gauzatu zen.


Azken kontsumoko gastua %1,5 igo zen, kontsumoaren deflatorearen %3,5eko hazkundeak ahulduta, 2022an %4,1 handitu baitzen. Familien kontsumoa enpleguaren hazkundearen azpitik hazi zen (%1,5 eta %1,7, hurrenez hurren), batez besteko soldataren hazkundeak (%4,5) eraginda. Kontsumo pribatuaren deflatorearen hazkundea (%3,7) baino handiagoa bada ere, oraindik ez du berreskuratu 2022an galdutakoa. Urte horretan, batez besteko soldata %2,7 hazi zen, kontsumo pribatuaren deflatorearen %4,3ko igoerarekin edo KPIaren %8,0ko igoerarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, kontsumo pribatua maila agregatuan %1,6 igo da 2019ko datuarekin alderatuta, eta, aldi berean, per capita eta 2019ko prezioetan, kontsumoa ere handitu egin da 2019arekin alderatuta, 22.279 eurotik 22.608 eurora, %1,5 gehiago. Beraz, nahiz eta zifra historikoa txikia izan lau urteko metaturako, berretsi egiten dute pandemia eta shock inflazionarioa bezalako bi gertaera kaltegarrietatik suspertu dela kontsumoa.

**Barne eskariaren osagaien hazkundeak. Urte arteko aldakuntza tasak**  
16. irudia

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

96-05 06-15 16-23 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Iturria: Eustat.

Bestalde, kontsumo publikoa izan zen barne eskariaren osagai bakarra hobetu egin zuenak haren portaera 2022ko datuekin alderatuta, %1,8 igo baitzen. Horrek esan nahi du %4,7ko igoera izan zela termino nominaletan, 2022tik hona lortutako zerga bilketaren hazkunde handien, Next Generation EU programaren esparruan funtsak iritsi izanaren eta arau fiskalak eten izanaren ondorioz.

**Errenten adierazleen bilakaera**  
**12. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Soldatapekoen ordainketa	3,4	3,7	-4,5	5,4	6,5	-
Urtean adostutako soldata igoera	1,9	2,0	1,7	1,2	4,1	4,6
Enplegua	2,3	1,5	-6,2	2,7	2,8	1,7
Pentsioen kopurua (*)	1,4	1,3	0,4	0,8	0,5	0,8
Batez besteko pentsioa (*)	2,7	4,9	2,0	2,2	5,3	9,6
PFEZren diru bilketa	5,4	5,7	-1,1	8,2	6,3	9,0
Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**)	-0,2	-0,2	-0,3	-0,5	1,1	3,9
KPI (urte arteko batez bestera)	1,5	1,0	-0,1	3,0	8,0	3,9

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (\*\*) Hilabeteko batez bestekoekin osatutako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Inklusioa, Gizarte Segurantza eta Migrazioak Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

**Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera**  
**13. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	3,0	1,7	-12,1	5,8	7,7	1,5
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	1,2	3,1	2,9	3,2	0,7	1,8
IPI kontsumo ondasunak. EAE	5,4	3,1	-6,5	11,9	4,4	-0,6
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-0,1	1,5	-7,1	7,7	3,1	-2,0
Automobilen matrikulazioa	6,3	-6,1	-22,0	-19,7	-8,8	6,0
Txikizkako merkataritzaren indizea	1,3	1,4	-3,5	1,2	-1,4	1,2

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Eskariaren gainerako osagaiekin bezala, kapital eraketa gordinak moteltze handia izan zuen, 2022an %8,7 hazi baitzen, eta 2023an, berriz, %2,1, nahiz eta inbertsioaren deflatorea %7,1etik %3,5era jaitsi. Moderazio horrek, hala ere, inbertsioaren hazkundera EAEko ekonomiaren jardueraren batez besteko hazkunderaren gaineratik jarri du. Hala, maila agregatuan, EAEko ekonomian egindako inbertsioa 2019koa baino %3,2 handiagoa da, eta, era berean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruari dagokionez, urteko inbertsioaren fluxua, termino errealean eta langileko, pandemia hasi aurreko erreferentzia baino %2,5 handiagoa da, eta maximoetan dago 2008tik.

Hain zuzen ere, ekipo ondasunetan egindako inbertsioa %2,1 igo zen, eta 2022an erregistratutako %7,1 baino txikiagoa izan arren, 2019an lortutakoa baino %7,2 handiagoa da. Datu horiek beste adierazle batzuek iradokitako bilakaera positiboa berresten dute, hala nola garraio materialaren (%5,7) eta makineria eta ekipoaren (%2,6) industria produkzioaren, ekipo ondasunen inportazioaren (%9,8) eta zama ibilgailuen matrikulazioaren (%15) indizeetan izandako hazkunderak.

**Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera**  
**14. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kapital eraketa gordina (bol. ind.kateatua)	4,9	3,3	-12,1	5,9	8,7	2,1
- Ekipamendurako ondasunak	4,5	3,0	-11,8	11,1	7,1	2,1
- Gainontzeko inbertsioa	5,1	3,4	-12,3	2,8	9,6	2,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	4,9	2,3	-12,4	13,2	9,3	3,3
- IPI garraio materiala	4,7	1,0	-15,1	10,5	10,3	5,7
- IPI makineria eta ekipamendua	4,5	1,3	-7,0	14,7	11,0	2,6
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	4,1	5,3	-13,0	16,8	20,6	9,8
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	23,0	-17,3	-23,3	8,7	-13,5	15,0

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Prezioen eta konfiantzaren beherakadak eskualde arteko merkataritzaren nahiz eskualde barneko merkataritzaren bilakaera tasetan eragina izan zuten. Izan ere, 2022an izandako prezioen igoera ezohikoen ondoren nabarmen murriztu ziren hazkunderak. Horrela, C-Interreg datu basearen arabera, Euskadik gainerako autonomia erkidegoekin (erkidegoen arteko merkataritza) eta hiru euskal lurraldeen artean (erkidego barnekoa) dituen ondasunen (zerbitzurik gabe) merkataritza

fluxuak aztertzeko aukera ematen duena, EAeko esportazioak gainerako erkidegoetara %4,8 jaitsi ziren eta 18.800 milioi euro ingurukoak izan ziren. Uzkurdua horren garrantzia gorabehera, 2007tik salmentek hirugarren emaitzarik onena izan zuten. Urte horretan, erkidegoen arteko merkataritza 26.000 milioi eurotik gorakoa izan zen, inoizko handiena.

**Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn**  
**15. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2018	2019	2020	2021	2022(*)	2023(*)	Milioi € 2023 (*)
<b>Erkidegoen arteko merkataritza</b>							
Esportazioak	4,2	1,1	-12,4	8,9	38,5	-4,8	18.727
Inportazioak	6,4	7,1	-16,3	30,1	15,1	-5,0	20.523
Saldoa guztira (milioi €)	-1.363	-2.338	-1.378	-4.561	-1.930	-1.760	-1.760
<b>Erkidegoen barneko merkataritza</b>							
Totala	8,3	-0,3	-12,7	14,7	32,1	-5,3	14.770

(\*) Aurreikuspena.


Iturria: C-interreg proiektua.

Beste erkidegoetatik ekarritako inportazioek ez zuten bilakaera hoberik izan eta %5,0 murriztu ziren. Halere, 20.500 milioi eurotik gorakoak izan ziren, serie historiko osoko bigarren erregistrorik onena baita. Horren guztiaren ondorioz, saldoa defizitarioa izan zen bederatzigarren urtez jarraian, baina 2022an erregistratutakoa baino 133,6 milioi euro txikiagoa izan zen. Erkidegoaren barruko merkataritzari dagokionez, guztira 14.770 milioi euroko merkataritza trukeak egin ziren, eta 2022an erregistratutako maximoaren atzetik baino ez zen geratu.

Munduko gainerako herrialdeetara bidalitako ondasunen esportazioei dagokienez, ekonomia jarduerarekin zerikusirik ez duten gai geopolitikoek markatutako testuinguru konplexu batean, inflazioaren itzalpean eta euro eremua atzeralditik gertu zegoela, Euskadik hirugarren errekorra lortu zuen jarraian 2023an. Zehazki, salmentak ia 32.645 milioi eurokoak izan ziren, 2022ko erregistroa baino %0,3 handiagoak. Hazkunde txiki hori esanguratsua izan zen mundu mailako esportazioek izandako %5,0ko beherakada kontuan hartuta. Baita Erresuma Batuko (-%3,5), euroaren eremuko (-%3,3), Europar Batasuneko (-%2,5) eta Alemaniako (-%2,5) esportazioek jasandako uzkurduaren aurrean ere nabarmendu zen.

Beste behin ere, EAEko enpresen nazioartekotze maila handiak eta haien ekonomiaren irekiera maila handiak (142,3) une bakoitzeko zailtasunetara egokitzeko eta esportazioak bultzatzeko aukera eman zuten, eta esportazio horiek ia zortzi hamarrenekin lagundu zioten EAEko jarduera ekonomikoari. Era berean, igoera txiki horri esker (%0,3), Euskadik esportazio kuota handitu zuen maila globalean, hirugarren urtez jarraian, eta pandemiaren aurreko mailetara hurbildu zen. Hala ere, hobekuntza hori ez zen islatu inportazioen merkatu kuotan, horien balioa 2022an erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa izan baitzen. Nolanahi ere, termino errealetan aldakuntzak oso txikiak dira oraindik, eta 2008an lortutako maximoetatik urrun daude.

**EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko**  
**17. irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) eta Eustaten datuetan oinarrituta.

Nahiz eta Euskadi izan atzerrira egindako esportazioen urte arteko hazkundea eurotan lortu zuen herrialde bakanetakoa, 2023an EAEko salmentak ere kaltetuak atera ziren nazioarteko eskariaren ahuleziagatik. Ahulezia hau areagotu egin zen ekonomia batzuk gelditu ahala edo atzeraldian sartu ahala. Izan ere, esportazioek, tonatan neurtuta, %11,8ko murrizketa izan zuten.

Hala ere, esportazioen prezioen igoerari esker 2022an baino %0,3 gehiago fakturatzea lortu zen. Izan ere, kopuru txikiagoa saldu zen arren, prezioa batez beste %8,7 altuagoa izan zen, eta horrek esan nahi du inflazioak gutxiagatik salbatu zituela Euskadiren diru sarrerak, kanpora egindako esportazioengatik. Eurotan neurtutako esportazioen jaitziera hori energia sektorean soilik kontzentratu zen (-%31,2), esportazio ez-energetikoen balioa eurotan %3,4 handitu baitzen. Petronorren jarduera txikiagoak eta petrolioaren nazioarteko prezioaren jaitzierak azaltzen dute esportazio energetikoen murrizketa handi hau. Hala eta guztiz ere, nekazaritzako eta garraiorako materialen adarretan izan ezik, 2023an saldutako tonak 2022koak baino txikiagoak izan ziren.


**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I)  
18. irudia**



Iturria: Eustat. 2023ko datuak behin-behinekoak dira.

Aldi berean, atzerritik EAera ekarritako inportazioen balioa 26.796 milioi eurora iritsi zen, eta diru kopuru horrek %8,9ko jaitsiera ekarri zuen 2022ko zenbatekoarekin alderatuta (29.411 milioi), bereziki inportazio energetikoak txikiagoak izan zirelako (-%20,5). Orobat, energiaz bestelako inportazioek ez zuten joera askoz hobea erakutsi (-%4,1). Aldiz, erosketak tonatan neurtuta, atal guztietan igoyerak jaso ziren.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)**  
**19. irudia**



Iturria: Eustat. 2023ko datuak behin-behinekoak dira.

Sektore nagusien bilakaerari dagokionez, nekazaritzako produktuen, garraio materialen, makinaren eta aparatuen, eta kautxuaren eta horien manufakturen esportazioan maximo historikoak lortu ziren. Horien artean, automobilaren sektorea izan zen garrantzitsuena, esportazio guztien %25,3 bereganatu baitzuen. Ibilgailuen atzerrirako salmentak %16,9 egin zuen gora urte batetik bestera, eta kautxuaren sektorearenak, automobilgintzari oso lotuta baitago sektore hau, %13,3.

Bigarren sektore esportatzaile nagusia makina eta aparatu elektriko zein mekanikoena izan zen, guztizkoaren %18,6 eta %8,7ko hazkundera izan baitzuten. Azkenik, elikagaiak, edariak eta tabakoa izan ziren esportazioetan aurrera egin zuen azken sektorea, urte arteko salmenten %2,9ko hazkunderarekin, baina nahiko heterogeneotasunarekin produktu motaren arabera. Izan ere,



esportazio tasak malgutasun handia izan zuten: kakao salmenta eta haren deribazioak %26,1 hazi ziren bitartean, fruta salmenta %40,2 murriztu zen. Portaera on horri aurre egin zioten metal arrunten eta beren manufakturen salmentak (-%12,7), produktu energetikoak (-%31,2), produktu kimikoak (-%11,6) eta papera (-%17,3).

**EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga**  
**16. taula**

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2018	2019	2020	2021	2022	2023 (*)	2023 (*)
<b>Esportazioak</b>	<b>7,0</b>	<b>-1,2</b>	<b>-17,1</b>	<b>23,2</b>	<b>25,7</b>	<b>0,3</b>	<b>32.644,9</b>
ELGE	8,0	-1,2	-15,3	23,9	25,5	1,4	27.910,3
Europar Batasuna 27	7,2	-1,2	-20,4	38,8	26,2	-2,4	20.321,9
Alemania	1,2	0,9	-5,5	12,9	21,6	2,9	5.143,2
Frantzia	5,0	0,3	-15,1	24,0	20,3	-1,7	4.876,0
Erresuma Batua	14,5	35,9	-42,6	25,5	16,3	3,0	2.042,1
Italia	12,8	-5,9	-6,6	24,7	27,6	4,4	1.830,5
AEB	16,5	-15,5	-23,6	18,2	42,3	21,2	2.737,9
Japonian	-13,0	11,9	5,0	19,5	0,2	26,3	198,3
Errusia	6,4	14,9	-0,3	-12,7	-52,4	-45,0	67,1
Txina	-12,7	5,6	-11,8	52,7	6,6	-0,7	706,9

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

Eremu geografikoen arabera, EAEko esportazio gehienak herrialde garatuetara bideratu ziren, eta herrialde horiek guztizkoaren %85,8 bildu zuten. Portzentaje hori orain arteko altuena da, eta EAEko produktuek merkatu horietan duten finkapena islatzen du. Herrialde talde horretara bidalitako salmentak %1,4 gehitu ziren, eta garapen bidean dauden merkatuetara bideratutakoak, berriz, %5,3 murriztu ziren.

Herrialde garatuetara egindako salmentek hobera egin bazuten ere, Europar Batasunaren barruan egindakoak %2,4 jaitsi ziren. Uzkurdura hori gertatu zen, batez ere, konparazioa 2022ko datuekiko egiten delako, urte horretan eremurako esportazioak maximora iritsi baitziren, nahiz eta eremu

ekonomikoak bizi izan zuen ahultasuna ere beherantz baldintzatu zuen. Hala ere, esportazioak 2022an erregistratutakoak baino 646 milioi txikiagoak baino ez ziren izan, eta, edonola ere, pandemia aurretik saldutako 15.000 milioiak baino askoz handiagoak izan ziren.

Esportatutako produktuei dagokienez, garraio materiala izan zen talderik nabarmenena, bereziki ibilgailu automobilak (ekoitzitako %70 baino gehiago Europar Batasunera saldu zen), salmentak %16,0 hazi baitziren 2023ko balantzean. Izan ere, ibilgailu automobilak kontinente zaharrera esportatu ziren, ia 5.800 milioi euroko balioarekin, aurrekaririk gabeko maila. Epigrafe horrekin oso lotuta, plastikoaren eta kautxuaren eta makina eta tresna elektrikoek salmentak ere bilakaera positiboa erakutsi zuten. Gainerako epigrafeek jaitsiera handiak izan zituzten, eta aurrez aipatutako igoerei aurre egin zitzaizkien.


Egitura hori, funtsean, Europako bazkide nagusien artean errepikatu zen. Alemaniako merkatuan, esportatutako produktu nagusia garraio materiala izan zen, zehazki, automobilen salmenta, 2023an 2.700 milioi eurora hurbildu zena, aurrekaririk gabeko zifra bat. Automobilak Alemaniara esportatutako euskal produktu guztien erdia baino gehiago izan ziren (%52,3). Izan ere, Alemaniako merkatua da munduko helmuga nagusia EAEko automobilentzat, eta Euskadik esportatzen dituen ibilgailu guztien ia %33 hartzen ditu. Horren guztiaren ondorioz, Alemaniara egindako esportazioak %2,9 hazi ziren, nahiz eta Alemaniako ekonomiak ahulezia pairatu, ez baitzuen urtea positiboan ixtea lortu. Frantziako merkatuan ere, autoen salmentak hazkunde esanguratsua izan zuen, baina ez zen nahikoa izan gainerako epigrafeetako jaitsiera konpentsatzeko; beraz, Frantziako herrialdera egindako esportazioak %1,7 murriztu ziren.

Estatubatuar ekonomiaren sendotasunari esker, AEBetako merkatuak EAEko salmenten hirugarren helmuga gisa zuen posizioa finkatu zuen. Kasu horretan, negozio adar nagusia makinak eta aparatuek eta metal arruntak eta horien manufakturak izan ziren, nahiz eta horietako bakoitzak kontrako bilakaera izan zuen. Lehenengoek %26,4ko gorakada izan zuten, baina bigarrenek %13,9 egin zuten behera. Zorionez, AEBetako merkatuak dibertsifikazio handia eskaintzen du EAEko enpresentzat. Ibilgailu automobilen esportazioek salmentak bikoiztu baino gehiago egin zituzten urte bakar batean, eta merkatu horretan %141,4ko hazkundera lortu zuten. Halaber, erregai mineralen salmenta saldutakoaren %25 izan zen. Ondorioz, AEBetarako EAEko esportazioak %21,2 hazi ziren. Esportazio horiek Euskadik atzerrian saldutako guztizkoaren %8,4 biltzen dute orain.

EAEko esportazioek ere hobera egin zuten merkatu britainiarrean, helmugan rankingean laugarren postua berreskuratu baitzuen. Zehazki, Erresuma Baturako espedizioak %3,0 hazi ziren eta 2.000

milioi eurotik gorakoak izan ziren. Kasu horretan, epigrafe nagusi guztiek, produktu mineralek eta kimikoek izan ezik (bien artean ez dira saldutako guztiaren %4 ere), emaitzak hobetzea lortu zuten 2022an saldutako mailekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, oraindik ez da pandemiaren aurretik erregistratutako maila berreskuratzea lortu, merkatu britainiarerako salmentak 2.400 milioi euro ingurukoak baitziren orduan.

**Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena**  
**17. taula**



Iturria: Eustat. 2023ko datuak behin-behinekoak dira.

Merkatu tradizionaletan eginiko salmentak alde batera utzita, EAEko eragileek zailtasunak izan zituzten Txinako merkaturan, non esportazioak %0,7 murriztu baitziren, eskariaren ahuleziaren eta bertako ekonomiaren hoztearen ondorioz. Orobat, Brasilgo merkaturan, ekipo ondasunen salmentaren jaitsierak eragin negatiboa izan zuen esportazioetan, %18,7 murriztu baitziren. Bestalde, Errusiarako esportazioek, Ukrainaren inbasioagatik Europatik ezarritako zigorrak baldintzatuta, ahulezia erakutsi zuten atal nagusi guztietan, produktu energetikoetan izan ezik, %20,8ko hazkundera izan baitzuten, nahiz eta guztizko ekarpena oso txikia izan (saldutako guztizkoaren %0,8 baino ez).

Azaldu den bezala, 2023an inportatutako produktuen balioa 2022koa baino %8,9 txikiagoa izan zen, nahiz eta ia 26.800 milioi eurokoa izan, orain arteko bigarren zifrarik handiena. Epigrafe handi

guztiek, ekipamendurako ondasunek izan ezik, jaitsierak izan zituzten urte arteko tasetan. Hain zuzen ere, erositako erregai mineralen balioa %20,5 gutxitu zen, hein handi batean prezioak behera egin zuelako. Gainera, metal arruntek eta beren manufakturek %12,1eko beherakada izan zuten, produktu kimikoen eta plastikoaren eta kautxuaren erosketen antzeko maila. Garraio materiala eta makinak eta aparatuak erosteak bakarrik lortu zuen aldakuntza tasa positiboa, baina, nolahi ere, ez zen nahikoa izan gainerako adarren uzkurdua konpentsatzeko.

**EA Eren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria**  
**18. taula**

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2018	2019	2020	2021	2022	2023 (*)	2023(*)
<b>Inportazioak</b>	<b>9,5</b>	<b>-1,6</b>	<b>-21,3</b>	<b>34,1</b>	<b>39,4</b>	<b>-8,9</b>	<b>26.796,5</b>
ELGE	5,3	1,1	-17,5	26,7	32,8	-2,1	18.443,9
Europar Batasuna 27	6,3	0,7	-13,4	-13,4	23,2	0,8	13.537,9
Alemania	5,1	3,4	-12,2	17,3	20,4	5,3	3.970,8
Frantzia	5,2	-7,9	-10,0	28,4	27,2	-13,1	2.143,0
Erresuma Batua	-42,1	-17,8	-18,7	32,5	44,8	-39,8	581,1
Italia	7,7	-3,8	-11,5	33,7	17,5	0,1	1.326,5
AEB	14,0	85,6	-39,6	20,2	210,0	-13,8	1.804,7
Japonian	-8,9	-0,6	-31,4	37,4	37,9	4,1	272,8
Errusia	-38,5	192,1	-50,1	144,7	-39,4	-63,3	298,5
Txina	9,9	16,1	-6,7	33,4	30,8	-2,9	2.104,2
Brasil	126,1	-69,6	28,1	83,8	274,1	-17,0	1.326,1


(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

Inportazioen jatorriari dagokionez, beherakadak herrialde garatuetan (-%2,1) eta garatu gabekoetan (-%21,0) izan zuten eragina. Hala ere, uzkurdua nabarmenagoa izan zen azken horietan, eremu horretatik erregai mineralak inportatzen baitira nagusiki, eta horien prezioak jaitsi egin ziren. Nabarmenezkoa da Brasilek, Mexikok, Kazakhstanek, Irakek eta Libiak Euskadik erositako energiaren %50 baino gehiago hornitu zutela. Beraz, ulergarria da gorabidean dagoen eremutik datozen inportazioen balioaren uzkurdua nabarmenagoa izatea.

Esportazioetan ez bezala, ELGAko herrialdeetan eginiko salmentek behera egin zuten, baina euroaren eremuko inportazioek maila positiboan jarraitu zuten. Bereziki, ekipo ondasunen jarduera sendoari esker, bai makineria, bai garraio materiala, eremuak 12.000 milioi euro inguruko produktuak saldu zizkien EAEko agenteei, eta maximo berri bat lortu zuen. Alemaniatik (EAEko hornitzaile nagusia) eta Italiatik egindako inportazioek azaltzen dute aparteko emaitza hori. Europar Batasunetik kanpo, bilakaera ez zen hain positiboa izan. AEBetatik energia inportatzen da nagusiki, eta horien erosketak %27,8 egin zuen behera, balantze osoa hondoratuz. Brasilen (-%17,0) eta Errusian (-%63) ere berdin gertatu zen.

**EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak**  
**20. irudia**



Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2023ko datuak behin-behinekoak dira.

Laburbilduz, esportazioen eta inportazioen aldakuntza tasak negatiboak izan ziren arren, eurotan lortutako balioak maximo historikoetatik oso gertu mantendu ziren. Esportazioen kasuan, salmenta guztizkoak zein energiaz bestelako salmentak hirugarren urtez jarraian lortu zituzten inoizko baliorik gorenak. Halaber, Euskadiko esportazioek ezarri duten errekor historiko berria EAEko ekonomiaren sendotasunarekin lerrotatuago dago; izan ere, 2023. urtean ez zuen petrolioaren salmentak ekarritako bultzada gehigarrik izan, duela bi urte kotizazioan goia jo baitzuen. Automobilgintzaren sektorea, Gasteizko Mercedes-Benz enpresaren furgoneten salmenta buru dela, EAEko kanpo merkataritzan duen lidergoa indartu zuen. Siderurgiak ere, hodian sektorea suspertu ondoren, bere posizioa indartu zuen, eta guztizko saldoak 5.848 milioi euroko superabita izateko bidean lagundu zuen.

Aitzitik, energiaren inportazioak %20,5 murriztu ziren, eta horrek 1.400 milioi euro baino gehiagoko murrizketa ekarri zuen, 2022an inportatutako zenbatekoarekin alderatuta. Uzkurdua hori energiaren esportazioetan erregistratutakoa (-%31,2) baino txikiagoa izan zen arren, energiaren saldoak defizit argia erakutsi zuen oraindik, 5.000 milioi eurora hurbilduz. Izan ere, energiaren sektorea Euskadiko inportazio guztien %25,5 da, baina %6,0 baino ez da esportazioen atalean. Mendekotasun energetiko esanguratsua erronka bat da Euskadirentzat oraindik ere.

2024ra begira, hazkunde tasa positiboan mantentzea da erronka, balioak 2023an erregistratutakoak bezain txikiak badira ere. Izan ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako merkataritza bazkide nagusien ahulezia nabariagoa izaten hasi da aurtengo lehen hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, esportazioak ia %16,0 beheratu ziren hiru hilabeteetan, eta martxoan %23,0 baino gehiago jaitsi ziren. Gasteizko Mercedes Benz lantegiaren produkzio geldialdiak, enpresa horrek Euskadiko esportazio guztien %15,0 inguru sortzen baititu, Europako ibilgailu berrien eskariaren atzerakada handiaren ondorio dira, orain arte ondo eusten ari zen osagaien segmenturaino hedatu baita. Gainera, Alemaniako merkatuaren jardun eskasak, EAEko ekonomiaren transakzio komertzialetarako funtsezko helmuga baita, atzerrirako salmenten beherakada ere eragin zuen. Aitzitik, Petronorren erregai salmenten susperraldiari esker, energia-sektorea %0,3 hazi zen, eta positiboan mantendu zen sektore bakarra izan zen, nahiz eta bere hazkundera ez zen nahikoa izan beste arantzel eremu batzuetako jaitsierak konpentsatzeko.


Azpimarratzekoa da martxoko urte arteko balantzerako abiapuntua hilabete horretako esportazioen zifra dela 2023an, 3.312 milioi euroko errekor historikoa lortu baitzuen, hamabi hilabete lehenago baino %26,5 gehiago. 2023ko azaroan bakarrik gainditu zituen 3.000 milioi euroko langa (3.151,8 milioi), eta abuztuan, ordea, 1.916,3 milioira jaitsi zen. Uzkurdurak inportazioei ere eragiten die, non martxoko 2.130,5 milioiek urte arteko %17,1eko murrizketa adierazten duten. Datozen

hilabeteetako bilakaerari itxaron beharko zaio jakiteko EAEko kanpo sektoreak beherakada horiek egonkortzea lortuko duen eta tasa positiboak berreskuratuko dituen, edo kontrakzioek bere horretan jarraituko duten.


Lan merkatuari dagokionez, EAEko ekonomiak enplegua sortzen jarraitu zuen, eta 2008. urtetik hona inoiz jaso den landunen kopuru handiena erregistratu zuen. Hain zuzen ere, aldakuntza tasak azelerazio erritmoa moteldu zuen arren, ia 975.000 landun zeuden. Enpleguaren susperraldi horren ondorioz, langabeziak nabarmen egin zuen behera, eta, horrekin batera, partaidetzak gora egin zuen, lagun askok lan merkatuan sartu nahi zuelako.

**Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**21. irudia**

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

Horiek horrela izanda, biztanleria aktiboak azken bi urteetan erakutsitako goranzko bilakaerarekin jarraitu zuen, eta %0,1 hazi zen 2022ko datuekin alderatuta. Zehatz-mehatz azalduta, 1.056.000 pertsona aktibo zeuden, 2015etik izan den erregistrorik gorena. Aurreko aldietan ez bezala, igoera horretan emakumeak bakarrik izan ziren partaide (%0,4), eta gizonezkoen biztanleria aktiboa, berriz, %0,1 jaitsi zen. Era berean, bilakaera desberdina izan zen adin tarteen arabera, gazteenen artean

(%2,8) eta zaharrenen artean (%1,9) hazkundeak izan baitziren, tarteko tartearen jaitsierak konpentsatuz (-%2,4).

Hala eta guztiz ere, biztanleria aktiboak gora egin bazuen ere, partaidetza tasak zertxobait egin zuen behera bi sexuetan, lan egiteko adinean zegoen biztanlerian izandako gorakadak eraginda. Aitzitik, biztanleriaren zahartzearen ondorioz, lan bizitza asko luzatzen ari da, eta, ondorioz, erretirotik gertu dauden langileen partaidetza tasak aldakuntza tasa positiboak izan zituen, gainerako adin taldeetan ez bezala.

Okupazioaren bilakaerari dagokionez, lan merkatua aztertzen duten estatistika guztiek lehen aipatutako enpleguaren bizitasuna islatu zuten. Igoera horiek BJAk aurkeztutako %1,0 eta INEK argitaratzen duen BAI inkestak zenbatetsitako %2,9aren artean kokatu ziren. Bi mutur horien artean kokatu ziren Eustatek zenbatetsitako kontu ekonomikoen erregistroa (%1,7) eta Gizarte Segurantzako afiliazioa (%1,6). Bilakaera horrek azelerazio txiki bat ere erakutsi zuen 2023ko bigarren erdian, eta, horri esker, aurreko urteetako susperraldia sendotu egin zen, eta 1.000.000 landun izateko gutxi falta da.

Lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtutako enpleguaren gorakada BPGaren hazkunde erritmoen oso antzeko mailetan kokatu zen. Beraz, lanaren itxurazko produktibitateak %0,1 baino ez zuen egin gora. Aurreko ekitaldietan bezala, zerbitzuen sektorea dinamikoena izan zen berriro, %2,0ko aldakuntza tasarekin, turismoari lotutako adarren gehikuntza erritmo altuen ondorioz. Era berean, industriaren sektoreak (%1,0) eta eraikuntzaren sektoreak (%0,8) hazkunde tasa positiboak jaso zituzten, nahiz eta bi sektoreek ahulezia zantzuak erakutsi zituzten, azken urteetako tertziarizatze joera handiagorantz luzatuz.


Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak izandako bilakaera positiboa azpimarratu behar da, 998.000 kotizatzaile baino gehiago izan baitzituen, serie historiko osoan lortutako baliorik handiena. Hazkunde horiek apalagoak izan ziren 2023an aurreko urtean baino (%1,6 eta %2,1, hurrenez hurren), eta bai gizonezkoek (%1,4) bai emakumezkoek (%1,9) parte hartu zuten.

Soldatapekoen erregimen orokorreko afiliazioaren banaketa jarduera atalen arabera aztertuz, 2023an, berriro ere informazio eta komunikazioaren adarrak, telelanaren behin betiko sendotzeari esker, eta ostalaritzak, turismoaren gorakadaren ondorioz, hazkunde nabarmenak izan zituzten. Era berean, sektore publikoaren presentzia handia izan zuten hiru sekzioek, hau da, hezkuntzak,



administrazio publikoak, defentsak eta Gizarte Segurantzak, osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuek, hazkunde tasa handiak lortu zituzten.

**Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak**  
**22. irudia**



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Azterketa BJAk zehaztutako okupazio mailan zentratuz, enpleguak hirugarren urtez jarraian egin du gora, nahiz eta gorakadaren erritmoan moteltzeko joera gertatu den. Enpleguaren hazkundearen

erritmo motelago hori jardura ekonomikoan erregistratu zen moderazioaren ondorio izan zen, gertaera geopolitiko kaltegarrien eta inflazioaren etengabeko presioen ondorioz. Okupazioaren gorakada handiagoa izan zen emakumeen artean (%1,6) gizonen artean baino (%0,4), eta horri esker enplegu tasan bien artean dagoen aldea murrizten jarraitu ahal izan zen, hamar puntuko aldera ez baita iristen orain.

**Enplegua sektoreka**  
**19. taula**


Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Enplegua guztira</b>	<b>2,3</b>	<b>1,5</b>	<b>-6,2</b>	<b>2,7</b>	<b>2,8</b>	<b>1,7</b>
- Enplegua lehen arloan	2,1	-2,8	-2,5	-1,6	-3,4	-1,5
- Enplegua industrian	1,7	0,8	-8,4	3,0	1,8	1,0
- Enplegua eraikuntzan	3,7	4,1	-8,7	1,6	2,1	0,8
- Enplegua zerbitzuetan	2,3	1,6	-5,4	2,9	3,3	2,0


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin Eustateko datuetan oinarrituta.

**Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**23. irudia**

Gizonak



Emakumeak




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat.

Adinari dagokionez, enplegu tasak izan zuen gorakada txikia (2022an %51,7 izan zen eta 2023an, berriz, %51,8), batez ere, zaharrenen okupazio tasak izan zuen bilakaerak eragin zuen, ia puntu bat igo baitzen, %44,6ko tasara iritsi arte. Era berean, gazteen enpleguaren susperraldia nabarmendu behar da (16 eta 24 urte bitarteko biztanleak), horien enplegu tasa %25,4koa izan baitzen, hau da, adin horretako pertsonen laurdena lanean ari da, gehienak prestakuntza jasotzen duten bitartean, eta hogeit hamar pertsonatik bat baino ez dago langabezia. Horrela, gazteen enpleguaren goranzko joera sendotu da, 2023an erregistrorik altuena lortu baitu 2008tik.

Beste aldetik, ABEEei dagokienez, nahiz eta egia den enpresek tresna hori asko erabili egin zutela pandemia hasi zenean, berau erabiltzeko orduan eskaini zen malgutasunaren ondorioz, hurrengo hilabeteetan nabarmen jaitsi zen haien erabilera. Horrela, zifra ia bostenera jaitsi zen, 2022ko hasieran aldi baterako lan erregulazioak eragindako 5.000 pertsonatik 1.000 pertsonatik beherako erregistroetara igaro baitzen 2023ko erdialdetik aurrera, 600 pertsona baino zertxobait gehiago abenduko datuekin. Kopuruak gora egin du pixka bat 2024ko lehen erdian, baina ez du mila pertsonengan eraginik izan, eta, beraz, lan merkatuan duen eragina oso txikia da gaur egun.

**ABEEE egoeran dauden pertsonen bilakaera**  
**24. irudia**



Iturria: Gizarte Segurantza.

Era berean, 2023an zehar, enplegua arautzeko espedienteek pandemia hasi zenetik jaso den baliorik txikiena jaso zuten. Hain zuzen ere, 276 enplegu erregulazio espediente aurkeztu ziren Euskadin, 7.404 langileri eragin zietenak, hau da, aurreko urteko datuekin alderatuta %51,2 espediente gutxiago eta %62,6 pertsona gutxiago jaso ziren. Beste behin ere, gehienei (%88,8) aldi baterako lan erregulazioko espedienteek eragin zieten, eta %11,2ri soilik kontratua amaitzeko espedienteek.

**Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak**  
**20. taula**

Kopurua

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Espediente kopurua</b>	<b>187</b>	<b>173</b>	<b>30.690</b>	<b>1.858</b>	<b>565</b>	<b>276</b>
Eragindako langileak	3.187	2.449	210.019	32.723	19.772	7.404
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	355	219	26.243	3.332	1.265	525
- Behin-behineko etetea	2.299	1.933	182.463	28.477	18.070	6.051
- Kontratua amaitzekoa	533	297	1.313	914	437	828

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila


Produktibitatearen eta enpleguaren faktore erabakigarrietako bati dagokionez, hala nola biztanleriaren hezkuntza mailari dagokionez, horrek erregistro oso nabarmenak ezarri zituen berriro. Zehazki, hirugarren mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoari dagokionez (%64,8), nabarmen gainditu zituen Espainiako (%50,6) eta Europar Batasuneko (%43,9) erregistroak. Azpimarratzekoa da emakumeen goi mailako prestakuntzaren bilakaera positiboa (%66,1 izan zen 2022an eta %69,4, berriz, 2023an). Halaber, ikasketak behar baino lehen uztearen tasak oso balio txikiak izaten jarraitu zuen, %5,6tik %6,4ra pixka bat igo zen arren, baina Espainiako erregistroetatik (%13,7) eta Europar Batasuneko-27tik (%9,5) urrun daude.

Era berean, beste behin ere, prestakuntza gehien duten pertsonen enplegu tasa handiagoa izan dute. Hala ere, goi mailako titulazioa duten landunen ehunekoak gora egin duenez (%60 baino gehiago), baliteke langile batek bere kategoriatik beherako baldintzak eta ordainsariak dituen enplegu batean lan egiten bukatzea.


Zehatz-mehatz azalduta, egiaztatuta duten prestakuntza beharrezkoa ez den langileen portzentaje handiena duen Europako eskualdeetako bat da Euskadi, Eurostatek egindako 2023 Estatistika Atlasaren arabera. Erakunde horrek gainkualifikazio tasa honela definitzen du: goi mailako ikasketak dituzten eta goi mailako ikasketak behar ez dituzten 25 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuaren ehunekoak, gaikuntza apaleko edo ertaineko lanpostuetan lan egiten dutenak. Euskadin, 2022ko datuekin, tasa hori %39,1ekoa zen, eta Espainian eta EB-27n, 2023ko datuekin, %35,5ekoa eta %21,4koa, hurrenez hurren.

**Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)**  
**25. irudia**

Gizonak



Emakumeak




Iturria: Eurostat.


Aldi berean, enpresek lanpostu hutsak betetzeko dituzten zailtasunak langileek eskaintzen dituzten profilen eta enpresek eskatzen dituztenen arteko desorekaren isla dira. Horrez gain, zahartze demografikoa ere badago, nahi den lan profila bilatzea are gehiago zailtzen duena eta gero eta pentsiodun eta pertsona gutxiago aktibo egotea eragiten duena. Ondorioz, pentsio bat jasotzen duen pertsona bakoitzeko kotizatzaile ratioa 1,95era jaitsi zen 2023ko abenduan, Estatuko batez bestekoaren azpitik (2,28).

**Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2023. urtea**  
**26. irudia**

Enplegu tasa. Gizonak



Enplegu tasa. Emakumeak




Iturria: INE.

Ohar positibo gisa, nabarmendu behar da enpleguaren kalitatea hobetu dela bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Izan ere, emakumeen behin-behinekotasun tasa %29,3tik %25,0ra jaitsi da. Gizonena, berriz, 2022ko %22,5etik 2023ko %18,1era murriztu da. Hobekuntza 2021etik aurrera baieztatu zen, behin lan erreforma onartuta, eta Euskadiko aldi baterako kontratuen proportzioa (%21,6) pixkanaka euroguneko batez bestekora hurbiltzen ari da (%14,4).


Bestalde, lanaldi partzialeko lana, kasu jakin batzuetan prekarietate arazotzat jotzen dena, askotan borondatezkoa ez delako, eragin berezia izan zuen berriz ere EAEn, Estatuko rankingaren buru izan baitzen kontratu mota hori duten pertsonen proportzioan. Hain zuzen ere, lanaldi partzialean lan egiten duten pertsonen ehunekoa %16,1ekoa izan zen 2023an, aurreko urteko %15,8arekin alderatuta apur bat gora egin ostean, Estatuan jasotakoa %13,3 izan zen bitartean. Beste behin ere, emakumeak izan ziren enplegu mota hori gehien erabili zuenak, horietako askok lanaldi murrizketak hartu zituztelako familia eta lana uztartzeko. Bi sexuen arteko alde hori nabarmena zen, baina are handiagoa egin zen iaz. Izan ere, lanaldi partzialeko enpleguaren hazkunde guztia emakumeek bete zuten, eta gizonen artean, aldiz, ehunekoak behera egin zuen.

**Aldi baterako enplegu tasa soldatapeko guztiekiko**  
**27. irudia**

Gizonak




Emakumeak




Iturria: Eustat.

**Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko**  
**28. irudia**

Gizonak



Emakumeak




Iturria: INE.

Diferentzia horren arrazoi nagusietako bat da emakumeak gehiengo direla lanaldi partzialeko enpleguak eskaintzen diren sektoreetan, hala nola etxeko lanetan, garbiketan, ostalaritzan, merkataritzan, jarduera administratiboetan eta jolas jardueretan. Era berean, emakumeak dira normalean familia zaintzaren ardura bereganatzen dutenak, eta, beraz, zailtasun gehiago dituzte lanaldi osoko lanpostuak onartu ahal izateko.

Lehen aipatutako enpleguaren portaera onari esker, langabeen kopuruak beheranzko joerari jarraipena eman zion. Hain zuzen ere, azken urtean lan egin nahi zuten 82.000 pertsonak baino gutxi batzuk gehiagok ez zuten lanik lortu, 2008tik jaso den kopururik txikiena baita, urte horretan ez baitzen 40.000 lagunetara heltzen. Jaitsiera hori askoz ere handiagoa izan zen emakumeen artean (-%11,7) gizonen artean baino (-%5,4).

Aurrekoaren ondorioz, langabezia tasak beheranzko joerarekin jarraitu du 2021etik, eta %7,7-%7,8 inguruan kokatu da, eurogunean jasotzen diren tasetatik oso hurbil kokatuta baitago jada. Emakumeen langabezia tasak bilakaera ona izan zuen (%9,1etik %8,0ra gutxitu da), baina gazteen langabezia tasa ere azpimarratu behar da, bilakaera ona izan duelako (%17,6an kokatu da), 2020an jaso zuena (%25,3) baino askoz ere beherago.

**Langabezia tasaren bilakaera EAEn**  
**29. irudia**




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat eta INE.




**Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**30. irudia**

Gizonak




Emakumeak




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

**Langabeziaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2023. urtea**  
**31. irudia**

Langabezia tasa. Gizonak



Langabezia tasa. Emakumeak



Iturria: INE.

Hain zuzen ere, goi mailako hezkuntzan dago langabezia tasarik txikiena: gizonen kasuan %4,3an dago eta emakumeen kasuan, berriz, %5,6an. Era berean, bigarren etapa profesionaleko langabezia tasak emaitza onak izan ditu, teknologiaren esparruan gertatzen ari diren aldaketak aprobetxatuz, ikasketa maila horrekin lotutako lanpostuen eskaria ahalbidetzen baitu.

Azkenik, kontratazio mugagabearen bilakaerak behin-behinekotasunari dagokionez aipatutako alderdi positibo guztiak indartzen ditu, serie historiko osoko enplegu finkoen kopururik handiena lortu baitzen. Hain zuzen ere, 2023an 162.617 kontratu mugagabe sinatu ziren, eta horiek mugagabe bihurtu ziren 23.875 kontratu gehitu behar zaizkie. Horrela, kontratu horiek guztiak guztizkoaren %25,5 izatera pasa ziren, baina 2022aren aurreko urteetan proportzioa %10etik behera geratu zen.

Kontratu finko horien artean, 75.000 inguru lanaldi osokoak izan ziren, hau da, sinatu ziren kontratu mugagabe guztien %46,6. Bestalde, kontratu guztien %21,6 aldizkako finkoak dira, 35.000 pertsona baino gehiago. Pertsona horiek lanpostua bermatuta dute, nahiz eta urteko hamabi hilekoetan ez duten lanik egingo. Azkenik, kontratu mugagabe berrien heren batek lanaldi partzialak egiten ditu.

**Erregistratutako lan kontratuen bilakaera**  
**21. taula**

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza tasa (%)				
	2023	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Guztira</b>	<b>706.271</b>	<b>3,9</b>	<b>0,7</b>	<b>-30,3</b>	<b>21,7</b>	<b>-6,9</b>	<b>-8,4</b>
Lanaldi osoko mugagabeak	75.753	18,2	-10,8	-29,5	31,3	155,3	9,9
Obra edo zerbitzukoak	0	3,4	-2,4	-28,9	12,0	-81,9	-
Abagunekoak	227.627	7,2	4,5	-29,8	22,7	3,5	-7,6
Lanaldi laburrekoak	257.703	3,1	2,6	-34,2	26,0	-3,5	-18,6
Prestakuntzakoak (*)	6.391	6,9	-17,2	-35,7	50,9	-5,0	-10,0
Gainontzekoak	138.797	-3,7	-5,9	-18,5	15,3	10,6	27,4

(\*) Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

Prezioen analisiari dagokionez, eta BPGaren deflatorearekin hasita, urteko batez besteko hazkunde tasa zortzi hamarren jaitsi zen, %4,0raino, azken bi urteetako goranzko bidea geldituz. Adierazlea osatzen duten elementu guztiek parte hartu zuten gorakada txikiago horretan, esportazioaren eta inportazioaren deflatoreen bilakaera nabarmenduz, 2023an energia prezioek izan zuten moderazio nabarmenari esker.

KPIarekin jarraituz, indize horrek moteltzeko joera esanguratsua izan zuen, batez ere, lehen ere aipatu den lehengai energetikoen prezioen merkatzeak, azken urteetan izandako eskaintzaren asalduren pixkanakako ezabaketak eta moneta politiken gogortzeak bultzatuta. Hain zuzen ere, 2023ko lehen seihilekoan, 2022ko erdialdean hasitako beheranzko joerarekin jarraitu zuen inflazioak, eta ekainean (%2,3) 2021eko martxotik inoiz jaso den baliorik txikiena jaso zuen. Harez geroztik, 2024aren hasieran, zertxobait igo da inflazioa, urte arteko aldakuntza tasa %3,0tik gora kokatuz.

**Kontsumoko prezioen indizearen banaketa**  
**22. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Inflazioa guztira</b>	<b>1,6</b>	<b>1,0</b>	<b>-0,1</b>	<b>3,1</b>	<b>8,0</b>	<b>3,6</b>
<b>Azpiko inflazioa</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>0,8</b>	<b>1,0</b>	<b>5,1</b>	<b>6,2</b>
KPI landutako elikagaiak	0,9	0,6	1,7	1,4	10,2	12,5
KPI industriako ondasunak	-0,1	0,3	0,3	1,0	4,7	4,7
KPI zerbitzuak	1,5	1,6	0,7	0,7	3,3	4,3
<b>Hondarreko inflazioa</b>	<b>4,6</b>	<b>0,7</b>	<b>-4,0</b>	<b>12,0</b>	<b>19,5</b>	<b>-6,4</b>
KPI landugabeko elikagaiak	2,9	1,3	4,0	2,6	10,8	7,3
KPI energia	5,9	0,3	-9,4	20,9	26,6	-17,0

Iturria: INE.

Beraz, 2023an zehar inflazioak erakutsi duen bilakaeran energia prezioen moteltzea izan zen eragile nagusia, %17,0 merkatu baitziren, 2022an osagai horrek izan zuen hazkunde handiarekin (%26,6 garestitu ziren) kontrastearen. Petrolioaren, gasaren eta elektrizitatearen merkatzeak azaltzen du

bilakaera hori, baita iaz erregistratu ziren igoera nabarmenekin erlazionatutako oinarrizko efektuek ere.

Petrolioaren prezioek, hain zuzen ere, gorabehera nabarmenak izan zituzten iazko urtean zehar. 2022ko bigarren zatian izandako beherakada handiaren ondoren, non upeleko salneurria 130 dolarretik 80 dolarrera igaro baitzen, Brent motako petrolioak inguru horretan kotizatu zuen iaz. Hala eta guztiz ere, gorakada bat izan zuen 2023ko hirugarren hiruhilekoan, lehen seihilekoa nahiko egonkorra izan eta urteko azken hiruhilekoan berriro behera egin ostean. Apaltzeko joera hori, batez ere, AEBetan urte amaieran murriztu zen eskariaren bilakaerak eta Europaren ahultasun ekonomikoak azaldu zuten. Gaur egun, upelaren prezioa 80 dolarretik gorakoa da, eta gorabehera puntualak ditu.

**EAEko kontsumo prezioen indizea**  
**23. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Indize orokorra</b>	<b>1,6</b>	<b>1,0</b>	<b>-0,1</b>	<b>3,1</b>	<b>8,0</b>	<b>3,6</b>
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,5	0,9	2,8	2,0	11,2	11,1
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	2,2	0,3	0,2	0,4	4,3	7,0
- Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	1,0	1,0	2,8	2,0
- Etxebizitza	2,5	-1,5	-3,3	11,3	15,8	-12,0
- Etxeko hornidura	0,3	1,0	0,5	1,9	6,6	6,0
- Medikuntza	0,2	0,4	0,5	0,8	0,6	2,3
- Garraioa	3,4	2,7	-3,6	7,2	11,2	0,3
- Komunikazioak	2,4	0,9	-1,1	-3,0	-1,2	3,2
- Aisia eta kultura	-0,4	-0,2	-1,1	-0,1	3,2	4,6
- Irakaskuntza	1,0	1,0	1,1	0,9	1,6	1,9
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,9	1,9	1,2	1,2	6,0	6,2
- Besteak	0,7	1,6	0,9	1,3	3,8	5,4


Iturria: INE.

Orobat, gas naturalaren prezioen moteltzeak nabarmen lagundu zuen jaitsierako inflazio prozesuan 2023an zehar. Horrela, lehengai horren prezioa jaitsi egin zen, 2023ko urtarrilean MWWha 75 eurotik gorakoa ordaintzetik urtearen erdialdean 20 eurotik gorako ordaintzer igaro zen arte, Europar Batasuneko inbentario maila altuaren eta Errusiaren ordezeko herrialdeetatik etorritako horniduraren gorakadaren ondorioz.


Aitzitik, azpiko inflazioa, inflazio orokorra ez bezala, nabarmen hazi zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena ezarriz (%6,2). Goranzko bilakaera hori elikagaien prezioek izan zuten gorakada biziak baldintzatu zuen. Hori horrela izanda, landutako elikagaiek maximo historikoa ezarri zuten urte hasieran (%16,5), eta hurrengo hilabeteetan moteldu egin zen garestitzearen erritmoa. Garestitze horren atzean, batez ere, elikagaien nazioarteko prezioen eta nekazaritzako salneurrien igoera egon zen. Bestalde, ondasun industrialek aurreko urteko erregistro bera markatu zuten (%4,7), nahiz eta beheranzko joera nabarmena izan zuten 2023an zehar. Azkenik, zerbitzuek goranzko erregistroak aurkeztu zituzten, aisialdiarekin lotutako partidetan izandako garestitzearen ondorioz, eskari handia dutelako.

**KPIaren bilakaera**  
**32. irudia**

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea




Iturria: INE eta Eurostat.

Bestalde, elementu gorabeheratsuenean, hondar inflazioa osatzen baitute, kontrako joera erakutsi zuten. Alde batetik, landu gabeko elikagaiak balio altuetan mantendu ziren, eta produktu energetikoak, berriz, iaz maximo historikoetara iritsi ondoren (%28,2), 2023an minimo historikoak izan zituzten (-%16,5). Mugimendu horien ondorioz, hondar inflazioa balio negatiboetara itzuli zen (-%6,4).

Lehenago ere adierazi den bezala, indize orokorra osatzen duten taldeen artean inflazio tasa altuena jaso zuena elikadurarena eta alkoholik gabeko edariena izan da (%11,1), elikagaien lehengaien goranzko bilakaera dela eta. Halaber, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituen taldeak batez besteko historikoaren gaineko balioa aurkeztu zuen, mugikortasunean eta zerbitzu mota horien eskarian izandako bultzadagatik. Aitzitik, energiarekin zerikusia duten taldeek izan zituzten hazkunde tasa apalenak. Hala, etxebizitzaren zerbitzuak %12,0 merkatu ziren, argindarraren prezioak behera egin zuelako, eta garraio taldeak ia hamaika puntu egin zuen behera, 2022ko %11,2tik 2023ko %0,3ra.

**EA Eren eta Eurogunearen arteko inflazio tartearen 2023ko batez besteko balioak**  
33. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

Datozen hilabeteetan 2023an izandako inflazioaren moteltze nabarmenak bere horretan jarraitzea aurreikusten da, baina jaitsiera erritmoa motelagoa izango da, krisi energetikoan hartutako neurri fiskalak pixkanaka bertan behera geratuko direlako eta zerbitzuen inflazioak bere horretan jarraituko duelako. Era berean, euroguneko inflazioak beheranzko joera aurkeztu zuen, baina nabarmenagoa, urte amaieran erregistrorik apalenak ezarriz. Hala ere, aldea ia bi puntu negatibokoa izan zen, batez ere energia prezioen jaitsieraren ondorioz, zeren eta haien eragina handiagoa baita EAEn eurogunean baino.

Prezioak aztertzen dituzten gainerako adierazleen antzera, IPRI indizeak ere beheranzko joera esanguratsua erakutsi zuen. Zehatz-mehatz adierazita, 2022an serie historiko osoko baliorik handiena (%21,8) ezarri ondoren, balio negatiboetan kokatu zen 2023an (-%1,7), energiaren prezioen jaitsieran eta hornidura kateen tentsioan oinarrituta. Jaitsiera horren isla da energiaren taldearen bilakaera (%18,8), IPRI osatzen duten gainerako taldeek aldakuntza tasa positiboak izan zituzten bitartean. Hala ere, 2023ko abenduaren erdialdetik, Gazako gerragatik Ekialde Hurbilean sortu diren ziurgabetasunek itsas garraioaren epeak eta kostuak igo dituzte, eta horrek energiaren prezioak gorarazi ditzake.

**EAEko industriako prezioen indizea**  
**24. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,2</b>	<b>1,4</b>	<b>-3,1</b>	<b>7,3</b>	<b>21,8</b>	<b>-1,7</b>
- Kontsumoko ondasunak	2,1	-0,3	1,9	2,8	9,5	9,1
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	1,9	0,9	1,8	4,5	5,4
- Kontsumo iragankorrak	2,5	-0,7	2,1	3,0	10,3	9,6
- Ekipamendu ondasunak	1,9	1,6	0,8	0,1	4,2	5,1
- Bitarteko ondasunak	2,6	0,0	-0,5	7,1	18,5	4,7
- Energia	7,8	5,0	-15,1	20,6	52,4	-18,8

Iturria: Eustat.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, 2023aren amaieran izan zuen bilakaera nabarmena azpimarratu behar da, langile guztien %63,8k hitzarmenak eguneratuta baitzituzten, eta %5,6k baino ez baitzituzten hitzarmenak indargabetuta eta estaldurarik gabe. Erregistro horiek onenak dira, bai

indarrean dauden hitzarmenak dituzten langileen ehunekoari dagokionez, bai eroritako hitzarmenak dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez, konparazio homogeneo bat egin daitekeen lehen alditik (2012), urte horretan onartu baitzen lan merkatuaren erreforma.

Hain zuzen ere, 2023an 321 lan hitzarmen erregistratu ziren, 211.932 langileren lan baldintzak berriro zituztenak, hots, aurreko urteko kopurua ia bikoiztuz. Igoera hori gizonen eta emakumeen artean gauzatu zen. Hala, 2022an gizonen %49,5ek zuten indarrean hitzarmena, eta 2023an, berriz, %68,1ek. Emakumeen kasuan, 2022ko %40tik 2023ko %58,2ra igo zen.

**Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak**  
**25. taula**

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Indarrean dauden hitzarmenak</b>	<b>1,9</b>	<b>2,0</b>	<b>1,7</b>	<b>1,2</b>	<b>4,1</b>	<b>4,2</b>
- Urtean zehar sinatutakoak	2,2	2,3	1,2	1,1	4,1	4,7
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	2,0	2,1	1,7	1,0	3,9	4,3
- Enpresako hitzarmenak	1,6	1,8	1,7	1,9	4,7	4,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, 2023an zehar erregistratu ziren hitzarmenetan onartu zen batez besteko soldata igoera handia aipatu behar da, gorakada hori %4,7koa izan baitzen. 2008. Urtetik inoiz lortutako baliorik altuena da, eta, gainera, aurreko urtean ez bezala, 2023an hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera abenduko urte arteko inflazioaren (%3,1) eta urte osoko batez besteko inflazioaren (%3,6) gaineratik kokatu zen.


Espainiako Estatistikako Institutuak argitaratzen duen lan kostuen hiruhilekoko inkestaren datuen arabera, 2023an langile bakoitzeko lan kostuen urte arteko aldakuntza tasa %4,5ekoa izan zen Euskadin, eta 2022an gertatu zen bezala, portzentaje hori neurritsua eta txikiagoa da Espainian (%5,5), Madrilen (%6,3) eta Nafarroan (%6,5) jaso zirenak baino, adibide esanguratsu batzuk aipatzearren. %4,5eko igoera orokorrean, industria sektoreak izan zuen hazkunderik handiena (%6,7), ondoren eraikuntzak (%4,9) eta zerbitzuek (%3,8). Azken horiek igoera leun samarra izan zuten, 2021ean eta 2022an gertatu zen bezala.




2023an kostuen hazkundera txikiagoa izan zen arren, batez besteko euroei dagokienez, Euskadi (3.442 euro 2023an) lan kostu handienak dituzten autonomia erkidegoetako bat izan zen berriro, Madril en atzetik (3.542 euro) eta Nafarroan aurretik (3.240 euro), Espainiako batez besteko kostua (2.994 euro) %15 batean gaindituz.

**Lan kostu osoa langile bakoitzeko 2019-2023**  
**34. irudia**

Urte arteko aldakuntza tasak



Batez besteko euroak



Iturria: LKHI-INE


Ameco eta Eustaten datuen arabera, EAEko orduko batez besteko lan kostuen igoera oso apala izan zen 2023an (urte arteko tasan neurtuta), %0,7ra mugatu baitzen. Tasa hori urrun dago Espainian jasotako %6,7tik, EB-15eko %4,6tik eta EB-27ko %5,0tik. Portaera horrek aurreko urteetako joerari jarraitzen dio. Izan ere, orduko lan kostuen igoera nabarmen moteldu zen Euskadin, beste ekonomia batzuekin alderatuta.

Azken hiru urteetan, erreferentziatzko ekonomien hazkunde ia uniformeei esker, Euskadik aurreko urteetako posizio berari eutsi dio. Orduko batez besteko lan kostuei dagokienez, EAE AEBen (36,5 euro/orduko), Alemaniaren (33,8 euro/orduko), Austriaren (31,8 euro/orduko), EB-15en (29,5 euro/orduko) eta EB-27ren (26,6 euro/orduko) atzean dago kokatuta eta Espainiaren (25,1 euro/orduko) eta, azkenik, Txekiar Errepublikaren (18,9 euro/orduko) aurretik. Azken bi urteetako


hazkundeak txikiagoak izan badira ere, EAEn hasierako posizioa egonkor mantendu da tarteko posizio horretan.

**Lan kostu osoa sektoreko langile bakoitzeko. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**35. irudia**

Alderaketa 2019-2023




Alderaketa Euskadi-Espainia




Iturria: LKHI-INE

**Lan kostu nominala orduko**  
**36. irudia**

Urte arteko aldakuntza tasak



2020. urtea=100




Iturria: AMECO-Eustat.

*Soldata desberdintasuna murriztea*

Soldatei buruzko estatistikak nolabaiteko atzerapenarekin argitaratzen dira. Horregatik, txosten hau idazterakoan 2008-2022 aldiko informazio zehatza baino ez dugu, INEk soldaten egiturari buruzko inkestan argitaratua. Estatistika eragiketa horren arabera, batez besteko soldata %4,0 igo zen 2022an, hau da, aldi osoko igoerarik handiena jaso zen. Horri esker, 2022ko batez besteko soldata nominala 2008. urtean izandakoa baino %26,5 handiagoa zen. Urte horretan hasi zen estatistika-serie hori eta Atzeraldi Handia izenez ezagutzen den finantza krisia urte horretan bertan hasi zen. Soldata arrakalaren bilakaera eta denboran zehar izan duen zuzenketa aztertzeko, adierazi behar da soldata igoera apur bat handiagoa izan zela emakumeentzat (%4,4) gizonentzat baino (%4,1), eta aipatutako aldi osoko hazkunde metatuan emakumeen batez besteko soldata %34,7 igo dela, eta gizonena, berriz, %24,2. Igoeren desberdintasun horri esker, soldata arrakala %11,0 inguru murriztu da, geroago zehaztuko den bezala.

**Batez besteko soldataren bilakaera Euskadin. 2008. urtea=100**  
**37. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Aldi horretan metatutako soldataren igoerak portaera diferentziala du muturreko pertzentiletan. Hain zuzen ere, bada, 10 pertzentilak, hau da, soldata apalena duen %10ak, ia ez zuen inolako

hobekuntzarik izan 2008-2018 aldian, eta beraren batez besteko soldata aurreko hamarkada batekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen. Hala ere, data horretatik aurrera, neurri handi batean lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoera handiei esker, 2022ra arte metatutako igoera (%26,1) ia ekonomia osoaren (%26,5) parekoa izatera iritsi zen. Beste aldetik, 90 pertzentilak, soldata altuenak dituen %10 barne hartzen duen taldeak, bilakaera linealagoa izan du, eta 2008ko datua baino %28,6 handiagoa jaso zuen 2022an. Aipatzekoa da, halaber, LGSaren bidezko esku hartzeak ez diela onura bera ekarri soldata tarte guztiei, eta, beraz, beheko kuartilak, hau da, soldata baxuagoak dituen %25ak, batez besteko soldata %20,0 baino ez du igoaldi osoan, eta goiko kuartilak, berriz, %29,0.

**Soldataren bilakaera Euskadin. Pertzentilak. 2008. urtea=100**  
38. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Generoaren ikuspegitik, LGSaren hobekuntzak onura handiagoa ekarri die soldata txikiagoak dituzten emakumeei. Zehazki, 2018ra arte, 10 pertzentileko emakumeen batez besteko soldata ez zen 2008koa baino handiagoa, %8,0 murriztu baitzen, eta pertzentil bereko gizonena, ordea, %8,4 handitu zen. Hala guztiz, data horretatik 2022ra bitartean hobekuntza nabarmena gertatu da bi taldeetan, baina bereziki emakumeen artean, dagoeneko 2008an baino %25,8 soldata handiagoa baitute. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren batez bestekora iristen ez den igoera bat da, 2022an

portzentaje horretan izandako jaitsieraren ondoren. Pertzentil txikienean dauden gizonen kasuan, urte horretako batez besteko soldataren jaitsiera marjinala izan zen, eta 2008arekiko duten posizioa %17,1eko igoera baino ez da, hori ere hamalau urte horietako batez besteko igoera baino txikiagoa delarik. Beraz, jasotako soldatetan dagoen desberdintasuna zabaldu egin da. Kuartilen araberako azterketak ere adierazten du behekoak batez bestekoa baino bilakaera txarragoa izan duela, bai emakumeen kolektiboan (batez besteko soldata emakumeen batez besteko igoera baino lau puntu gutxiago igo zen), bai gizonenean (haien batez bestekoa baino zazpi puntu gutxiago handitu da).


**Soldataren bilakaera Euskadin. 10 pertzentila. 2008. urtea=100**  
**39. irudia**



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Espektoaren beste muturrean, 90 pertzentileko emakumeek eta gizonak igoera nabarmenak eskuratu zituzten. Emakumeen kasuan, igoera gehikuntza %40,2 izan da aldi osoan, batez bestekoaren gainetik; gizonen kasuan, berriz, %26,3 izan da, batez bestekoa baino puntu pare bat gehiago. Deigarria da talde horiek 2022. urtean lortu zuten igoera handia, %6,1ekoa izan baitzen emakumeen kasuan eta %5,0koa, berriz, gizonen kasuan, guztizkoaren batez besteko %4,0aren gainetik.

**Soldataren bilakaera Euskadin. 90. pertzentila. 2008. urtea=100  
40. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren soldaten bilakaeren ondorioz, soldata arrakala murriztu egin da 2008tik. Izan ere, urte hartan, emakume baten batez besteko soldata 21.766 eurokoa izan zen, eta gizon batena, berriz, 28.264 eurokoa. Beraz, bien arteko diferentzia 6.498 euro ziren. Hamalau urte geroago, soldatak 29.315 eurokoak eta 35.096 eurokoak izan ziren, bien artean 5.781 euroko aldea zegoela. Beraz, hasierako arrakala %11,0 murriztu da urte hauetan, baina garrantzitsua izaten jarraitzen du. Interesgarria da ekonomiaren bi sektore nagusien portaera aztertzea. Bi kasuetan, 2008 eta 2018 artean soldata arrakala handitu egin zen, eta data horretatik aurrera murriztu zen nabarmen. Industrian, arrakalaren murrizketa 2019an iritsi zen, eta urte horretan 2008ko mailatik 25 puntu beherago kokatu zen, baina hurrengo urteetan ez du ia jarraipenik izan. Bestalde, zerbitzuetan prozesua jarraituagoa izan da, eta argitaratutako azken urtean arrakala ia %20 murriztu zen.

Adin taldeen arabeko soldata arrakalaren azterketak emaitza deigarria uzten du; izan ere, murrizketa tarte gazteenetan soilik kontzentratu da, eta adin handiagokoetan, berriz, soldata diferentzia hori areagotu da. Nolabait, badirudi belaunaldi berriak berdintasunezko baldintzetan sartzen ari direla lan merkatuan, nahiz eta denborarekin desberdintasunak sortzen diren eta horrek

emakumeak zigortzen dituen. Bereziki, amatasuna eta familia zaintza dira desberdintasun hori azaltzen duten arrazoi batzuk.

**Soldata arrakalaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera. 2008. urtea=100**  
**41. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Zehatzago adierazita, 2008an 25-34 urteko adin taldean zegoen soldata arrakala %40 inguru murriztu da azken hamalau urte horietan, baina oraindik 3.128 eurokoa da urte oso batean. Beste aldetik, 35-44 urteko adin taldean ere arrakalaren murrizketa oso esanguratsua izan da, %26tik gorakoa. Hortik aurrera, soldata arrakala handitu egin da. 45-54 urtekoen taldean, hasierako soldata aldea %20 baino gehiago handitu da, nahiz eta bi kolektiboetaz batez besteko soldata %21,5 igo zaien aldi horretan. Igoera berdinaren ondorioz, hasierako aldea ehuneko horretan bertan handitu da. Azkenik, 55 urteko eta gehiagoko tartean, 7.222 euroko aldea dago orain, 2008an baino %23,2 gehiago.

Soldata arrakala azaltzeko arrazoi nagusietako bat sexu bakoitzak lan merkatuan parte hartzeko duen dedikazio desberdina da. Lan merkatuaren estatistikek adierazten dute lanaldi partzialeko enpleguaren erabilera nabarmen handiagoa dela emakumeen artean. Izan ere, BAIren arabera, 2022an lan ordaindua zuten EAEko emakumeen %24,6k lanaldi partzialean egiten zuen lan hori, eta

gizonen artean, berriz, %8,0k baino ez. INEK soldatei buruz egiten duen estatistikak adierazten du lan egindako ordu bakoitzeko aldeek soldata arrakalaren zati txiki bat baino ez dutela azaltzen. Hala, 2022an, emakumeen orduko soldata 15,01 eurokoa izan zen; gizonena, berriz, 16,01 eurokoa. Hau da, euro bateko aldea lan egindako ordu bakoitzeko. Lanaldi osoko urteko lanaldia hartuta, gehienez 1.826 ordukoa, arrazoi horrengatik justifikatutako soldata arrakala tamaina horretakoa izango litzateke. Gainerakoa emakumeek duten batez besteko lanaldi laburragoak azaltzen du.

**Soldata arrakalaren bilakaera adinaren arabera. 2008. urtea=100**  
42. irudia



Iturria: INE. Soldaten egitura.



**Lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko irabazia eta sektore ekonomikoa**  
**26. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Arrakala
<b>Guztira</b>	<b>15,56</b>	<b>15,01</b>	<b>16,01</b>	<b>-1,00</b>
Industria	16,48	15,28	16,73	-1,45
Zerbitzuak	15,39	15,00	15,91	-0,91

Iturria: INE. Soldaten egitura.

Aurreko taulak agerian uzten du industriako soldata, batez beste, zerbitzuetakoa baino handiagoa dela. Horregatik, emakumeak sektore horretan sartzera gonbidatzen dira, sektore horretan ordezkari txikia baitute. Hala ere, INEren datuek iradokitzen dute orduko arrakala handiagoa dela industrian, hain zuzen ere (1,45 euroko aldea lan egindako ordu bakoitzeko), eta zerbitzuen ordainsaria zertxobait berdintsuagoa dela. Gainera, emakume batentzat, industrian lan egiteak, zerbitzuetan lan egiteak baino askoz ere hobekuntza txikiagoa dakar gizonak batez beste lortzen dutena baino (28 zentimo eta 82 zentimo, hurrenez hurren).

Soldata arrakalaren jatorriari heltzeko beste modu bat genero bakoitzak egiten dituen lanbideak dira. Hurrengo taulan azaltzen denez, emakumeek, batez ere, lau lanbide taldetan kontzentratzen dute beren lan jarduera, eta horietako batzuek batez bestekoa baino askoz ordainsari txikiagoa izaten dute. Hala, nabarmentzekoa da oinarritzko lanbideen taldean duen parte hartzea, soldatarik txikiak baititu eta, gainera, taulan jasotako okupazio guztien artean soldata-arrakala handiena baitu. Ordainsari txikiak duen beste lanbideetako bat jatetxeetako eta merkataritzako langileak biltzen dituenak da; besteak beste, enplegua duten lau emakumetik bat jarduera horietan aritzen baita eta oso soldata arrakala handia du.

Administrazioko enpleguan ere emakumeen kontzentrazio handia dago, gizonak dutenarekin alderatuta. Okupazio hori batez bestekoaren azpitik dago, baina lehen aipatutako beste biak baino askoz gorago. Aitzitik, lan tekniko, zientifiko eta intelektualetan lan egiten duten emakumeen ehunekoa, ordainsari handiarekin, gizonena baino askoz handiagoa da, eta soldata arraila ere esanguratsua bada ere, batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da. Azkenik, zuzendaritza eta gerentzia postuetan emakumeen ordezkari gizonena baino nabarmen txikiagoa da. Eta lanpostu horietan dira soldata handienak. Hala ere, talde horretan ere soldata-arraila oso garrantzitsua da.

**Enpleguaren egitura eta batez besteko irabazia okupazioaren arabera**  
**27. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak	Enpleguaren egitura		Batez besteko irabazia		
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Arrakala
<b>Lanbide guztiak</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>29.315</b>	<b>35.096</b>	<b>-5.781</b>
Zuzendariak eta kudeatzaileak	2,9	5,2	58.103	68.971	-10.868
Teknikari eta prof. zientifiko eta intelektualak	28,9	17,6	42.944	48.234	-5.290
Teknikariak; laguntza profesionalak	9,9	16,6	31.535	39.836	-8.301
Kontabilitateko langileak, administrariak eta bulegoko beste langile batzuk	15,9	6,5	27.572	31.018	-3.446
Jatetxe arloko langileak, pertsonalak, babeseakoak eta saltzaileak	25,6	12,9	19.344	27.785	-8.441
Artisauak eta manufakturetako eta eraikuntzako langile kualifikatuak	1,8	17,9	24.363	30.324	-5.961
Instalazio eta makineria operadoreak eta muntatzaileak	3,2	16,3	27.724	33.166	-5.442
Oinarrizko lanbideak	11,2	5,5	16.313	25.325	-9.012

Iturria: INE. EPA eta soldata-egituraren inkesta.

## 2. EKONOMIA SUSTATZEKO POLITIKAK

### 2.1 Inflazioari aurre egiteko moneta politika

Konplexutasun handiko testuinguru globala izan arren, hau da, diru politiken gogortze historikoki bizkorra, oso ezegonkorra den testuinguru geopolitikoa (krisiak Ukrainan eta Gazan) eta AEBetan edo Suitzan egon ziren banku krisiak, 2023. urtea erakunde inbertitzaileek espero zutena baino askoz hobea izan zen. Hegazkortasuna urtean zehar mantendu zen, batez ere akzioen merkatuan, eta horrek munduko burtsa nagusiek irabazi handiak lortzea ekarri zuen. Halaber, errenta finkoak prezioen beherakada gelditzeaz gain, urtearen amaieran errebotea indarrez egin zuen eta irabaziekin ere itxi zuen.

**Banku zentralen interes tasak**  
**28. taula**

	01-06	07-12	13-18	2019	2020	2021	2022	2023	24-
Europako Banku Zentr.	2,5	2,4	0,4	0,00	0,00	0,00	2,50	4,5	4,25
Erreserba Federala	2,1	2,1	0,30	1,75-1,5	0,25-0,0	0,25-0,0	4,5-4,25	5,25-5,5	5,25-5,5
Japoniako Bankua	0,0	0,2	0,1	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	0,0-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,2	2,7	0,5	0,75	0,10	0,25	3,50	5,25	5,25
Txinako Bankua	2,5	6,0	5,7	4,15	3,85	3,80	3,65	3,45	3,45
Indiako Bankua	7,1	6,5	7,8	5,15	4,00	4,00	6,25	6,5	6,5
Brasilgo Banku Zentrala	17,4	11,6	10,9	4,50	2,00	9,25	13,75	11,75	10,5

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Aurten ere, herrialde eta eremu ekonomiko nagusietako banku zentralak izan ziren urteko protagonista finantzarioak, ekonomiaren finantzaketa gogortzen eta eskari agregatua geldiarazten jarraitu zuten politika monetarioekin. Zehatzago adierazita, Erreserba Federalak (Fed) inflazioaren aurkako borrokan (2022ko ekainean jo zuen goia berrogei urtean, KPIa %9,1era igota) hamaika aldiz igo zituen interes tasak 2022ko martxotik, horietako lau 2023an. Denbora horretan, erreferentziazko tasa orokorra orduko %0,0-%0,25etik oraingo %5,25-%5,5era igaro da, 2001etik izandako maximora, alegia. Irailetik 2024ko ekainera arte egindako bileretan, tasei eustea erabaki da, inflazioa kontrolpean dagoen froga gehiagoren zain. Izan ere, 2024an tasak behin bakarrik jaiste aurreikusten du erakundeak.

EBZri dagokionez, 2022ko uztailen ere bere moneta politika hedakorrarekin amaitzea erabaki zuen, eta pixkanaka interes tasak igoen joan zen, euroa sortu zenetik mailarik altuenetaraino. Horrela, EBZk hamar aldiz jarraian igo zuen erreferentzia tasa, %4,5eraino. Inflazioak %2,0ko helburutik urrun jarraitzen bazuen ere, azpiko inflazioaren adierazle gehienak jaisten hasi ziren, eta horrek babes eman zion 2023ko urrian tasen igoera geldiarazteko hartutako erabakiari. 2024ko martxoan, datu ekonomiko onek eta inflazioari eustek inflexio puntu bat markatu zuten, diru politika neurritsuago baterantz.

2024ko martxoan, Suitzako Bankua izan zen erreferentzia tasa gutxitu zuen lehena, eta ekainean ere neurri bera hartu zuen, interes tasa ofiziala %1,25era eramanda. Bestalde, EBZk aurtengo ekainera arte itxaron zuen tasak murrizten hasteko, oinarrizko 25 puntu jaitsiz eta interes tasa %4,25ean ezarriz. Hala ere, EBZk argi utzi du ez dagoela konprometituta tasetarako ibilbide espezifiko batekin, eta berriro igo ditzakeela, beharrezkotzat jotzen badu. Soldaten sendotasunak eta inflazioak eragina izan dute etorkizuneko tasen murrizketei buruzko merkatuaren igurikimenean. Hasiere batean 2024rako zortzi murrizketa aurreikusi ziren arren, orain merkatuak gehienez bi espero ditu.

Europako herrialdeekin jarraituz, Ingalaterrako Bankuak (BoE) ere bat egin zuen tonu murriztaile horrekin, eta herrialde horretako interes tasak hamalau aldiz jarraian igo zituen 2021eko abendutik. Guztira, oinarrizko 515 puntu igo zituen. Bere merkataritzako bazkideek ez bezala, oraingoz ez du jaitsierarik erabaki, baina aurtengo ekainean igoera berriak baztertu zituen lehen aldiz eta aho batez.

Gainerako banku zentral nagusiekin alderatuta, Japoniako Banku Zentralak tasa negatiboen politika ultralaxa mantendu zuen 2023an, eta, 2024ko martxoan, erreferentzia tasa %0,1era igotzeko erabakia hartu zuen. Erabaki horrek aldaketa nabarmena markatzen du, 17 urtez moneta politika

ia kronikoki eremu negatiboan mantendu ondoren, geldialdian zegoen ekonomia bat biziberritzeko helburuarekin. Japoniak deflazioa atzean utzi eta neurrizko susperraldia ikusi ahala, zorpetzeko kostuak igotzea erabaki du herrialdeko banku agintaritzak. Japoniakoa tasa negatiboak mantentzen zituen banku zentraletako azkena zen, eta horrek amaiera ematen dio planeta osoko arduradun politikoak diru merke eta heterodoxia monetarioaren bidez hazkundera bultzatzen saiatu ziren garaiari.

**10 urterako zor publikoaren errendimendua**  
**29. taula**

	Errendimendua (%)						Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)					
	09-04	15-20	2021	2022	2023	24-Eka	09-04	15-20	2021	2022	2023	24-Eka
Alemania	2,00	0,13	-0,18	2,56	2,03	2,49	0	0	0	0	0	0
Frantzia	2,57	0,49	0,19	3,11	2,56	3,29	57	36	37	55	53	80
Italia	4,42	1,69	1,19	4,69	3,71	4,03	240	157	136	213	168	158
E. Batua	2,67	1,11	0,97	3,67	3,54	4,18	67	99	115	111	151	169
<b>Espainia</b>	<b>4,27</b>	<b>1,12</b>	<b>0,60</b>	<b>3,65</b>	<b>3,00</b>	<b>3,42</b>	<b>227</b>	<b>99</b>	<b>77</b>	<b>109</b>	<b>97</b>	<b>93</b>
Irlanda	5,31	0,55	0,25	3,12	2,37	2,95	331	43	43	56	34	46
Portugal	6,69	1,75	0,49	3,60	2,79	3,24	470	162	66	104	76	75
Grezia	13,73	4,34	1,31	4,59	3,08	3,74	1.173	422	149	203	105	125
AEB	2,66	2,11	1,50	3,83	3,87	4,37	65	198	168	127	184	188
Japonia	0,88	0,06	0,07	0,42	0,63	1,05	-113	-6	25	-214	-140	-144

Iturria: Espainiako Bankua.

Epe luzeko zorraren errentagarritasunari dagokionez, AEBetako 10 urterako bonua modu neurritsuan baina jarraituan igo zen urtean zehar, hasierako %3,8tik urriko %5,0ra arte, eta ekitaldiko une batzuetan %8,0tik gorako galerak metatu zituen. Ekonomia estatubatuarrak aurrekusi zena baino portaera hobea erakutsi zuen eta inflazioa oraindik ere altua izan zen. Bi arrazoiengatik errentagarritasuna handitu zen. Ondoren, zuzenketa bizkorra izan zuen urtearen amaieran %3,9an kokatu arte, ia ekitaldiaren hasierakoen parekoak.

Europar, 10 urterako bonu alemaniarren (bund) etekinen hazkundera askoz ere apalagoa izan zen, Europako ekonomiaren dinamismo txikiagoaren eta hozteko beldurren isla. Urtea %2,4ko tasekin hasi zuen, eta urrian %3,0ra hurbildu ondoren, errentagarritasuna ere murriztu zuen, 2023a ia

%2,0an itxi arte, urtearen hasieran zegoen tasa baino nabarmen beherago. Espainiako bonuak antzeko norabidea erakutsi zuen, goranzko ibilbide neurritsua izanez, eta agerian utzi zuen EBZk arrisku sarien gaineko kontrola zuela. Zehatzago adierazita, urtea %3,5ean hasi zuten, %4,0ra iritsi zen eta %3,0an amaitu zen. Bereziki nabarmendu zen Greziako zorraren errentagarritasunen beherakada, hein handi batean herrialdeak kreditu kalifikazioko agentzia nagusien inbertsio maila berreskuratu duelako.

Errentagarritasunen bilakaera horren ondorioz, arrisku sariak behera egin zuten oro har, bonuaren 10 urterako errentagarritasunaren eta Alemaniako 10 urterako zor publikoaren errentagarritasunaren arteko diferentzial gisa neurtuta. Errentagarritasunaren beherakadaren ildotik, azpimarratzekoa da Greziako bonuaren arrisku sariaren murrizketa handia; izan ere, urtea italiarraren gainetik hasi arren, abenduaren amaieran oinarritzko 50 puntu baino gehiago zeuden azpitik.

2024ko lehen hiruhilekoan, 10 urterako bonuen errentagarritasuna egonkor mantendu zen, eta arrisku sariak historikoki baxuak diren mailatan jarraitu zuten, ziurgabetasun makroekonomikoaren testuingurua gorabehera. Ekainean, ordea, joera hori aldatu egin zen, eta 10 urterako zor publikoak galera handiak izan zituen. EBZk interes tasak murrizteak 10 urterako bonu subiranoetan eskatutako errentagarritasuna bultzatu zuen. Halaber, eskuin muturreko alderdiek Europako hauteskundeetan izandako gorakadaren ondorioz merkatuetan izandako ziurgabetasunaren gorakadak ere eragina izan zuen eskatutako etekinetan. Ondorioz, 10 urterako bonu frantsesaren errentagarritasuna %3,30era iritsi zen, eta Italiako zorra, berriz, %4,0tik gorakoa izan zen. Bestalde, 10 urterako Espainiako bonua ere %3,46tik gora igo zen, urteko maximoen inguruan.

Arrisku sariei dagokienez, Alemaniako zorrari eskatutako errendimendua handitzeak, haren ekonomiak izandako ahuleziaren ondorioz, ez baita gai izan suspertzeko, diferentzialak handitzea saihestu zuen. Horregatik, arrisku sariak maila apaletan mantendu ziren.

Errenta aldakorreko merkatuari dagokionez, burtsa indize nagusiek oso irabazi handiekin amaitu zuten 2023. urtea, %15,0 eta %20,0 arteko mozkinekin, aurreko urteko galera orokorrak atzean utzita. Ekonomia aurreratu batzuen portaera espero baino hobea, AEBetako sektore teknologikoaren errebote handia (adimen artifizialeko aplikazioek sortutako itxaropen handietan oinarrituta) eta Europako banku handien jardura ona aurrez aipatutako faktore negatiboaren kontrapisu izan ziren, 2023ko martxoan jasandako banku krisi globala barne.

Silicon Valley Banken (SVB) kolapsoa izan zen banku krisiaren eragilea. AEBetako sektore teknologikoko mailegu emaile garrantzitsu horrek likidezia falta handia izan zuen, gordailugile asko beren funtsak epe labur batean erretiratzen saiatu zirenean. Izua Estatu Batuetako beste banku erregional batzuetara hedatu zen, hala nola Signature Bankera eta First Republic Bankera, eta munduko finantza erraldoietako bat ere arriskuan jarri zuen: Credit Suisse.

Banku krisiaren eragin ekonomikoa ez zen mugatu banku kolapsoek zuzenean eragindako herrialdeetara; aitzitik, finantza merkatuen eta nazioarteko merkataritzaren arteko konexioak mundu osora zabaldu zuen. Burtzak erori egin ziren. Hain handia izan zenez, jurisdikzio askotako banku arautzaileek, Erreserba Federala, Kanadako Bankua, Japoniako Bankua, EBZ eta Suitzako Banku Nazionala barne, arrakastaz esku hartu zuten aparteko likidezia emateko eta banku krisiak banku gehiagori eragin ez ziezaien saiatzeko.

Turbulentzia aldi hori gainditu ondoren, merkatuak egonkortzea lortu zuten. Egonkortasun hori sendotu egin zen lehen hiru hilabeteetan ezagutu ziren bilakaera ekonomiko positiboak buruzko adierazle eta datuei esker, bai eta denboraldiko enpresa emaitzei esker ere. Ondorioz, banku zentralak planifikatutako estrategia ezartzen jarraitu ahal izan zuten.

Europar kontinente zaharreko erreferentzia den Eurostoxx-50 indizeak %19,2ko hazkundea izan zuen. Indize batzuek batez besteko hori gainditu zuten, hala nola Greziako ATHEXek (%39,1), Italiako MIBek (%28,0) eta Espainiako IBEX 35ek (%22,8), batez ere Europako banku sektoreak bultzatuta. Beste indize batzuek ere irabazi handiak izan zituzten, hala nola Alemaniako DAX indizeak (%20,3) eta Frantziako CAC 40 indizeak (%16,5), nahiz eta Frantziako indizea Eurostoxx 50en errentagarritasunaren azpitik geratu zen.

Ipar Amerikako merkatuetan, 2022an izandako galera handien ondoren, indizeek berriro hartu zuten euskarri posizioa mundu mailan, eta urtea maximo historikoen eremuan ixtera iritsi ziren. NASDAQ 100 indizeak, enpresa teknologiko nagusiak biltzen dituen indizea baita, ia %54,0ko irabazi ikaragarria lortu zuen, S&P-500 indizeak %25,0 irabazi zuen eta Dow Jonesek, berriz, %14,0. Latinoamerikan goraka ari diren burtsek ere balio irabazi handiak eskuratu zituzten, joera globalen ildotik. Aitzitik, Txinako burtsek galerak izan zituzten, hango ekonomiak espero baino gutxiago hazi zirelako. Besteak beste, Hong Kongeko Hang Sheng indizeak %13,9ko galerak izan zituen, eta Shanghaikoak %6,7koak.

2024ko lehen seihilekoan, burtsek goranzko joerari eutsi zioten, baina joera hori partzialki eten zen ekainean, Europako hauteskondeekin lotutako gorabeheren ondorioz, Europako burtsa nagusietan metatutako irabaziak murriztu baitziren. Hala eta guztiz ere, balio handitzeak %10,0 ingurukoak izan dira.

Truke tasei dagokienez, merkatuen igurikimen aldakorrek eragin zuzena izan zuten haien bilakaeran, moneta politiketan izandako aldaketen eta aurreikuspen ekonomikoen aldakortasunaren ondorioz.


2023. urtean, euroa indartu egin zen urteko lehen seihilekoan, bere eremuko baldintza makroekonomikoak hobetu egin zirelako eta moneta politika azkarrago gogortu zelako, baina dolarraren aurrean balioa galtzen hasi zen uztailaren erdialdean. Dolarraren indartzea, orokorra izan baitzen, datu ekonomiko harrigarriro positiboak eta merkatuek AEBetan moneta politikaren orientazioa denbora luzeagoan murriztaileagoa izango zela espero zutenei egotzi zitzairen. Urte amaieran, inflazio tasen beherakadaren testuinguruan, politika horren tonu gogorra berriro ebaluatu izanak moneta bakarraren beste balio irabazi bat ekarri zuen berarekin. Horren guztiaren ondorioz, 2023ko balantzeak erakusten du euroaren balioa %3,4 igo zela AEBetako dolarraren aldean.

Bazkide komertzial nagusien txanponei dagokienez, euroak balioa nabarmen irabazi zuen lira turkiarraren, errublo errusiarraren, yen japoniarraren, libera esterlinaren eta koroa norvegiarraren aldean, nahiz eta devaluatu egin zen franko suitzarraren eta esloti poloniarraren aurrean. Balio nominaletan, euroa %3,9 balioetsi zen 2023an.

2024ko lehen hilabeteetan, euroaren truke tasa efektiboa ia egonkor mantendu zen, AEBetako dolarraren aldean balio galera txiki bat izan zuen, baina euroak beste dibisa garrantzitsu batzuen aldean lortu zuen balio irabaziak galera hura konpentsatu zuelako. Hala ere, Europako hauteskundeetako emaitzak euroaren hegakortasuna ekarri zuen, dagoeneko presiopean baitzegoen, AEBetako enplegu datu sendoen eta EBZren tasa jaitzieraren ondorioz. Horrek nabarmen ahuldu zuen dolarraren aldean zuen truke tasa. Hala, moneta bakarra euro bakoitzeko 1,068 dolarrera jaitsi zen, eta, ondoren, euro bakoitzeko 1,08 dolarren bueltan egonkortu zen berriro. Aurten, moneta bakarrak ia %2,0ko balio galera izan du dolarraren aldean.



**EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko**  
**43. irudia**



Iturria: Espainiako Bankua.

Aipamen berezia merezi du yenaren bilakaerak. 2023an jada ahulduta zegoen dibisa hori, eta 2024an are balio gehiago galdu zuen, Japoniako Bankuak tipoen igoera iragarri ondoren. Hain zuzen ere, Japoniako dibisak 1986tik dolarraren aldean mailarik baxuenean kotizatzen zuen 2024aren erdialdean, eta dolarraren aldean zuen balioaren heren bat galdu du 2021etik. Zertxobait gutxiago, %30, galdu egin du euroarekiko, eta dibisa horren aldean dago minimo historikoan ere. Gainera, Altxorraren epe luzerako bonuen etekinak igo egin ziren, eta horrek alerta egoeran mantentzen

ditu inbertitzaileak, Japoniako agintariek herrialdeko moneta indartzeko esku har dezaketelako. 2024ko lehen sei hilabeteetan soilik euroak %11,77ko balioa irabazi du yenaren aldean, eta dolarrak, berriz, %13,02 irabazi du.

Finantzen osasunari dagokionez, familiek zuhurtziaren alde egin zuten 2023. urtean. INEren datuen arabera, familia espainiarren aurrezkiak %70,6 areagotu zen, interes tasak gora egiten zuten eta erosketa saskia garestitzea geldiarazteko borrokan ari zen testuinguru batean. Aurrezki tasa errenta erabilgarriaren %11,7ra igo zen, serie historiko osoko hirugarren tasarik handiena eta aurreko urtekoa baino lau puntu handiagoa baita. Eraitza horretan eragin handia izan zuten inflazioaren neurritasunak, espero baino nabarmenagoa izan baita, eta enpleguaren tirabirak, soldatak berreskuratuz, nahiz eta osatu gabe egon, langileek etekina atera baitiote. Bi elementu horiei esker, familiek indartu egin dute 2022an higitutako koltxoi hori, prezioen bat-bateko igoerak eta finantzaketa kostuen igoerak markatutako urtea. 2024ko lehen hiruhilekoan, goranzko joera hori %14,2ko tasarekin sendotu da, eta, lehen aldiz, azken mende laurdeneko Europako batez besteko historikoaren gainetik jarri da.


EAEko familien kasuan, iazko lehen sei hilabeteetan aurrezteko joera gero eta handiagoa izan zen. Horri esker, kontuetako saldoa 87.000 milioi eurotik gorakoa izan zen. Hala ere, Europako Banku Zentralak interes tasak igo zituen, familia askok zorpetzearen zati bat amortizatzea erabaki zuten, finantza karga murrizteko. Halaber, enpresen artean, soberakinen dezelerazioa nabaritu zen, langile gastuak (soldata igoeren ondorioz) eta finantza gastuak handitu zirelako, bai eta salmenta prezioak eta zorraren kostua gutxiago igo zirelako ere. Ondorioz, 2023aren amaieran, gordailu pribatuetara bideratutako zenbatekoa pixka bat murriztu zen (%1,7), 2022ko mailarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, 2023. urtearen amaieran, EAEko eragileek 86.300 milioi euro baino gehiago zituzten gordailu pribatuetan.

Beharakada hori gorabehera, koronabirusaren pandemiaren ondorioz, EAEko eragileek 584 milioi euro gehiagorekin sendotu dituzte kontuak. Batez ere, 2014tik gertatzen ari den bezala, ageriko kontuetan, kontu korranteetan, non gordailututako kopuruak edozein unetan kendu edo transferitu daitezkeen, erakundeari alde aurretik jakinarazi gabe. Hor 73.000 milioi euro baino gehiago gordetzen dituzte. Gainerakoak eperako gordailuak dira.

Aitzitik, herri administrazioaren kontu korranteen saldoak bilakaera oso desberdina izan zuen. Foru ogasunen bilketaren gorakadak beste errekor bat ezarri zuen, 18.212 milioi eurotik gorakoa (2022an baino %6,3 gehiago), eta exekutatu gabeko partidetako diruzaintzako geldikinak gehituta,

gordailu publikoen saldoa igo zen, eta 2024ko lehen hiruhilekoan 11.000 milioi euro inguru izan ziren, aurrekaririk gabeko kopurua baita.

**Gordailuen bilakaera. Milioi euro**  
**44. irudia**



Iturria: Espainiako Bankua.


Kredituen bilakaerari dagokionez, EAEko eragileek zorpetze maila gutxitzeko prozesuan murgilduta jarraitu zuten, eta prozesu hori areagotu egin zen interes tasen garestitzearen eta ziurgabetasun ekonomikoaren ondorioz. Era berean, kreditu pribatuen murrizketak lotura handia izan zuen etxebizitzaren erosketarekin eta hipoteken emakidaren uzkurtzearekin. 2023an, etxe bat erosteko maileguak zifrarik baxuenetara iritsi ziren 2019tik. Hipoteken sinadurak nabarmen egin zuen behera, ez arriskuengatik, 2008an gertatu zen bezala, baizik eta batez ere prezioengatik; ia baliabideak zituztenek bakarrik erosi zuten etxebizitza. Zehatzago adierazita, INEren eta Funcasen azken txostenaren arabera, etxebizitzaren hamar salerosketatik lauk baino ez zuten hipoteka behar izan 2023an.

Interes tasez eta prezioez gain, enpresa txiki eta ertainek (ETE) aurre egin behar izan zieten kreditu murrizketari eta berauek eskuratzeko baldintzen gogortzei. Pandemiaren ondoren, euren balantzeetan eragin nabarmena izan duen higadura bat ezagutu dute, eta, dagoen kreditua


eskuratzea ez ezik, mailegu bat lortzeko beharrezkoak diren bermeak aurkezteko gaitasuna ere zaildu dute. Ondorioz, 2023an, maileguen saldoa 2.876 milioi euro murriztu zen, 2014tik urtebetean izan den doikuntzarik handiena, orduan enpresa ehuna 2008ko finantza krisiaren gainzorpetzetik berreskuratzen baitzen. Horrek sektore pribatuaren zorpetze maila 57.657 milioi eurotan finkatu zuen, 2004tik izan den baxuena.

### Kredituen bilakaera 45. irudia

Arlo pribatuari emandako kredituak. Milioi euro



Arlo publikoari emandako kredituak. Milioi euro



Iturria: Espainiako Bankua.


Gordailuetan ez bezala, kreditu publikoek ere beheranzko joera hori izan zuten, eta beren zorpetze maila murriztu zuten (-%6,0). Horren guztiaren ondorioz, EAEko ekonomiak saldo positiboa handitu zuen ekonomiaren finantzaketan parte hartzen duten banku sistemaren tresna nagusien artean: kredituak eta gordailuak. Hain zuzen ere, 2023. urtean, bi magnitude horien arteko aldea 30.000 milioi euro ingurukoa izan zen gordailuen alde, erregistroak daudenetik izan den zenbatekorik handiena baita.

Hipoteken merkatuari dagokionez, interes tasen hazkundearen eragina handiagoa izan zen merkatu horretan. Zehazkiago azalduta, INEren arabera, 2023an formalizatutako hipoteken kopurua %16,9 murriztu zen, 3.941 polizako jaitzierarekin. 19.181 hipoteka sinatu ziren, pandemiaren urtean


(2020) izenpetutakoak baino kopuru are txikiagoa, orduan konfinamenduak jarduera geldiarazi baitzuen bi hilabete baino gehiagoz, eta 19.252 hipotekako saldoa utzi zuen Euskadin. Baina hipoteketarako kredituen zenbatekoaren jaitsiera askoz handiagoa izan zen, 2022an baino %32,0 baxuagoa. Etxe bat erosteko mailegatutako diru kopurua 4.954 milioikoa izan zen azken ekitaldian, eta 7.304 milioikoa 2022an. Datu horiek aurretik aztertutakoa berresten dute; EAEko familiek, neurri handi batean, aurrezkiak erabili dituzte etxebizitzak erosteko.

**Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Milakoak**  
**46. irudia**

Formalizatutako hipotekak



Formalizatutako hipoteken zenbatekoa




Iturria: INE.

Hipoteka kredituen formalizazioaren geldialdian garrantzi berezia izan zuen euriborraren bilakaerak. Hain zuzen ere, hamabi hilabeterako euriborra, interes tasa aldakorreko hipoteketarako erreferentzia nagusia dena, %4,0tik gora izatera iritsi zen urtearen zati handi batean, 2008tik ikusi gabeko mailetan, alegia. Indizeak sabaia jo zuen irailean, orduan %4,228ra igo baitzen. Euriborraren aurreko bi goranzko zikloetan, indizea %5,0tik gorakoa izan zen. 2008ko uztailean lortu ziren maximo historikoak, hileko tasa %5,393koa izan baitzen. Lehenago, 2000ko abuztuan, euriborrak %5,248an jo zuen goia. Indizea ez da hainbesteraino iritsi oraingoan, baina beste marka batzuk gairiditu ditu. Azken igoera inoizko azkarrena eta biziena izan da; izan ere, 2022aren hasieran, euriborra -%0,5 azpitik zegoen. Orduetik, adierazleak oinarrizko 57,8 puntuko beherakada ezagutu


du, eta %3,65ean kokatu zen 2024ko ekainaren amaieran. Euriborraren beherakada horren eta etorkizuneko jaitsieren atzean EBZ dago, indizea eta interes tasa ofizialak eskutik doazelako.

**Interes tasen bilakaera**  
**47. irudia**

12 hileko euriborra



Hipoteken interes tasak



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

**2.2 Zerga politika hedakorra**


2023. urtean zehar, politika fiskalak, politika monetarioak ez bezala, ikuspegi hedakorrari eutsi zion maila globalean, bai ekonomia aurreratuetan, bai garapen bidean dauden herrialdeetan. 2021-22an izandako hobekuntzen ondoren, munduko defizit fiskalak ehuneko 1,6 puntu igo ziren, eta 2023an BPGaren %5,5ean kokatu ziren batez beste. Halaber, munduko zor publikoa ehuneko bi puntu igo zen gutxi gorabehera, eta BPGaren %93,2ra iritsi zen.

Interes tasen igoerak zorraren kostua igo zuen, eta pandemiari eta energiaren prezioen krisiari erantzuteko neurrien zati handi bat luzatu eta handitu zen. Gainera, egoera geopolitiko berriaren aurrean eta eraldaketa energetikoa bultzatzeko, herrialde askok laguntza industrialeko neurriak onartu zituzten, diru laguntza eta pizgarri fiskal gisa. Esate baterako, AEBetan, 2022ko abuztuan,


Inflation Reduction Act (IRA) delakoa onartu zen. Laguntza publiko horien bidez, kontsumoa, ekoizpena eta ingurumenaren aldetik jasangarria den inbertsioa sustatu nahi dira, eta 400 mila milioi dolarreko zuzkidura du, 10 urtean ordaintzeko.

**Defizitaren eta zor publikoaren bilakaera**  
**48. irudia**

Defizit publikoa BPGaren %an



Zor publikoa BPGaren %an



Iturria: NDF.

Eurogunean moteldu egin zen aurreko bi urteetako defizitaren jaitsiera erritmoa eta pandemia hasi aurreko urtea baino ia hiru puntu gorago kokatu zen. Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes klausulari eta estatuko laguntzen denbora esparru erlatiboetara eutsi izanak – bai covid-19arekin lotutako laguntzen zati baten denbora esparruak, bai Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondoren ekonomia babestera bideratutakoak, 2023an indarrean egon ziren – aukera eman zien euroguneako estatu kideei malgutasun handiagoa izaten jarraitzeko aurrekontu-politikak erabakitzeko orduan.

EBZko ikertzaile batzuen kalkuluen arabera, energiaren prezioen asaldurei eta inflazio handiari erantzuteko familiei eta enpresei laguntzeko bideratu ziren zerga neurri diskrezionalak BPGaren %1,3ra iritsi ziren, eta aurreko urtean, berriz, %1,8ra. Jaitsiera hori, hein handi batean, energiaren prezioen beherakadaren ondorio da. Aurreikuspenen arabera, 2023an indarrean zeuden laguntza neurrien bi heren inguru 2024an amaituko dira, eta, beraz, horien zenbatekoa BPGaren %0,5

ingurura murriztuko da. Neurri motari dagokionez, 2023an ia erdiak dirulaguntzak izan ziren, eta horietatik erdiak baino gehiago energiaren gehieneko prezioei buruzkoak ziren Alemanian, Frantzian eta Herbehereetan.

Energiaren prezioen krisiari emandako erantzunean txikizkako prezioei zuzendutako konpentsazio neurriak sartu ziren, hala nola energiaren prezioen mugak, eta familia eta enpresa guztiei onura handia ekarri zieten beste neurri batzuk. Neurri horiek konpentsazio orokorra bermatu bazuten ere, beste neurri espezifikoago batzuek baino zerga kostu nabarmen handiagoa ekarri zuten, hala nola errenta baxuko familia unitateetara egindako transferentziek.

Estatuan, AIReF-ren kalkuluen arabera, krisi energetikoari eta Ukrainaren inbasioari erantzuteko neurriek BPGaren %0,9ko eragina izan zuten aurrekontuan. Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren eta Elektrizitatearen, gasaren, briketen eta pelleten BEZaren aldi baterako murrizketek 3.800 milioi inguruko diru sarrera txikiagoak ekarri zituzten, eta elikagaien tipoaren jaitsierak 2.145 milioi murriztu zuen bilketa. Beste aldetik, inflazioa moteltzen ari zen testuinguru batean, gastu neurriak nabarmen murriztu ziren aurreko urtearen aldean, 6.500 milioi eurora iritsi arte. Batez ere, nabarmenezkoa da erregaien hobariak behera egin zuela, eta nekazaritza eta garraio sektoreetan bakarrik aplikatu zela.

Beste aldetik, Europar Batasunean, zerga politikaren osagaiaren barruan, Next Generation EU funtsekin estatuek egiten dituzten gastuak ere nabarmendu behar dira. Gastu horiek ez dute eraginik defizit publikoan, herrialdeek Europar Batasunetik jasotzen dituzten diru sarrerak gastua egiten den aldi berean zenbatzen baitira. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) Next Generation EUren elementu nagusia da, Estatuek covid-19ak sortutako krisiari erantzuteko indarrean jarri zituzten Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalak finantzatzeko balio duena, eta funtsezko arloetan inbertsioak egiteko aukera ematen du, hala nola berrikuntzan, digitalizazioan, trantsizio berdean, azpiegituretan eta hezkuntzan. Guztira, MRRk 648.000 milioi euro arte ordainduko dizkie EBko estatu kideei dirulaguntzak eta maileguak emateko.




**Energia-krisiari eta Ukrainaren inbasioari erantzuteko neurrien aurrekontu-inpaktuari buruzko  
AIREF-ren estimazioa (milioi euro)  
30. taula**

	2022	2023	2024
<b>Diru-sarreraren neurriak</b>			
Elektrizitatearen BEZa	-2.343	-2.134	-963
Gasaren, briketen eta pelleten BEZa	-213	-292	-40
Elikagaien BEZa			
% 4tik % 0ra bitartean: lehen beharrezaneko elikagaiak	0	-1.765	-882
% 10etik % 5era bitarteko: olioak eta elikadura-pastak	0	-380	-190
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	-2.041	-1.407	-352
<b>Diru-sarreraren neurriak guztira</b>	<b>-4.597</b>	<b>-5.978</b>	<b>-2.427</b>
<b>Diru-sarreraren neurriak guztira (BPGaren %)</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,2</b>
<b>Gastu-neurriak</b>			
Erregaiaren hobaria	5.795	1.891	112
Laguntza sektorialak	4.386	1.943	330
Elektrizitate-tarifaren defizita	4.158	0	0
Partikularrentzako laguntza zuzenak	121	326	0
Partikularrentzako gainerako laguntzak	1.952	2.329	1.516
Errefuxiatuentzako laguntzak	680	42	0
<b>Gastu-neurriak guztira</b>	<b>17.092</b>	<b>6.531</b>	<b>1.958</b>
<b>Gastu-neurriak guztira (BPGaren %)</b>	<b>1,3</b>	<b>0,4</b>	<b>0,1</b>
<b>Diru-sarrerak eta gastuak, guztira</b>	<b>-21.689</b>	<b>-12.509</b>	<b>-4.385</b>
<b>Diru-sarrerak eta gastuak, guztira (BPGaren %)</b>	<b>-1,6</b>	<b>-0,9</b>	<b>-0,3</b>

Iturria: Airef.

2023aren amaierara arte, EBk 141.000 milioi euro ordaindu zituen transferentzietan eta 79.000 milioi, berriz, maileguetan. Hartzaile nagusiak, BPGarekiko, Grezia (%8,0) eta Italia (%5,6) izan dira. Espainiak, bere aldetik, 37.000 milioi euro jaso zituen, oso-osorik dirulaguntzetan, hau da, BPGaren %3,0.

**Ordaindutako MRR funtsak 2021-2023**  
**49. irudia**



Iturria: Europako Batzordea

Europar Batasunak, trantsizio berdea bultzatzeko MRR funtsek emandako baliabide gehienak sustatzeaz gain, Europarako Itun Berdearen Industria Plana jarri du abian. Bere helburua da Europako industriaren lehiakortasuna hobetzea zero emisio garbiekin eta neutraltasun klimatikorako trantsizioa bizkortzea, eta beste herrialde batzuen politika protekzionisteki erantzunez sortzen da, lehen aipatutako IRA estatubatuarraren kasuan bezala. Planak ez dakar Europar Batasuneko funts berririk; izan ere, dagoeneko badaude ildo horretako programa zehatzak, hala nola REPowerEU, InvestEU edo Berrikuntza Funtsa. Hiru neurri nagusi ditu: bi arau proposamen (bat industriaren emisioen murrizketa sustatzeko eta bestea produkziarako funtsezkoak diren lehengaien gainekoa) eta estatu laguntzen esparruaren erreforma, estatu kideei EBtik kanpo eskaintako dirulaguntzak berdintzea ahalbidetzen diena, Europako industriaren deslokalizazioak saihesteko.

## 2.3 EAEko sektore publikoaren erantzuna

### *Zerga itunduak*

Euskadik hirugarren errekor jarraitua lortu zuen 2023an diru bilketari dagokionez, ekonomiak bizi zuen une onari esker eta nazioarteko tentsio geopolitikoak gorabehera. Hain zuzen ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru ogasunek 18.212 milioi euro jaso zituzten batera, 2022an baino %6,3 gehiago. Aurreikuspenen arabera, gehikuntza horiek 2024an ere jarraituko dute, urrian Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 19.000 milioi euro biltzea aurreikusi baitzuten. Horiek horrela, laugarren errekorra jarraian lortuko litzateke, eta gainera, 1.000 milioi euro inguruko jauzietan. 15.963 milioi euroko zifrarekin hasi zen, pandemia gainditu ondoren; urtebete geroago 17.100 milioitiko gora izan ziren, eta 2023an 18.212 milioiko zifra erregistratu zen.

2024rako hiru aldundiek eredu fiskal berriaren oinarriak ezartzea aurreikusten da, trantsizio energetiko, sozial eta ekonomikoetara egokitze asmoz, erronka garrantzitsua baitira hiru horiek. Halaber, beste helburu batzuk izango dira familien aurrezkia, etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzea, gazteen emantzipazioa eta gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala murrizteko xedea.

Bilakaera positibo horri eutsi zitzaion testuingurua enpleguaren gorakadarekin lotuta egon zen. Izan ere, Euskadik gaur egun inoiz izan duen Gizarte Segurantzako afiliazio mailarik altuena du, milioi bat afiliazio baino gehiago baititu. Bilakaera horri esker, nominen atxikipenek igoera nabarmenak izan dituzte (%10,0), PFEZaren bidez bildutako diruaren hazkundera %9,0ra igoz eta historian lehen aldiz 7.000 milioi euroko langa gaindituz.

Zuzeneko zergapetzearekin jarraituz, sozietateen gaineko zergak lortu zuen hazkunde tasarik handiena (%21,0) zerga guztien artean. Zenbaki absolutuetan, 1.635,7 milioi eurotan kokatu zen, koronabirusaren aurreko mailak gaindituz eta finantza krisiaren aurreko mailetara hurbilduz. Diru bilketa osoan pisu txikia duen arren (%9 inguru biltzen du zerga horrek), azpimarratu behar da zergak izan zuen igoera handiak iradokitzen duela EAEko enpresen balantzeak onbideratuta daudela.

Zeharkako zergei dagokienez, eta diru gehien biltzen duen zerga nagusiarekin hasiz, BEZak oso portaera laua erakutsi zuen eta %0,1eko igoera baino ez zuen eskuratu. Bilakaera hori, neurri handi

batean, 2022. urtearen amaieran elikadurako eta energiaren esparruko oinarritzko produktu jakin batzuetarako (hala nola elektrizitatea) onartutako tipoen murrizketek azaltzen dute.

**Zerga itunduen bilakaera**

**31. taula**

Mila euro


	Diru-bilketa		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2023	2018	2019	2020	2021	2022	2023
PFEZ	7.085.533	5,4	5,7	-1,1	8,2	6,3	9,0
Sozietateen gaineko zerga	1.635.679	32,8	-11,7	-20,0	10,8	17,0	21,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	179.940	-2,4	59,8	-2,0	22,5	74,3	65,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	159.013	12,0	-7,4	-0,1	47,3	-15,1	4,1
Ondarearen gaineko zerga	176.178	13,3	-9,3	5,7	-3,2	-1,0	3,8
Kreditu entitateen gordailuen g/ zergak	29.738	-1,0	-1,6	14,3	-0,4	4,8	3,1
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/ zerga	-266	6,1	-32,0	25,6	-17,1	-97,4	-
<b>ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>9.265.815</b>	<b>10,2</b>	<b>1,6</b>	<b>-4,1</b>	<b>8,9</b>	<b>7,4</b>	<b>11,5</b>
BEZ	6.930.344	-3,3	3,3	-14,3	21,2	10,6	0,1
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	168.020	10,8	1,7	-13,7	29,9	-2,2	-5,9
Egintza juridiko dokumentatuen g/ zerga	36.464	20,9	1,1	-24,6	14,3	10,8	-19,6
Garraiobide jakin batzuen g/ zerga bereziak	27.254	20,0	7,9	-42,9	26,2	22,4	9,8
Fabrikaz. zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.434.655	-0,7	12,6	-17,1	14,6	-10,1	6,1
Aseguru sarien gaineko zerga	118.237	4,6	-0,3	1,1	31,2	7,5	5,1
Joko jardueren gaineko zergak	6.607	11,0	-5,9	10,0	-3,8	-29,9	43,0
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.884	-7,6	-20,8	-7,1	13,4	39,2	9,4
Iraungitako zergak	2	-23,5	70,2	96,3	25,9	98,2	-
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>8.833.994</b>	<b>-2,3</b>	<b>5,0</b>	<b>-14,8</b>	<b>20,1</b>	<b>8,0</b>	<b>0,6</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>112.678</b>	<b>11,0</b>	<b>-7,5</b>	<b>-30,3</b>	<b>19,7</b>	<b>-60,7</b>	<b>213,5</b>
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>18.212.486</b>	<b>3,5</b>	<b>3,3</b>	<b>-9,8</b>	<b>14,4</b>	<b>7,3</b>	<b>6,3</b>

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, zerga bereziek %6,1 areagotu zuten beren diru bilketa, ez hainbeste benetan bildu zen diru kopuruagatik, baizik eta foru aldundiek Estatuari emandako dirua aurreko urtekoa baino 99,4 milioi euro txikiagoa izan zelako. Hain zuzen ere, doikuntza hori aintzat hartu gabe, jaitsiera txiki bat izan zen, elektrizitatearen gaineko zergaren bilakaera negatiboaren ondorioz. Halaber, azpimarratu behar da 2023a izan zela ingurumenerako zerga berriak indarrean sartu ziren lehen urtea. Alde batetik, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia (25,4 milioi bildu ziren, Estatuarekiko doikuntza barne) eta, bestetik, zabortegietako hondakinen biltegien gaineko zerga (10,7 milioi).

Diru bilketaren hazkunde erritmoa zertxobait moteldu da azken bi urteetan (%7,3 eta %6,3, hurrenez hurren), baina gehikuntza tasa aurreko urteetako batez besteko aldakuntzaren gainetik kokatu zen. Bilketa horrek, aurreko aldietan bezala, BPGaren %20 inguruko pisuetan jarraitu zuen, PFEZaren garrantzi erlatiboa nabarmenduz, haren bilketa %8 inguruko pisua baitu. Aldiz, BEZaren protagonismoa jaitsi egin zen zifra horretatik %7,6ra, aipatutako tasen murrizketak negatiboki eraginda.

**Zerga nagusien diru bilketa 2005-2023. BPGaren %a**  
50. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta foru aldundien datuak erabilia.

*Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien jarduera ekonomikoa*

2023. urtean eutsi egin zitzaien 2022ko jarraibideei; Eusko Jaurlaritzaren diru sarrera arruntak BPGaren proportzio berean handitu ziren, eta, beraz, 2022ko pisu erlatibo bera mantendu zen BPGarekiko (%14,2). Urte horretan, susperraldi ekonomiko eta inflazio eragile handiak (BPG nominala %10,5 igo zen) %1,5eko jaitsiera eragin zuen ratio horretan. 2023an zehar, diru sarrera arrunten hazkundeari bereziki lagundu zion transferentzia arrunten gorakada nabarmenak, %5,3koa izan baitzen (foru aldundiek itundutako zergen bidez eskuratu zuten diru kopurua %6,3 handitu zen). Orain, hiru urte geroago, diru sarrera arruntak pandemiaren hasieran baino zortzi hamarren gehiago dira.

**Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2023. BPGaren %a**  
51. irudia



Iturria: Eustat. Sektorre publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Transferentzia arrunten barruan, aldundien ekarpenak BPGaren %13,2ra iritsi ziren, hau da, aurreko urtean baino %0,2 gutxiago; bestalde, Estatutik jasotako transferentziak hamarren bat baino zertxobait gehiago handitzen dira BPGaren %0,5era arte, eta horietatik %0,1 MRRtik datozen transferentzia arruntei dagozkie; azkenik, EBtik zuzenean datozen funtsak %0,1ean mantendu ziren.

Ondare sarreren kapituluan, interes tasen igoerak eta horiek kontu korronteen interesetara eramateak diru-iturri nabarmena ekarri zuten 2023an, 110 milioi (BPGaren %0,1), aurreko urteetan sartutakoarekin alderatuta, orduan ia ez baitzen ezer biltzen. Kontrako noranzkoan, tasak eta bestelako diru sarrerak %15,0 jaitsi ziren 198 milioira arte (BPGaren %0,2).

Portaera bera erakutsi zuten gastu arruntek (%13), eta pisu bera izan zuten 2022arekin alderatuta. Kapituluak, lau osagaiek ia aurreko urteko proportzio bera dute. Lehenik eta behin, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak BPGaren %5,0 dira –atal honetan Osakidetzaren programa kontratuak sartzen dira, eta horien funtsezko zati bat langileen ordainsariari dagokio, BPGaren %2,8 hartzen baitu–. Ondoren, transferentzia arruntak (%4,9), langileen gastuak (%2,9) eta, azkenik, finantza gastuak (%0,2).

Aurrekoaren ondorioz, aurrezki gordinak konstante iraun zuen termino erlatiboetan (%1,2), eta horri esker, MRRren kapital-transferentzien diru-sarrerekin batera (201 milioi), kapitaleko gastuak finantzatu ahal izan dira, BPGaren %1,7ra iritsi arte, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan izan duen bultzada inbertitzaileari eutsiz.

Atzeraldi Handiaren osteko aurreko hamarkadan, 2010etik ezarritako zerga politikaren aldaketa murriztaileak eragin zuen inbertsio publikoaren osagaia izatea aldi horretako doikuntza elementu nagusia, eta pixkanaka murrizten joan da haren pisua, Eusko Jaurlaritzarentzat kapitaleko gastuak BPGaren %2,0 izatetik (euskal administrazioarentzat %4 izatera iritsi zen) 2019an %1,1 baino gutxiago izatera.

Azken hamar urteetan EAEko ekonomiaren ezaugarri izan den inbertsio publikoaren maila baxu hori (batez beste, BPGaren %1,2 izan da), ekonomia sustatu eta bultzatu dezakeena, 2021etik aurrera indartu ahal izan da; lehenik eta behin, pandemiaren ondoren onartutako politika fiskala malgutzeko neurriengatik (ihes egiteko arau fiskalen etendura eta Estatu Laguntzen Aldi Baterako Esparru Berria), zorraren jaulkipen bidez. Eta, bigarrenik, prezioen hazkunde garrantzitsuen ondoriozko diru bilketaren igoeragatik, metatutako geldikinen koltxoira eraman baitzen (2022ko abenduan, 1.900 milioi inguruko zenbatekoarekin) eta 2023ko diru bilketaren aurreikuspenen gorakadagatik (azkenik, %6,5 hazi ziren).

Bi faktore horiei esker, azken urteetan metatutako diruzaintzako soberakinen diru kopuru handi samarra sartu da Eusko Jaurlaritzaren inbertsiorako partidetan. Hain zuzen ere, soberakin horietatik

215,4 milioi euro inbertsioetarako erabili ziren 2023. urtean, diruzaintzaren maila funtsean ahuldu gabe.

Gerakin horiek inbertsioen bidez bideratzea eta erabiltzea hainbat programaren bidez gauzatu da. Alde batetik, Hitzartuz 2022-2023 ekimenean ebatzi gabe geratzen ziren azken kontuak gauzatzen jarraitu da, Ukrainako gerrak eta prezioen igoerak eragindako ondorioei aurre egiteko zenbait neurri biltzen zituena, bereziki sektore behartsuenei lagunduz; eta, beste aldetik, gobernuaren eta erakundeen arteko hiru jarduera programa behinenak gauzatzen jarraitu da: Lehentasunezko Jarduketa Eremuetarako Ezohiko Funtza (ZAP) 2021-2023, Ezohiko Inbertsioen Plana 2021-2023 eta Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Plana 2022-2024.


ZAPen helburua da EAEn egiturazko langabezia tasa handia eta eskualde horiek aktiba ditzaketen enpresa proiektuen gutxiegitasuna duten eskualdeak dinamizatzea. Horretarako, hasieran baldintzak betetzen zituzten hiru eskualde identifikatu ziren: Ezkerraldea/Meatzaldea, Enkarterri eta Oarsoaldea. Horietan, hogeit bat proiektu bultzatu ziren, besteak beste: Osasun Poloa, banda zabalaren hedapena eta landaguneen digitalizazioa, eta zahartzearen erreferentziatzeko zentroa (Adinberri). Eskualde horiei Aiaraldea batu zitzaion 2021eko azaroan, eta gaur egun beste bi eskualde, Debabarrena eta Busturialdea/Urdaibai, sartzeko prozesuan daude. 2023ko abenduan, funts horren exekuzio egoera ia erabatekoa izan da hasierako hiru eskualdeetan: Ezkerraldean (%92), Enkarterri (%94) eta Oarsoaldean (%101). Aiaraldean, berriz, oso aurreratuta dago (%64), geroago hasi zela kontuan hartuta.

Bestalde, Ezohiko Inbertsioen Plana amaitu zenean, 24 milioi euro egikarituak ziren, jarduera teknologiko eta digitaletan fokatuta.

Azkenik, 2022-2024 aldirako Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Plana EAEko erakundeen baliabide endogenoek eta Europako baliabideek ere finantzatu dute, azken horiek MRRtik eratorriak. Erakunde arteko Plan honen helburua herrialdea eraldatzeko proiektu traktoreak bultzatzea da, eraldaketa energetiko-ekologiko, digital eta sozial eta sanitarioa eta Garapen Jasangarriaren Helburuei (GJH) lotutako erronkak bizkortzeko ahalegina areagotuz, pandemiaren aurretik EAEko erakundeen agendan lehentasunezko tokian baitzeuden. 2023. urtean, 152,97 milioi euro inbertitu ziren guztira, hau da, urte baten faltan, planaren aurreikusitako guztizkoaren %50,2ko gauzatze maila. Metatutako terminoetan, 265,6 milioi euro inbertitu dira guztira.



**Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapitaleko gastua eta defizita 2005-2023. BPGaren %a**  
**52. irudia**




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzak egin zuen inbertsio globala aztertzen denean, 2023. urtean 1.544 milioi egikaritu zirela ondorioztatzen da, eta diru kopuru horrek ekarri du 2022. urtearekin alderatuta kapitaleko gastuak %15,1 handitzea, BPGaren %1,7, 2019an hasitako goranzko bideari jarraiki, eta Atzeraldi Handiaren aurreko hamarkadako gutxieneko %2ko zifretara hurbiltzen da. Aipatzekoa da 2023ko inbertsioen gauzatze maila hobetu egin dela, %75era iritsi baitzen, 2022an lortutakoa baino 6,6 puntu gehiago direlako.

Kapitaleko gastuen igoera hori ezin izan zen erabat finantzatu bertan sortutako aurrezki gordinarekin eta MRRtik jasotako funtsekin bakarrik; beraz, 2022an abiarazitako finantzaketa ahalmena (283,5 milioi euro) murriztu egin zen, 2023an 97 milioiko finantzaketa premia bihurtu arte; hau da, %0,1eko defizita, Itunaren Batzorde Mistoak 2023ko ekitaldirako ezarritako muga baino bost hamarren txikiagoa, eta, beraz, aurrekontu orekaren urkilaren barruan jarraitzea lortu zen.

Finantzaketa beharren gorakadak eta amortizazioei eustek (%0,9) zorpetze beharra hiru hamarren handitu zuten, %0,9tik %1,2ra. Horren zati bat zorraren jaulkipen handiagoaren bidez estali zen, 694 milioi eurokoa, BPGaren %0,8 baita.

**Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharren analisia 2005-2023. BPGaren %a**  
53. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Zorraren igoera hori bideratzeko, Eusko Jaurlaritzak finantzaketa jasangarriaren aldeko apustuari eutsi zion 2023an, eta finantzaketa beharrak estali zituen, 700 milioi euroko bonu jasangarrien jaulkipen berri baten bidez, zazpigarrena. Bonuen eskaria eskaintza baino zazpi aldiz handiagoa izan zen eta %3,5eko interesean finkatu zen. Nabarmendu behar da 2021az geroztik Eusko Jaurlaritzaren epe luzerako finantzaketa bonu jasangarrien bidez soilik egin dela, eta, beraz, hura finantzatzeko funtsezko tresna bihurtu dela. Urtearen amaieran, zorpetzearen %43ra eta zor publikoaren tituluen %61era iristen ziren.

Inflazioaren tentsioek 2022an abiarazitako moneta politikaren bat-bateko aldaketa zorraren batez besteko kostuaren bilakaeran islatu da, zeina %2,25era igo baitzen 2023an. Batez besteko bizi-tza, aldiz, pixka bat murriztu zen, 9 urtetik beherakoa izateraino.

Epe laburreko finantzaketari dagokionez, hau da, ordaintzeko dauden obligazioen eta urte amaieran kobratzeko dauden eskubideen arteko aldeak finantzaketa iturri garrantzitsua izaten jarraitzen du, eta BPGaren %0,8 inguruan mantentzen da.

**Zorraren kostua eta biritza**  
**54. irudia**



Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.


Gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren zorraren bolumenta 160 milioi eurotan murriztu zen 2023an, eta 10.661 milioi eurora iritsi zen. BPGari dagokionez, zortzi hamarren jaitsi zen, eta, Nafarroa eta Kanariekin batera, BPGarekiko zorpetze txikiena duten hiru erkidegoen artean dago kokatuta. Jaitsiera horrekin, 2019ko zifretara eta egoerara itzuli da, %11,7ra (Eustatek zenbatetsitako BPGaren gainean neurtuta), zor publikoaren beheranzko eta doikuntzako ibilbideari jarraituz, dagoeneko zerumugan dauden neurri fiskal berrietara egokitu ahal izateko. Hala, 2024a arau fiskaletara itzultzeko trantsizioko urtea da, eta 2025a da behin betiko aplikatzeko benetako muga.

Neurri horien ondorioak berehala etorri dira eta duela gutxi Europar Batasunak zazpi herrialderi (Frantzia, Italia, Belgika, Malta eta Eslovakia eurogunean, eta Hungaria eta Polonia kanpoan) kargu

hartzea erabaki du, defizit fiskal handiak dituztelako. Horrek esan nahi du diziplina fiskalera itzuliko dela pandemiaren ondorioz arau fiskalak alde batera utzi ondoren, malgutasun apur batekin berreskuratzeko eta egungo gastu handieneko egoerara egokitzeko, adibidez, defentsan. Era berean, gehiegizko defizitaren prozedura irekitzea esan nahi du (BPGaren %3tik gorako defizita edo zor publikoa BPGaren %60tik gorakoa izatea, arrazoizko erritmoan murrizten joateko aurreikuspenik gabe). Horretarako, neurri zuzentzaileak hartu behar dira, eta, teorian, isunekin zigortzeko aukera dago ez-betetzen kasuan, nahiz eta isun horiek inoiz ez diren gauzatu.

Europako arau fiskal berriak aktibatzeko, epe ertainerako kontsolidazio fiskaleko plan bat diseinatu eta ezarri beharko dute Europar Batasuneko estatu kideek. Plan horretan, gastu norabideak eta lehentasuneko erreformak eta inbertsioak ezarriko dira, egiturazko defizit publikoa zuzendu eta zor publikoa murriztu ahal izateko. Plan hori Euskadira eramango da Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren bidez.

**Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2023. BPGaren %a**  
**55. irudia**




Iturria: Eustat. Sektorre publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Foru aldundiei dagokienez, diru sarrera eta gastu arruntek 2012an hasitako goranzko eta pareko bideari jarraitu diote. 2023. urtean, 2022an lortutako zifrei eutsi zitzaizkien, eta diru sarrera arruntak

BPGaren %21era iritsi ziren; gastuak, berriz, %20ra heldu ziren, nahiz eta aurrezki gordina bi hamarren jaitsi, %1eraino. Sortutako aurrezki gordin hori, kapitalaren 164 milioiko sarrerek lagunduta, nahikoa izan zen egindako kapitaleko gastuei aurre egin ahal izateko, 851 milioiko zenbatekoan (BPGaren %0,9). Inbertsiorako ahalmen horrek 2022an egindakoa indartzen du, hura 828 milioikoa izan baitzen. Horri esker, foru aldundiek %0,3ko superabitarekin amaitu zuten 2023ko ekitaldia, 2022an baino hamarren bat gutxiagorekin. Beraz, foru aldundiek finantzaketa ahalmenaren etengabeko bide historikoa mantentzen eta indartzen dute.


**Foru aldundien aurrezkiak, kapital gastuak eta defizita 2005-2023. BPGaren %a**  
56. irudia



Iturria: Eustat. Sektorre publikoaren aurrekontu gauzatzea.


Hala ere, foru aldundiek etorkizunera begira egin duten inbertsiorako apustuari eta finantza aldaketei eusteak, aurreko urteetako amortizazioen antzeko ehunekoekin (BPGaren %0,3), zorpetzeko beharrak hamarren bat handitzea ekarri du (%0,2), eta, ondorioz, baita zorraren jaulkipenen zenbatekoa ere, 226 milioi euroko balioarekin.

**Foru aldundien zorpetze beharren analisia 2005-2023. BPGaren %a**  
**57. irudia**



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

**Administrazio Autonomoaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %a**  
**58. irudia**



Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun eta Funtzio Publiko Ministerioa eta INE (eskualdeko kontabilitatea).

Azkenik, EAEko administrazioen baterako zorra %1,3 baino gehiago murriztu zen 2023. urtean. Beherakada horretan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzaren aipatu den jaitsiera horrek eta foru aldundien zorraren ehuneko puntu erdiko murrizketak. Udalek, ordea, ia beren zorpetzeari eutsi zioten, BPGaren %0,4 baita.

#### *Eusko Jaurlaritzak egindako gastuaren analisi funtzionala*

Eusko Jaurlaritzak 2023. urtean gauzatutako gastua %5,0 hazi zen, eta, beraz, aurreko bi ekitaldietan izandako hazkunde erritmoa moteldu egin zen, urte horietan gehikuntza tasa %8ra iritsi baitzen. Hori horrela izanda, gastu publikoaren pisu erlatiboa hamarren bat jaitsi zen, BPGaren %15,8ra arte.

Baliabide gehien osasungintzara bideratzen dira. 2023an, 4.756 milioi izan ziren, aurrekontu guztiaren herena baitira, 2022aren aldean %3,0ko igoerarekin. Gehikuntza tasa 2022koa baino zazpi puntu txikiagoa izan zen, Osakidetzako langileen gastuak gutxiago hazi zirelako. Aurreko urtean gastu horiek igoera nabarmena (%14) izan zuten garapen profesionalaren aparteko ordainketaren ondorioz, eta 2023ko ekitaldian pixka bat jaitsi ziren (%2,5), 2.524 milioira arte. Farmaziako gastuak %2 baino ez ziren hazi eta 560 milioira iritsi ziren. BPGari dagokionez, osasungintzako gastuak hamarren bat baino gehiago jaitsi ziren, %5,21eraino, nahiz eta pandemia aurreko urteetatik gora mantendu ziren.

Gastu bolumenaren araberako hurrengo atala hezkuntza da, aurrekontuaren ia laurdena biltzen baitu. Gastuak 230 milioi gehitu ziren, hau da, %7,1, eta 3.459 milioira iritsi ziren, batez ere partida esanguratsuenak handitu zirelako: bigarren eta lanbide hezkuntzakoak eta haur eta lehen hezkuntzakoak, 124 eta 71 milioi hazi baitziren, hurrenez hurren. Hazkunde horren arrazoi nagusia, batez ere, hezkuntza itunetara eta langile gastuetara bideratutako baliabideen hazkundera da, %9 eta %6 gehitu baitziren, hurrenez hurren. BPGarekiko pisu erlatiboa pixka bat handitu zen, %3,8raino.

Prezioen igoerak kolektibo ahulenei eragin zien bereziki, eta politika publikoek kolektibo horretan dituzten ondorioak arintzen lagundu zuten. Zehazki, gizarteratzerak bideratutako baliabideak, Lanbide erakunde autonomoaren bitartez kudeatzen baitira, nabarmen handitu ziren (%40) 677 milioira iritsi arte, BPGaren %0,75era iritsiz. Diru sarrerak Bermatzeko Errentara eta etxebizitzako

gastuetarako prestazio osagarria bideratutako zenbatekoen batura nabarmen handitu zen, %21, 478 milioira arte. Era berean, 2023 izan zen Estatuko bizitzeko gutxieneko diru sarreraren kudeaketa ekonomikoa Eusko Jaurlaritzari transferitu zitzaion lehen urtea, eta ekitaldi oso batean izan zuen eragina, eta laguntza horien zenbatekoa 185 milioi eurokoa izan zen.

Berdintasunezko gizartea lortzeaz gain, biztanleriaren zahartzea da aurre egin beharreko beste erronka nagusietako bat. 2023an, 2030erako Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren barruan, seme-alabak dituzten familientzako laguntzen dekretu berri bat onartu zen. Laguntza horien guztizko gastua 92,6 milioikoa izan zen, eta, horren ondorioz, familia eta komunitate politikako programak %170 baino gehiago egin zuen gora.

Familia bat sortzeko aukera zehazten duen beste funtsezko alderdietako bat etxebizitza bat eskuratzea da. Ildo horretan, etxebizitzara bideratutako partidak ere nabarmen handitu ziren, %52, 240 milioi euroraino. Programa honen barruan kontuan hartu diren inbertsioak 101 milioi izan ziren, hots, aurreko urtekoak baino 20 milioi gehiago. Alokabideri alokairura bideratutako sustapenak erosteko bideratutako zenbatekoa nabarmentzen da, 30 milioi euroekin. Zenbateko horiei gehitu behar zaizkie etxebizitzaren arloko jarduketak finantzatzeko erabilitako MRRtik datozen baliabideak, 50 milioi eurokoak izan baitziren, eta energia eraginkortasunarekin lotutako laguntzak izan ziren garrantzitsuenak.

MRRren funtsei esker, Eusko Jaurlaritzak gastuko politiketarako partidak osatu eta handitu ditu, batez ere inbertsioei dagokienez. 2021az geroztik, urte horretan hasi baitziren jasotzen, funts horiekin 740 milioi euroren obligazioak konprometitu dira, eta horietatik %73 inbertsioak finantzatzeko erabili dira. 2023an, MRRri lotutako gastuak, guztira, 308 milioikoak izan ziren (BPGaren %0,3), 2022an baino 20 milioi gutxiago.

Hain zuzen ere, 2022an sektore onuradun nagusietako batek, trenbideko garraioak, jasotako MRR baliabideen zenbatekoa nabarmen murriztu zen, 42 milioi eurotik milioi bat eurora. Hala eta guztiz ere, baliabideen murrizketa hori, hein handi batean, finantzaketa propioarekin konpentsatu zen, 38 milioi handitu baitzen, 327 milioiraino. Guztira, oinarritzko azpiegituretako eta garraioetako gastuak BPGaren %0,51ra iritsi ziren.

Azpiegituretako inbertsioekin batera, ikerketa eta garapeneko gastuak funtsezkoak dira ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko. 2023an, ikerketa zientifiko eta aplikatuaren gastua BPGaren %0,46 inguruan mantendu zen. Zenbateko horri beste programa batzuetan sartutako



gastuak gehitu beharko litzaizkioke, hala nola osasunaren arloko ikerketa, hezkuntza berrikuntza edo industria berrikuntza.

Bestalde, produkzio sektoreetara bideratutako politiken gastua ia %10 jaitsi zen, BPGaren %0,41eraino. 2022an, Ukrainako gerraren krisiari eta prezioen igoerari aurre egiteko, erreskate ekonomikorako funtsa eratu zen. Horren bidez, aparteko laguntza batzuk eman zitzaizkien sektore kaltetuenei: nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, merkataritza eta industria. Hala ere, 2023an, prezioek eta jarduera ekonomikoak bilakaera ona erakutsi zuten, neurri horietako gehienak berritza ez zen beharrezkoa izan. Industriara berariaz bideratutako programek izan zuten atzerakadarik handiena (33 milioi), %20ko jaitsierarekin. Aitzitik, energia eta meatze politika eta garapeneko partidak ia 13 milioi egin zuen gora, litiozko bateriak garatzeko BASQUEVOLT proiektu estrategikoan egindako inbertsioen ondorioz.


Turismoaren sektorea izan zen Next Generation funts europarren onuradun handienetako bat. 2023an, baliabide horiek bikoiztu egin ziren, eta sektoreak 53 milioi euro baino gehiago jaso zituen; gehienak udalei, toki erakundeei eta aldundiei transferitu zitzaizkien, turismoaren jasagarritasuneko planak bultzatzeko. Funts propioekin finantzatutako programek, bestalde, gastuak 2 milioi baino gutxiago murriztu zituzten, 22 milioi guztira.

Erregulazio ekonomikoaren atalean, 2023an, Finantzen Euskal Institutuaren (FEI) legea onartu zen. Lege horren bidez, sendotu egiten da FEIk Eusko Jaurlaritzaren finantza politikan duen eginkizun behinena, eta hiru funtzio nagusi esleitzen zaizkio: Jaurlaritzak funts eta sozietateetan dituen finantza partaidetzak izatea; Eusko Jaurlaritzaren sustapen ekonomikoko politikei lotutako finantza tresnak kudeatzea; eta kreditu jarduera 2 eta 5 milioi euro arteko eragiketetan kontzentratzea, finantza erakundeekin batera inbertitzeko estrategiei jarraituz. FEIri 60 milioi euro transferitu zitzaizkion, eta horietatik 40 milioi Finkatuz funtsera bideratu ziren. Funts horren helburua da Euskadin trakzio enpresa handiak errotzea bermatzea. Ekarpak berri horrekin, 300 milioi euroko kapitala lortu zuen. Guztira, erregulazio ekonomiko eta finantzarioko gastuak BPGaren %0,13koak izan ziren.

Azkenik, 2023an diru-politika gogortu egin zen, eta interes tasen igoera zorraren zerbitzuan islatu zen, BPGaren %1,07 izan baitzen (2022an baino %0,04 gehiago). Hori horrela izanda, zorraren amortizazioa %4,0 handitu zen 778 milioi euroraino, eta horri lotutako finantzazioko gastuak ia %50ean igo ziren, 195 milioi eurora iritsi arte, azken zortzi urteetan inoiz jaso den zifrarik handiena baita.

Azken batean, 2023an gizarte politikei emandako laguntza mantendu eta indartu zen, EAEko ongizate estatuaren funtsezko zutabe gisa, eta Eusko Jaurlaritzak sustatu zituen, MRRren funtsen osagarriarekin. Inbertsio horiek trantsizio teknologiko-digitek eta energetiko-klimatikoek eragindako erronkei aurre egiten eta garapen jasangarri eta inklusiboa lortzeko beharrezkoa den eraldaketa ekonomikoari aurre egiten lagunduko diote gure ekonomiari.

**Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2023). BPGaren %a**  
**59. irudia**



Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


## **2.4 Next Generation EB programaren aukerak**

### *Europar Batasunaren lehiakortasunerako mehatxua*

Europak planetako eskualde berritzaile, seguru eta oparoenetako bat izaten jarraitzen du oraindik, baina AEBekiko atzean geratzen ari da, eta Txinarekiko lekua galtzen ari da funtsezko hainbat parametrotan. Azken hamarkadan biztanleko BPGak izan duen bilakaerak erakusten du bilakaera hori (60 irudia). Europako ekonomiek erakusten duten per capita BPGaren hazkunde neurritsu eta erritmo desberdinekoak ez dator bat AEBek erakusten duten etengabeko hazkundearekin eta Txinak erakusten duen hazkunde bizkorrarekin. Beste alarma seinale batzuk berrikuntza adierazleen bilakaeratik eratortzen dira, hala nola patente teknologikoen eta inbertitzaile erakargarriaren adierazleen kopurutik, hala nola atzerriko inbertsio zuzenaren mailetatik (61 irudia). Horiek horrela izanda, patente teknologikoak, gorabidean dauden funtsezko merkatuetako lehiakortasunaren adierazle gisa, nabarmen ugartu dira Txinan, eta Europa erritmoari eusteko borrokan ari da. Zuzeneko atzerriko inbertsioari dagokionez, maila altuan dago EBn, baina nabarmen jaitsi da azken hamarkadan; AEBetan, ordea, goranzko bidea hartu du, krisi pandemikoaren ondoren.

Europar Batasunaren lehiakortasunari egin diezazkiokeen mehatxuen artean, hiru nabarmenago azaldu dira azken urteotan. Lehenengoak planetako ekonomia nagusietan nagusitu den olatu protekzionistarekin du zerikusia, eta argi eta garbi gauzatzen ari da AEBetako Inflazioa Murrizteko Legean (IRA, ingelesezko sigletan), 2022ko udan AEBetako hazkundea bultzatzeko eta bere industriari teknologia garbiagoetara bideratzeko trantsizioan abantaila lehiakor bat eskaintzeko abian jarritako dirulaguntza industrialen eta murrizketa fiskalen pakete batekin. Bigarren mehatxua Europako errealtate energetiko berriaren ahulezia garrantzitsuak azaleratzearekin lotuta dago, kanpoarekiko mendekotasun handia baitu, energiaren merkatuak Europar Batasunean behar bezala ez integratzearekin eta eskala handian energia berriztagarriak biltegitratzeko eta sortzeko proiektuetan inbertsioak sustatzeko tresnak garatzeko premia larriarekin. Hirugarren mehatxua gero eta zalantzazkoagoa eta aldakorragoa den testuinguru geopolitikora egokitze zailtasunetik dator.


**BPG per capita (\$ korranteak)**  
**60. irudia**



Iturria: Munduko Garapenaren Adierazleak (Munduko Bankua).

Lehiakortasunari egiten zaion mehatxu hirukoitz horrek estatu kideen eta Europar Batasuneko eskualdeen erantzun urgentea eta koordinatua eskatzen du. Lehenik eta behin, Europako industria estrategia bat diseinatu behar da, karbono gutxiko ekonomia batera modu adimentsuan joan ahal izateko, finantza publikoen erabilera eraginkorra bermatuz eta Europa mailan bidezko garapena sustatuz. Estrategiak honako hauek ekarriko ditu berekin: atzerriko sorospenekin lehiatzeak Europako zergadunei ekarriko dien zama handiagatik arreta handiz hautatzea; apustu handiagoa egitea I+Gko gastua bultzatzeko, publikoa zein pribatua, Europa balio erantsi handiko ondasunak ekoizten dituen eskualde berritzailea izaten jarraituko duela bermatzeko; finantza tresna edo funts subirano bat abian jartzea, estatu kideen ekarpenekin, industriarako finantzaketa publikoa eta pribatua mobilizatzeko; eta gobernantza arinagoa eta operatiboagoa bultzatzea, Europako administrazioen esku dagoen industria politikako tresnen multzo zabalaren potentzial guztia ateratzeko.

**Patente teknologikoak eta atzerriko inbertsioa**  
**61. irudia**



Iturria: WIPO eta World Development Indicators datu-basea (Munduko Bankua).

Halaber, Europa une kritikoan dago, non errealitate energetiko berrietara egokitzea inoiz baino erabakigarriagoa den. Krisi klimatikoari buruzko kontzientzia gero eta handiagoarekin eta nazioarteko arintze politiken buru izateko beharrarekin, Europar Batasunak energia iturri jasangarriago eta berriztagarriagoetara jotzeko trantsizioa sustatuko duten politika sendoak garatu behar ditu. Horrek, teknologia garbietan inbertitzeaz gain, energia eraginkortasuna sustatzea eta dauden azpiegiturak modernizatzea dakar. Orobat, Europak prest egon behar du energia segurtasuneko erronkei aurre egiteko, iturriak dibertsifikatuz eta erregai fosilekiko mendekotasuna murriztuz.

Azkenik, Europako ekonomiak erronka handiei egin behar die aurre, eta egoera geopolitiko ezegonkor eta aldakor batera egokitu behar du. Merkataritzaren alorrean dauden tentsio handiek, finantza merkatuetako gorabeherak eta hornidura kateetako disrupzioek markatutako ingurune global batean, Europar Batasunak bere oparotasun ekonomikoa babesteko lan premiazkoa egiten du, bere balio kate nazionalak hobetuz, inportazioekiko mendekotasuna murriztuz eta interakzio diplomatiko proaktibo eta inklusiboago berri bat sustatuz "Hego globala" delakoarekin.

### *Europako ekonomia modernizatzeko inbertsio-ofentsiba*

Europak energiaren trantsizio digital bikoitzaren epe luzerako helburuak arrakastaz lortzeko, erresilientzia ekonomikoa indartzeko eta segurtasuna indartzeko duen gaitasuna, multilateralismoa sustatzen duen bitartean, berez lotuta dago bere inbertsio politikarekin, bai kuantitatiboki (zenbat inbertitzen den), bai kualitatiboki (zertan inbertitzen den). Ildo horretan, Europaren inbertsio-politikak arina, egokitzaila eta epe luzerako helburu estrategikoekin lerrokatua izan behar du, eta, horrela, eskualdea etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta etengabe aldatzen ari den mundu honetan sortzen ari diren aukerak aprobetxatzeko prest dagoela ziurtatu behar du.

Datozen urteetan eskatuko diren inbertsio gehienak, publikoak zein pribatuak, trantsizio energetiko-digital bikoitzarekin lotuta egongo dira. Esate baterako, kalkuluen arabera, Europar Batasunak 2030erako karbono isurketak %55 murrizteko, 1990eko isurketekin alderatuta (helburu hori "fit for 55" izenez ezagutzen da), beharrezkoa da urteko inbertsio gehigarri bat egitea, barne produktu gordinaren (BPG) %2aren baliokidea, inbertsio publikoa %1etik gora haztea espero ez denean, eta, beraz, sektore pribatuak gaingitu beharko du arrakala.

Erronka, beraz, Europako ekonomia modernizatuko duten inbertsioei ekin ahal izateko behar beste finantza baliabide mobilizatzea da, eta, ildo horretan, Europako banku elkartzeen eta kapital merkatuen bateratzeko prozesua atzeratuta egotea desabantaila handia da. Jakina, 2014az geroztik sortzen ari den, eta laster gauzatuta egongo den, banku sektorerako arau esparru eta esparru instituzional erkidea sendotzea beharrezkoa eta garrantzitsua izango da norabide horretan, nahiz eta baliteke banku finantzaketarako potentziala handitzea nahikoa ez izatea, ez bailuke bermatuko banku sisteman erabili ohi den atalasetik gorako arrisku mailak dakartzaten inbertsioetarako finantzaketa. Hori dela eta, aditu askok Europar Batasunean kapital merkatuen batasunean premiaz sakontzeko beharraren alde egiten dute, proiektu arriskutsuenen finantzaketa errazteko.

Halaber, proiektu arriskutsu horietako asko estrategikotzat jotzen dira Europako eraldaketa ekonomikorako, eta, beraz, sektore publikoa ari da inbertsio horien berezko arriskuaren zati handi bat bere gain hartzen. Bestalde, estatu eta eskualde mailako administrazio guztiek ez dute behar den eremu fiskala inbertsio horiek premiaz egiteko. Hori dela eta, Europar Batasunak mekanismoak antolatu behar ditu, herrialdeek eta eskualdeek kontinenteko ondasun publiko nagusietan egiten dituzten ekarpenek gutxieneko abiadura onargarrian aurrera egiten dutela bermatzeko.

Ondorengo taulan, gaur egun indarrean dauden inbertsioa finantzatzeko Europako programa nagusiak jasota daude. Nabarmentzekoa da aurrekontuaren ikuspegitik egiten ari den ahalegina eta hamarkada honen hasieran Europak inbertsioaren alde egindako salbuespeneko apustua. Oso ahalegin handia da, kontuan hartzen badugu EBren aurrekontu osoa urteko 200.000 milioi eurotik beherakoa dela (EBko BPGaren %1, gutxi gorabehera). Aurrekaririk gabeko apustua ere bada, MRRaren izaera antiziklikoaren eta programa horrek lehen aldiz mutualizatutako zorraren bidez finantzatzeak dakarren berritasunaren aldekoa. Hala ere, Europako erakundeek inbertsio ahalegina ez da nahikoa geopolitika berriak, deskarbonizazioak, digitalizazioak eta konektibitatea eta eskualdeen arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak hobetzeak Europan dituzten erronkei erantzuteko.

**Europako inbertsioa finantzatzeko indarrean dauden programak**  
**32. taula**

Programa	Denboraldi	Aurrekontua (MM €)	Tipologia
FEDER	2021-27	274	Laguntzak
Horizon Europe	2021-27	95,5	Laguntzak
MRR	2021-26	648	Laguntzak eta maileguak
REPower EU	2022-26	20*	Laguntzak
InvestEU	2021-27	26,2	Kreditu hobekuntzak, maileguak, akzioak eta arrisku-zorrak

(\*) REPower EU funtsen 300 MM €horietatik 20 MM €bakarrik dira "diru berria". Gainerakoa, batez ere, erreklamatu gabeko MRR funtsetatik dator.

AEBekiko mendekotasuna murrizteko defentsaren alorrean egin behar diren inbertsioekin lotutako beharrez gain, Europak trantsizio berdean ere inbertitu behar du, ez bakarrik krisi klimatikoagatik, baita lehiakortasun kontuengatik ere, potentzia handiak energiaren kostuak eta inbertsio berdeak diruz laguntzen ari diren testuinguruan. Era berean, Europak interkonexio energetikoak behar ditu bere sistema elektrikoaren malgutasuna eta erresilientzia areagotzeko, baita estatu kideek energia mota desberdinen ekoizpenean dituzten abantaila konparatiboak aprobetxatu ahal izateko ere.

Inbertsio horiek guztiak egiteko, Europako erakundearen lidergoaz gain, estatu kideek, eskualdeek eta sektore pribatuak zeregin garrantzitsua dute. Next Generation EU Programak erakunde publikoen maila guztietako ahalegin eraldatzaileak eragile pribatuenekin lerrokatzeko estrategiaren adibidea ematen du, pandemia osteko susperraldi eta eraldaketa ekonomikorako esparru integrala eskainiz. Programa horren osagai nagusia MRR da, eta Europa, nazio eta eskualde mailako erakunde publikoek lankidetzan estua dute finantzatzeko proiektuak zuzenean edo eragile pribatuekin lankidetzan bultzatzeko, gobernu maila guztietako politiken koherentzia eta eraginkortasuna bermatuz. Hori horrela izanda, estatu kideek berreskuratze eta erresilientzia plan nazionalak aurkeztu behar dituzte, funtsak EBren lehentasunekin lerrokatuta nola erabiliko diren zehazteko. Lehentasun horien artean, klima neutraltasuna eta eraldaketa digitala nabarmentzen dira.

Europako Batzordeak, aurtengo otsailean argitaratu zuen MRRaren tarteko ebaluazioan, kalkulatu du 2019tik 2025era bitartean inbertsio publikoaren aurreikusitako igoeraren erdia inguru EBren aurrekontuaren kontura finantzatzeko inbertsioei zor zaiela, eta, bereziki, MRRari, 2019an %3,0 izatetik 2023an %3,3 izatera igaro baita. 2024an, inbertsio publikoa BPGaren %3,4ra iristea aurreikusten da.

Batzordearen ustez, Next Generation EU Programak EBko BPG erreala %1,4 handitu dezake 2026an, suspertze tresna hori ez izatearen hipotesiarekin alderatuta. Eraitza horiek ez dute barne hartzen berreskuratze planetan jasotako erreformen hazkunderako aurreikusitako eragin mesedegarri garrantzitsua, eta ondorio hori epe luzera gertatzen da.

Tarteko ebaluazioak hobetu daitezkeen alderdi batzuk ere aipatzen ditu. Hala, adierazi du berreskuratze eta erresilientzia planak egiteko eta gauzatzeko malgutasun nahikoa behar dela, balio erantsia eta aplikazio arina mantenduko direla bermatzeko. Era berean, funtsezkotzat jotzen du estatu kideek administrazio gaitasun egokia izatea MRR azkar aplikatzeko, bai eta eskualdeetako eta tokiko agintarien eta gizarte solaskideen parte hartze estua ere.



*Espainiako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana eta Euskadin izan duen hedatzea*

Espainiako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak (PRTR), 2021eko uztailaren 13an onartu zenak, 2021-2026 aldirako berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia estrategia espainiarra definitzen du. Guztira, 102 erreforma eta 110 inbertsio egituratzen dituen plana da, eta bertan ezartzeko funtsak esleitzen dira. Espainiako PRTRk 162.800 milioi euro mobilizatu nahi ditu 2021-2026 aldian; horietatik 83.000 milioi maileguei dagozkie, eta gainerakoak itzuli behar ez diren dirulaguntzei. Maileguen zatia eta dirulaguntzen zati bat Espainiak 2023ko ekainean aurkeztutako eta Europako Batzordeak urte horretako urrian onartutako Planaren Eranskinari dagozkio.

***Next Generation funtsen esleipena Espainiako Estatuari***  
***33. taula***

<b>Programa</b>	<b>Diru laguntzak</b>	<b>Maileguak</b>	<b>Total</b>
<b>Hasierako PRTR</b>	<b>69.500</b>		<b>69.500</b>
MRR hasierako esleipena			
<b>PRTR gehigarria</b>	<b>10.300</b>	<b>83.000</b>	<b>93.300</b>
MRR funts gehigarriak	7.700		7.700
REPower EU	2.600		2.600
<b>Espainia guztira</b>	<b>79.800</b>	<b>83.000</b>	<b>162.800</b>


Horiek horrela izanda, PRTRaren ezarpena Espainiako Estatuan inoiz egin den sustapen eta eraldaketa ekonomikoko programarik handiena da, non dirulaguntzekin bakarrik lortzen den urteko BPGaren %0,93 batez beste. Guztira, 2021-2026 aldian Espainiak jaso ditzakeen MRR funtsek Espainiako urteko BPGaren %1,9aren baliokidea diren inbertsioak batzen dituzte ezarpen-aldi osoan.

PRTRa diseinatuta dagoen bezala, Espainiako Gobernu eta, bereziki, bere ministerioak arduratzen dira bertan definitutako neurri, erreforma eta inbertsio multzoaren ezarpena kudeatzeaz. Inbertsioetako batzuen lurralde hedapenerako, ministerioek autonomia erkidegoei agintzen diete inbertsio horiek egikaritzea. Autonomia erkidegoei, nagusiki, konferentzia sektorialen bidez ematen

zaie eskaera. Konferentzia horietan zehazten dira bai funtsen banaketa autonomia erkidego bakoitzari, adierazle objektiboetan oinarrituta, bai eman beharreko helburua eta bete beharreko xedeak, Batzordearekin hitzartutakoekin bat datozenak.

PRTRk zeharkako lau jarduketa ildo ditu, palanka eta osagai guztien ardatz egituratzaile gisa, eta bat datoz MRRn ezarritakoekin: (i) trantsizio berdea, (ii) eraldaketa digitala, (iii) gizarte eta lurralde kohesioa eta (iv) genero berdintasuna.

**MRR funtsak Espainian hedatzeko eskema orokorra**  
**62. irudia**



Lau jarduera ildo horiek hamar politika-palankatan islatzen dira. Palanka horien helburua da jarduera eta enplegua bultzatzea Planaren lehen fasea 2023an amaitzen denetik aurrera, epe laburrerako susperraldi ekonomikoa sustatzeko eta Espainiako ekonomiaren produktibitatea eta etorkizuneko hazkunde potentziala handituko duen eraldaketa prozesua bultzatzeko.

Hamar politika-palanka horiek herrialdea modernizatzeko inbertsio eta erreforma proiektuen 31 osagaiak hartzen dituzte. Gehienak horizontalak dira, hau da, ekonomia osorako; hala ere,

horietako batzuen helburu espezifikoak ekonomiaren trakzio sektoreen modernizazioa sustatzea da, hala nola merkataritza, turismoa, nekazaritzako elikagaiak, osasuna, automobilaren industria edo administrazio publikoak.

PRTRk inbertsio publikoaren bolumen handia aurreikusten du, ia 70.000 milioikoa 2021-2023rako, inbertsio pribatua mobilizatzeko eta erakartzeko etorkizunean garrantzi estrategikoa izango duten eremuetan. 34. taulak planaren lehen fasean sartutako inbertsio programa nagusiak jasotzen ditu. Programa horietan sartutako proiektu batzuk, hala nola azpiegitura jasangarriekin lotutakoak, fase aurreratuago batean daude eta berehalako eragina izan dezakete. Beste batzuek, berrikuntza disruptiboagoarekin lotutakoek adibidez, gauzatze epe luzeagoak dituzte, eta epe ertainean izango dute eragina.

Europako Intereseko Proiektu Garrantzitsuetan (IPCEI, ingelesezko sigletan emana) oinarrituta, 36/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez Administrazio Publikoa modernizatzeko eta PRTR gauzatzeko premiazko neurriak onartu baitziren, Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (PERTE) proposatzen ditu, Next Generation EU funtsak ezartzeko eta Estatuko industria politika berri baten ardatz gisa jarduteko lankidetzara publiko-pribatuko tresna nagusi gisa.

Horiek horrela, PERTEen xedea PRTRren helburuak lortzen laguntzea da, eta, aurrekoaz gain, Espainiako ekonomiaren enplegua, hazkundea eta lehiakortasuna modu nabarmenean bultzatu behar dituzte, arreta berezia jarritz I+G+Bren osagaian eta enpresa txikiak eta ertainak inplikatze gaitasunean. Gaur egun 12 PERTE daude hautatuta. PERTEei lotutako inbertsioetarako 18.867 milioi euroko esleipenetik, 2024ko maiatzera arte 10.859 milioi euro baino ez dira banatu, bai dirulaguntza gisa, bai mailegu gisa.

PRTRa Euskadin hedatzeari dagokionez, 2024ko maiatzaren 31ko datuekin, Espainian mobilizatutako estatuko kudeaketako MRR funtsen 22.152 milioi euroetatik 1.190 milioi euro Euskal Autonomia Erkidegoko eragile publiko edo pribatuen esku geratu dira, hau da, guztizkoaren %5,4 inguru. Bestalde, Eusko Jaurlaritzari 1.233 milioi euro transferitu zaizkio, hau da, autonomia-erkidegoei esleitutako MRR funtsen guztizkoaren %4,6. PERTEei lotutako inbertsioei dagokienez, Estatuan kudeatutako 6.291 milioi euroetatik 571 (%9,1) Euskadira iritsi dira, eta autonomia erkidegoek kudeatutakoetatik, berriz, Euskadik 270 (%5,9) jasotzen ditu.

**PRTRren lehen faseko inbertsio programak**  
**34. taula**

MM €

<b>Programa</b>	<b>21-23ko inbertsioa</b>
Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatuaren estrategia	13,20
Etxebizitza Birgaitzeko eta Hiria Berroneratzeko Programa	6,82
Herri-administrazioen modernizazioa	4,31
ETEak digitalizatzeko plana	4,06
5Gren ibilbide-orria	3,99
Espainia 2030 Industria Politika Berria eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia	3,78
Gaitasun Digitalen Plan Nazionala	3,59
Zientzia eta Berrikuntzako Sistema Nazionalaren garapena	3,40
Turismo sektorearen modernizazioa eta lehiakortasuna	3,38
Energia berriztagarrien hedapena eta integrazioa	3,16
Zainketen Ekonomia Berria	2,49
Pol. berriak Publikoa, lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	2,36
Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea	2,09
Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa	2,07
Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa	1,64
Ekosistemen eta biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehengoratzea	1,64
Hidrogeno berriztagarriaren ibilbide-orria	1,55
Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunak, biltegitratzea	1,36
Osasun sistema berritzea eta modernizatzea	1,06
Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala	0,50

**PERTEak 2024ko maiatzaren 31n egikaritzea**  
**35. taula**

	Estatuko					Euskadi		
	1 Plan1. faseko transferentziak	Transferentzia gehigarriak	Maileguak	Inp. Aurreikusitakoa (M €)	Inp. Banatua (M €)	Esleitutakoaren %	Euskadiko aurrekontu banatua (M €)	Esleituia Estatukoaren aldean (%)
Aeroespaziala	590,7	100	240	930,7	316,1	33,9%	40,4	12,8%
Nekazaritzako elikagaiak	747	150	460	1.357	394,4	29,1%	24,9	6,3%
Uraren zikloaren digitalizazioa	430	1.250	1.805	3.485	374,5	10,7%	29,3	7,8%
Mikroelektronika eta erdieroaleak	275	1.225	10.750	12.250	114,1	0,9%	5,4	4,7%
Ekonomia zirkularra	192	600	-	792	160,1	20,2%	20,8	12,9%
Gizarte ekonomia eta zainketen	766,3	1.000	-	1.766,3	373,4	21,1%	21,7	5,8%
Energia eta hidrogeno berriztagarria eta biltegitratzea	6.600	4.196,6	-	10.796,6	4.112,7	38,1%	266,2	6,5%
Hizkuntzaren ekonomia berria	323,5	-	401	724,5	15	2,1%	2	13,3%
Ontzigintza	150	-	-	150	101,7	67,6%	19,5	19,2%
Abangoardiako osasuna	810,1	500	330	1.640,1	1.413,8	86,2%	59,4	4,2%
Ibilgailu elekt. eta konektatua garatzea	2.870	250	1.000	4.120	3.033,1	73,6%	351,1	11,6%
Deskarbonizazio industrial	450	1.020	1.700	3.170	450	14,2%	0	0%
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.205</b>	<b>10.292</b>	<b>16.686</b>	<b>41.182</b>	<b>10.859</b>	<b>26%</b>	<b>841</b>	<b>8%</b>

Iturria: BOE, Ministroen Kontseilua eta PRTR aldizkaria.